



171









GIRICHTINOAREN

ELIZAKO LIBURUA

M-55999
F-56739


ATV
27039

GIRICHTINOAREN
ELIZAKO
LIBURUA




TOURS
MAISON MAME
ÉDITEURS PONTIFICAUX





Limpias-eko Kristo-a

GUREZAT HIL IZAN DA



MONSEIGNEUR HOUBAUT

BAIONAKO JAUN APEZPIKUAREN LETRA

GIRICHTINOAREN

ELIZAKO

LIBURUAREN

DIOSESAKO APEZERI ESKAINTZEKO

Laguntzaile jaun maiteak,

Haurrak, haur direlarik, girichtinoki altchatzeak, ez du parerik. Gauza hori badakite ontsa, herri berean, erretor gisa, urthe luzeak eman dituzten apezek.

Frantzia barnetik edo Frantzia gainetik gutarterat heldu zauzkigun kampotiarretan asko, agertzen zauzkigu erlisione gutirekin. Erlisioneak manatu urhatsak ez dazkite nola egin. Eta apezak ere ez daki beti nola egin, kampotiar heiekilakoa.

Bainan, zer alegrantzia zuentzat, laguntzaile maiteak, zihauerek moldatu haurrak ikusten dituzuelarik kofesatzerat heldu ! Orai beharbada familiatuak dira, bainan atchikiak dituzte, zuek lehen erakatsi molde guziak. Beharbada ez duzue ikusten heien begitartea, ez eta ere entzuten heien boza, bainan halarik ere zuek ezagutzen. Zuen dizipulu dira, dela othoitzeko, dela kontzientziaren ikertzeko, dela bekatuen aithortzeko moldeaz. Zuentzat atsegin, ikustea mundu huntako harat hunat guzien gatik,

jarraikitzen direla, zuek erakatsi erlisionekeo urhats eta molde guzieri.

Apezen egimbidea da alabainan, haurreri emaita, haur direlarik, ondoko urthetan galduko ez diren girichtino pleguak eta moldeak.

Zuen laguntzeko dugu zuen eskuetan ezartzen, gure Giristinoaren Elizako liburua, Baionako diosesarentzat egina.

Liburu hori nahi dugu ikusi haur guzien eskuetan. Ederki baliatuko dute.

Liburu hori ezagutzearekin, ikusiko duzue zer aberastasunak dauzkan haurren behar bezala moldatzeko erlisionekeo urhatsetan.

Aintzin solas huntan, nahi dauzkitzuegu aipatu bakarrik, liburuaren zathiak.

*
* *

Lehen zathia : *Othoitzak*. Goiz aratseko othoitzak, katichimakoak berak. Eta othoitzetan ere hartu ditugu, denek ezagutzen dituzten hek. Usaiako othoitzetan ondotik ezarri ditugu othoitz berezi batzu, denek maite dituztenak : *Egunaren eskaintzea, handituta zer egin behar den jakin nahi duen haurraren othoitzak, apeztu nahi den haurraren othoitzak.*

Atsegin ukanen duzue laguntzaile maiteak, liburu berean kausitzea hoin othoitz laburrak, ikas errechak, zuen haurren gogo-bihotzetan aise sartuko direnak.

*
* *

Bigarren zathian, *Mezak*.

Lehenik, meza saindua zer den, klarki emana; meza saindua, haurrak entzuteko gisan moldatua, behar diren chehetasun guziekin.

Haren ondotik, meza saildua kantiketan, eta haur kurutzadunen meza. Gisa hortan, haurrek ikasiko dute behar den bezala mezaren entzuten, egun bat eta bihar bertzea hartuz.

Meza nagusia hor dute ere bere othoitz eta kantu bereziekin.

Erran gabe doa, haurrak handitzearekin beharko duela eskuratu bertze mezako liburu zombait, oroz gainetik Dom Lefevre beneditanoak argitarazia. Aberatsagorik ez da. Holako liburu batekin, haurrek ikasiko dute, apezarekin batean othoitz egiten.

*
* *

Hirugarren zathian : *Bezperak eta ofizioak*. Gure diosesan, fededunek badazkite Elizako kantuak. Eta haurrek behar dituzte, haur direlarik, kantu horiek ikasi.

Hor kausituko dituzte maizenik emaiten diren bezperak eta himnoak.

*
* *

Laugarren zathian : *Sakramenduak* eta lehenik Penitentziako sakramendua. Haurrek behar dute sakramendu hori maitatu; liburu huntako othoitzak erranez, laster maite ukanen du.

Gorphutz sailduko sakramendua molde berezi batean emana da. Haur ttipiek zer egin komuniatu aintzin eta ondoan, hor klarki ezarria da. Gisa hortan, haurrek ez dute mezako dembora Inze kausituko eta ber berek laster ikasiko dute meza behar bezala entzuten.

Ondotik heldu da konfirmazionea. Ez du behar bada sakramendu horrek ukaiten hartze lukeen artha. Irakur ditzatela haurrek konfirmazioneko othoitzak. Eta zuek erranak lagun, laster ikasiko dute haurrek, zer gauza handia den konfirmazionea.

*
* *

Elizak arthoski hautatuak ditu igandetako *Ebanjelioak*. Ez da, apezak eman behar dituen erakaspenentzat, erro hoberik. Eta horietarik behar da egin katichima, komuniatu ondoan bildu behar diren haurrerik. Paia horietan ikasiko dute behar dena, katichimako zertifikata igan behar dutenek. Eta ikasi behar direnetan bada, edo ichtorio sainduko gerthakari zombeit, edo Jesu-Kristoren biziaren zathi bat, ahal bada hautaturik igandetako Ebanjelioetan.

Eta gisa hortan katichimako zertifikata hori hartu nahi dutenek aski dute liburu hau eskuratzea. Liburuak badauzka alabainan igandetako eta phesta buruetako Ebanjelioak.

*
* *

Seigarren zathian, kausituko dituzue *eliza-phestak*. Haurrek zekebratzen edo zekebratu behar dituzten phestak.

La Sainte Enfance deithu phesta, arras haurren gogokoa. Holako phesta baten medioz, ikasiko dute haurrek, lagunengirak biltzen. Bada asko molde haurrerik erakasteko, misionesten laguntzen eta jende paganoen konbertitzen.

Komunione handiaz emaiten ditugu zombeit lerro bakar. Herri bakotchak atchik ditzala bere ohidurak. Behar bada zombeit lekutan baliatuko dituzte liburuan ezarri othoitzak.

*
* *

Azken zathian, ezartzen ditugu kantikak, eskual-herriko elizetan kantatzen diren gehienak. Gisa hortan, haurrek eta etchekoek, ttipiek eta presuna handiek, eskuetan ukanen dute elizako gehienak dituen liburua.

Eta orai, zoaz, liburu maitea. Gure diosesako haurren eta fededunen eskuetan sar zaite. Heien laguna izan zaite.

Eskuetan har zaitzatela othoitzen erraiteko, konzientziaren etsaminatzeko, mezaren entzuteko, komuniatzeko, kantatzeko.

Igande guzietz irakur dezatela zure paietan, Ebanjelio saildua.

Uste dugu, gure apezten laguntzaile hauta izan zaitezkeela, haurren behar bezala moldatzeko. Has zazu orai beretik zure lana. Eta lan hori egin ahala aberats egin dezazun, igortzen dautzugu gure benedizionerik hoberena.

† HENRI-JEAN,
Baionako apezpikua.

LEHEN ZATHIA

OTHOITZAK

I. GOIZEKO OTHOITZA

ETCHEKO GUZIEK ELGARREKIN EGIN BEHAR LUKETENA

Aitaren †, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean.
Halabiz.

Jainko guziz botheretsua, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, kreatu nauzuna zure ezagutzeko eta maithatzeko ahalarekin, huna non nagon humilki zure aitzinean belhauniko. Ezagutzen dut zombat naizen ahula eta ezdeusa, adoratzeko zaitut gauza guzien kreatzalea eta Nausi lehena bezala.

Jauna, sinhesten dut zu baithan, zeren egia bera baitzare ; esperantza dut zu baithan, zeren guziz ona baitzare ; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez, zeren baitzare osoki maithagarria.

Zer bihurtuko dautzut, Jauna, zu ganik ukan ditudan ongi egin guzientzat? Deusik ez dut zure bihotz onari zor ez diotanik. Eskerrak deraitzut bereziki zeren kreatu nauzun, bekhatutik erosi, egiazko fedeaz argitu, eta egun arte zaindu egiazko Aita baten artha guziarekin.

Hemen gogoeta bat behar da egin zer grazia egin deraukun Jainkoak egun hau gure salbamenduari artzeko emanaz, eta hunen sainduki iragaiteko chede zin bat hartu.

Orhoitu behar da zoin diren maizenik egiten diren hutsak,

aitzinetik ikhusi bekhaturat deramaten bideak, eta chedea hartu hulako bekhaturtik eta bekatuzko bidetik urruntzeko. Hortakotz egon behar da hemen aphur bat ichilik.

Ikhusten ditutzu, Jauna, ene bihotzaren azken chokoe-tarainoko guziak eta bereziki oraiche hartzen ditudan chede sainduak; bainan ezagutzen duzu halaber ene flakezia; nola begira naiteke bekhaturtik zure laguntza gabe? Jainko guziz botheretsua, salba nezazu; emadaitzu, othoi, ene arimaren etsaiari bihurtzeko eta bekhaturan erori gabe egun hunen iragaiteko behar ditudañ indarrak. Egizu zure graziaz, ene gogoetak, hitzak, obrak, nahigabeak, oro zure lege sainduaren arabera izan ditén. Halabiz.

Gure Aita, zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena, ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere; iguzu egun gure eguneko ogia; barkha zagutzu gure zorrak, guk gure ganat zordun direnei barkhatzen dioztegun bezala; eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera, bainan begira gaitzatzu gaitzetik. Halabiz.

Agur, Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin, benedikatua zare emazte guzien artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua Jesus.

Maria Saindua, Jainkoaren Ama, egizu othoitz gu bekhatoreentzat, orai eta gure heriotzeko orenean. Halabiz.

Sinhesten dut Jainko Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurraren kreatzalean. Eta Jesu-Kristo, haren Seme bakhar gure Jauna baithan, zoin kontzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren berthutez, sorthu zen Maria Birjina ganik; pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, kurutzefikatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten; jautsi zen ifernuetarat; hirugarren egunean jaiki zen bizirik hilen artetik; igan zen zeruetarat, jarria dago

Jainko Aita guziz botheretsuaren eskuinean; handik ethorriko da bizien eta hilen jujatzera.

Sinhesten dut Izpiritu Saindua baithan; Eliza katoliko Sainduan; Sainduen partaliertasunean; bekhatuen barkhamenduan; haragiaren phiztean; bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

Kofesatzen nitzaio Jainko guziz botheretsuari, Maria bethi Birjina dohatsuari, jondoni Mikael Arkanjeluari, jondoni Joanes Batistari, jondoni Petri eta Paulo Apostoluer, Saindu guzier (eta zuri, ene Aita), zeren egin baitut sobera bekhatu, gogoz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hortakotz othoitz egiten diot Maria bethi Birjina dohatsuari, jondoni Mikael Arkanjeluari, jondoni Joanes Batistari, jondoni Petri eta Paulo Apostoluer, Saindu guzier (eta zuri, ene Aita), egin dezozuen enetzat othoitz gure Jainko Jaunari.

Jainko guziz botheresuari urrikal gakizkola, eta gure bekhatuak barkhaturik, helaraz gaitzala bizitze eternalera. Halabiz.

Gure bekhatuen barkhamendua, barkamendu osoa eman dezagula Jainko guziz botheretsu et urrikalmendutsuak. Halabiz.

Birjina Maria Saindua, Jainkoaren Ama, ene Patroin Saindua, eta Saindu guziak, balia zaizkitet Jainkoaren aitzinean. Ene Aingeru begirale saindua, begira nezazu eta lagun salbamenduko bidean. Halabiz.

Jesusen izen sainduaren lithaniak

(300 Egunen Indulientzia.)

Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Jesu, audi nos.
Jesu, exaudi nos.
Pater de cælis, Deus, miserere nobis.

Fili, Redemptor mundi
Deus, miserere nobis.
Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.
Jesu Fili Dei vivi, miserere n.

Jesu splendor Patris, miserere nobis.

Jesu candor lucis æternæ,
Jesu rex gloriæ,

Jesu sol justitiæ,
Jesu fili Mariæ Virginis,

Jesu amabilis,
Jesu admirabilis,

Jesu Deus fortis,
Jesu Pater futuri sæculi,

Jesu magni consilii Angele,
Jesu potentissime,

Jesu patientissime,
Jesu obedientissime,

Jesu mitis et humilis corde,

Jesu amator castitatis,
Jesu amator noster,

Jesu Deus pacis,
Jesu auctor vitæ,

Jesu exemplar virtutum,
Jesu zelator animarum,

Jesu Deus noster,
Jesu refugium nostrum,

Jesu pater pauperum,
Jesu thesaure fidelium,

Jesu bone Pastor,
Jesu lux vera,

Jesu sapientia æterna,
Jesu bonitas infinita,

Jesu via et vita nostra,
Jesu gaudium Angelorum,

Jesu rex Patriarcharum,
Jesu magister Apostolorum,

Jesu doctor Evangelistarum,

Jesu fortitudo Martyrum,
Jesu lumen Confessorum,

Jesu puritas Virginum,
Jesu corona Sanctorum

omnium,

miserere nobis.

Propitius esto, parce nobis, Jesu.

Propitius esto, exaudi nos, Jesu.

Ab omni malo, libera nos, Jesu.

Ab omni peccato,
Ab ira tua,

Ab insidiis diaboli,
A spiritu fornicationis,

A morte perpetua,
A neglectu inspirationum

tuarum,
Per mysterium sanctæ In-

carnationis tuæ,
Per Nativitatem tuam,

Per Infantiam tuam,
Per divinissimam vitam

tuam,
Per labores tuos,

Per agoniam et Passionem
tuam,

Per Crucem et derelictionem
tuam,

Per languores tuos,
Per mortem et sepulturam

tuam,
Per Resurrectionem tuam,

Per Ascensionem tuam,
Per gaudia tua,

Per gloriam tuam,
Agnus Dei, qui tollis peccata

mundi, parce nobis, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, exaudi nos, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, miserere nobis,
Jesu.

Jesu, audi nos.
Jesu, exaudi nos.

Oremus. — Domine Jesu
Christe, qui dixisti : Petite,

libera nos, Jesu.

et accipietis, quærite, et invenietis; pulsate, et aperietur vobis: quæsumus, da nobis petentibus divinis tui amoris affectum, ut te toto corde, ore et opere diligamus, et a tua numquam laude cessemus.

Sancti Nominis tui, Do-

mine, timorem pariter et amorem fac nos habere perpetuum: quia numquam tua gubernatione destituis quos in soliditate tuæ dilectionis instituis. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. R̄. Amen.

Igandetan erranen dire Jainkoaren eta Elizaren Manamenduak.

JAINKOAREN MANAMENDUAK

1. Jainko bat adora zazu,
Halaber maitha osoki.
2. Zinik eginen ez duzu
Ez gezurrez ez alferki.
3. Igandeak begira zatzu,
Jauna zerbitzatzuz kharsuki.
4. Aita eta Ama ohora zatzu,
Bizi zaitezen luzeki.
5. Nehor obraz hilen ez duzu,
Ez nahikundez gaichtoki.
6. Lohikeria eginen ez duzu,
Obraz ez gogoz likhiski.
7. Bertzerena ebatsiko ez duzu,
Ez atchikiko jakinki.
8. Lekhukotasunik ez duzu,
Ez hitz erranen gezurki.
9. Berzen esposik ez duzu
Gutiziatuko lizunki.
10. Berzen ontasunik ez duzu
Gutiziatuko gaizki.

ELIZAREN MANAMENDUAK

1. Phestak begira zatzu
Manamenduzkoak sainduki.
2. Meza saindua entzun ezazu
Phesta-Igandetan kharsuki.
3. Bekatuak kofesa zatzu
Urthean behin osoki.
4. Gorphutz-Saindua har zazu,
Phazkoz bederen umilki.
5. Gartak, Bichiliak barur zatzu,
Garizuma ere osoki.
6. Ortziralean janen ez duzu
Ez mehe-egunetan haragi.

Gloria Patri...

Gloria Patri et Filio, et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

Ospe Aitari, eta Semeari, eta Izpiritu Sainduari.

Hastapenean zen bezala orai ere, eta menderen mendetan. Halabiz.

Egunaren Eskaintzea

Jesusen bihotz sakratua, andredena Mariaren bihotz garbia ararteko hartuz, eskaintzen daukitzut, egungo othoitzak, lanak, sofrikarioak, gure bekatuen erreparazionetan eta aldare gainean dituzun chede guzietara.

Ezkaintzen daukitzut bereziki, *Apostolat de la Prière* hortako membroeri emanak diren chedeetara, hilabete huntako eta egungo.

Zure graziari esker irabaz ditzadala egun egin beharrerri emanak diren indulientziak.

II. ARRATSEKO OTHOITZA

Aitaren †, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean.
Halabiz.

Jainko guziz botheretsua eta bethierekoa, Aita, Semea, eta Izpiritu Saindua, orotan zarena, heldu nitzaizu adoraterat eta ene ohoren emaiterat, gaurko loaren hartzerat joan baino lehen.

Adorutzen zaitut, ô ene Jainkoa, maite zaitut, laudatzen eta benedikutzen zaitut. Zu zare Aita urrikalpenez bethea, Jainko konsolatzalea, egiazko dohain guzien ithurria. Eskerrak daukitzut, ahalaz humilki, egin daukitazun ongi guziez, eta bereziki egun huntakoez.

Bainan nola ihardetsi dut, Jauna, zure ontasun izarigabekoari? Ala esker gaichtoz pagatu baitzaitut hambat bekhatutan eroriz, zu bethi ongi egiten zinautalarik.

Jauna, argi nezazu, ezagut dezadan zombat eta nolako bekatuak ditudan egin; bero zazu ene bihotza zure amodioaren suaz, urriki egiazko bat izan dezadan zu laidostaturik.

Hemen ikhusi behar da egun zer bekhatu egin den, gogoz, hitzez, obraz, edo egin behar zena ez eginez, bai Jainkoaren, bai lagunaren, bai bere buruaren kontra; baratzen delarik guziz maizenik egiten diren bekhatuez orhoitzen.

Aithortzen ditut, Jauna, zure aitzinean ene bekatuak orotaz barkhamendu galdatzen dautzut Jesu-Kristoren merezimenduen gatik. Hastiatzen ditut, laidostatu zaituztelakotz, eta hitzemaiten dautzut, zure graziarekin batean, urrunduko nizala hemendik aitzina bekhatutik eta bekhatuzko bidetarik, eta eginen dudala orotaz penitentzia.

Kofesatzen nitzaio, p. 3.

Gure Aita, p. 2.

Agur Maria, p. 2.

Sinhesten dut, p. 2.

Fedezko Akta. — Ene Jainkoa, sinhesten ditut zinez eta ene bihotz guziaz, Eliza katoliko, Apostoliko, Erromanoak sinhesten eta erakhasten dituen gauza guziak : zeren zuk, egia bera zarenak erakhatsi baiteraizkotzu.

Esperantzazko Akta. — Ene Jainkoa, esperantza dut, sinheste fermu batekin, emanen dautazula, Jesu-Kristoren merezimenduen gatik mundu huntan zure grazia, eta zure manamenduer jarraikitzen banaiz, bertzean zure zoriona, zeren hitzeman baituzu eta baitzare zure hitzetan osoki leiala.

Karitatezko Akta. — Ene Jainkoa, maite zaitut ene bihotz guziaz eta gauza guziez gehiago zeren baitzare guziz ona eta osoki maithagarria : maite dut halaber ene laguna ene burua bezala zure amorea gatik.

Kontrizioezko Akta. — Ene Jainkoa, handizki damu dut zu ofentsaturik, zeren guziz ona zaren, eta zeren bekhatua hastio duzun. Barkha zadazu Jesu-Kristoren merezimenduen gatik. Hartzen dut chede zin bat, zure graziarekin batean, zu gehiago ez ofentsatzeko eta penitentzia egiteko.

Othoizten zaitut, Jauna, zure benedizioneak eta graziak ichur ditzatzun gure Aita Sainduaren, gure Jaun Aphezpikuaren, gure aitzindarien gainerat, halaber ene ahaide, adiskide, etsai, eta orozbat ene othoiztetan zerbait hartze duketen guzien gainerat. Erabil gaitzatzu othoi guziak salbamenduko bidean.

Othoizten zaitut ere, Jauna, Purgatorioetako oinhazetan diren arimentzat ; emozute bere bekhatu guzien barkhamendua, eta sarrarazkitzu hanbat lehiarekin igurikitzen

duten egoitza dohatsuan. Hoik oro galdatzen dauzkizut zurekin eta Izpiritu Sainduarekin bat den Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean mende guzietako bizitzean. Halabiz.

Birjina Saindua, Jainkoaren Ama, ene Patroin Saindua eta Saindu guziak, balia zaizkitet Jesu Kristo gure Jaunaren aitzinean. Ene Aingeru begirale Saindua, begiranezazu eta lagun salbamenduko bidean. Halabiz.

Jainko guziz botheretsu eta urrikalmendutsua Aita, Seme eta Izpiritu Sainduak, begigu gau ezti bat eta heriotze dohatsu bat. Halabiz.

Birjina sainduaren lithaniak

Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de cælis, Deus, miserere nobis.
Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.
Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.
Sancta Maria, ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,

ora pro nobis.

Mater boni consilii, ora pro nobis.
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua cæli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,

ora pro nobis.

Refugium peccatorum, ora
pro nobis.

Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum,

Regina Angelorum,

Regina Patriarcharum,

Regina Prophetarum,

Regina Apostolorum,

Regina Martyrum,

Regina Confessorum,

Regina Virginum,

Regina Sanctorum om-
nium,

Regina sine labe originali
concepta,

Regina sacratissimi Rosarii,

Regina pacis,

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, parce nobis, Do-
mine.

ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, exaudi nos, Do-
mine.

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, miserere nobis.

ŷ. Ora pro nobis, sancta
Dei Genitrix.

ꝛ. Ut digni efficiamur pro-
missionibus Christi.

Oremus. — Concede nos
famulos tuos, quæsumus,
Domine Deus, perpetua men-
tis et corporis sanitate gau-
dere, et gloriosa beatæ Ma-
riæ semper Virginis inter-
cessione a præsentis liberari
tristitia et æterna perfrui
lætitia. Per Christum Domi-
num nostrum. ꝛ. Amen.

Angelusak

Angelus nuntiavit Mariæ,
et concepit de Spiritu San-
cto.

Ave, Maria...

Ecce ancilla Domini, fiat
mihi secundum verbum
tuum.

Ave, Maria...

Et Verbum caro factum
est, et habitavit in nobis.

Ave Maria...

ŷ. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

ꝛ. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus. — Gratiam tuam,
quæsumus, Domine, menti-

Jaunaren Aingeruak ber-
ria ekharri zion Mariari, eta
kontzebitu zuen Izpiritu
Sainduaren ganik.

Agur Maria...

Huna Jaunaren neskatoa ;
egina izan bekit zure hit-
zaren arabera.

Agur Maria...

Eta Jainko Semea gizon
egin zen, eta egon da gutar-
tean.

Agur Maria...

bus nostris infunde, ut qui,
angelo, nuntiante, Christi

Filii tui incarnationem cognovimus, per Passionem ejus et crucem ad resurre-

ctionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Pazko Demboran :

Regina cæli, lætare, alleluia ;

Quia quem meruisti portare, alleluia ;

Resurrexit, sicut dixit, alleluia ;

Ora pro nobis Deum, alleluia.

ŷ. Gaude et lætare, Virgo Maria, alleluia.

℞. Quia surrexit Dominus vere, alleluia.

Oremus. — Deus, qui per resurrectionem Filii tui Domini nostri Jesu Christi mundum lætificare dignatus es : præsta, quæsumus ; ut per ejus Genitricem, Virginem Mariam, perpetuæ capiamus gaudia vitæ. Per eundem Christum...

℞. Amen.

III. HILENTZAT OTHOITZA

De profundis

DE PROFUNDIS clamavi ad te, Domine : * Domine, exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendentes * in vocem deprecationis meæ.

Si iniquitates observaveris, Domine ; * Domine, quis sustinebit ?

Quia apud te propitiatio est, * et propter legem tuam sustinui te, Domine.

Sustinuit anima mea in verbo ejus ; * speravit anima mea in Domino.

A custodia matutina usque ad noctem, * speret Israel in Domino.

Quia apud Dominum misericordia, * et copiosa apud eum redemptio.

Et ipse redimet Israel * ex omnibus iniquitatibus ejus.
ŷ. Requiem æternam dona eis, Domine. R. Et lux
perpetua luceat eis.

ŷ. Requiescant in pace. R. Amen.

ŷ. Domine, exaudi orationem meam. R. Et clamor
meus ad te veniat.

Oremus. — Fidelium, Deus, omnium conditor et re-
demptor, animabus famulorum famularumque tuarum
remissionem cunctorum tribue peccatorum : ut indul-
gentiam quam semper optaverunt, piis supplicationibus
consequantur. Qui vivis et regnas, Deus, in sæcula sæcu-
lorum. Amen.

IV. OROTARIK

Andredena Mariari san Bernaten othoitzaz.

Orhoit zite, o Birjina Maria, guziz urrikalmendutsua,
ez dela egundaino aditu, nehor zure ganat ihes egin duenik,
zure arartekotasuna eskatu duenik, izan dela utzia lagun-
tzarik gabe. Fidantzia berak sustatua, nik ere, Birjina
Birjinen Ama, zure ganat laster egiten dut : zure ganat
heldu niz ; auhenez nago bekhatrosa zure aitzinean. Ez
ditzatzula arbuia ene othoitzak, Jainko Semearen Ama,
bainan bai entzun eta onhets amultsuki. Halabiz.

Sub tuum eskuāraz : Zure ganat ihes egiten dugu, Jain-
koaren Ama Saindua : begira gitzatzu. Gure othoitzak
ez ditzatzula arbuia gure behar-orduetan. Bainan libra
gitzatzu athegaitz guzietarik, Birjina bethi loriosa eta bene-
dikatu. Halabiz.

O Maria, bekhatu rik gabe kontzebitua, othoitz egizu
guretzat ; zuri gaude.

Mariaren bihotz eztia, izan zaite ene salbamendua.

San Josepi

San Josep, garbitasun saildua begiratu nahi dutenen Aita, Jainkoak zure eskuetan ezarri zituen Jesus garbitasuna bera zena, eta Maria Birjinen artean birjinarik garbiena. Othoizten zitut, othoizten ene bihotzaren erditik, Jesus eta Maria hain maite izan ditutzun hetaz : lagun nezazu garbitasun sailduaren begiratzen osoki : ardiets-adazu zure othoitzez, ene bihotzaren eta ene gorphutzaren, hala-nola ene mihiaren eta ene gogoaren beraren bethi chahu eta garbi atchikitzeke grazia. Halabiz.

San Josep, Jesus Jaunaren eta Andredena Mariaren eskuetan hiltzeke zoriona ukan duzu. Ardiets-adazu zuk bezalako heriotze saildu baten egiteke grazia, bizi nizano zuk bezala maithatuz Jesus eta Maria. Halabiz.

Familia Sailduari

Jesus, Maria eta Josepe, emaiten daizkitzuet ene bihotza, ene adimendua, eta ene bizia.

Jesus, Maria eta Josepe, laguntzerat hel zaizkitet ene azken agonian.

Jesus, Maria eta Josepe, egidazue grazia ene azken hatsaren bakean aurdikitzeke zuen konpainia sailduan.

Aingeru Begiraleari

Gau on, ene aingeru begirale ona, Jainkoaren eta zure eskuetan emaiten naiz. Egunaz, begiratu nauzu. Begira nezazu gauaz ere ; gaizkitik, bekatutik begira nezazu, ez dezadan Jainkoari penarik egin.

Patroin Sailduari

Saildu handia, ohore zaut zure izenaren ekartzea. Begira nezazu, othoitz egizu enetzat, zuk bezala Jainkoa zerbitza dezadan lurrean, eta zurekin, betikotz dohatsu izan nadin zeruan.

Othoitz laburrak

Jan aintzineko othoitzza :

Jauna, benedika gitzatzu, gu eta hartzerat goazin janharria. Halabiz.

Jan ondoko othoitzza :

Eskerrak deraitzugu zure ongi egin guzientzat, Jainko guziz botheretsu eta bethierekoa. Halabiz.

Lana hasterakoan gogoz bederen erraitekoa :

Jainko maitea, eskaintzen dautzut ene lana. Zure gatik egin nahi dut. Emadazu zure benedizione saindua.

Tentazionetan.

Jesus, zathozkit laguntzerat. Oi ene zeruko Ama ona, begira nezazu etsaiaren eskuetarik.

Elizan Sartzean

Jesus aldareko sakramenduan dagonari.

Laudatua eta adoratua izan bedi Jesu-Kristo gure Jauna, zeruan eta aldareko sakramendu sainduan ; orai eta beti ere.

Amodiozko akta

Jesus, ene onthasun baxharra : maitatu nauzu, zure haragiaz hazi nahirainokoan ; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez. Nahi naiz bizi eta hil zure amodio sainduan.

Haurraren Othoitzza Etchekoentzat

Ene Jainkoa, ait-amen ohoratzea manatu dautazuna, onhar zazu heientzat egiten dautzutan othoitzza. Egizu luzaz bizi diton lur huntan, arimako eta gorphutzeko osagarrian.

Benedikazkitzu heien lanak eta heien chedeak. Doblezka itzul-kiotzute enetzat egin dituztenak. Heien gogoan

finka zure lege sainduaren maitatzea eta pratikatzea. Zure graziarekin, izan nadila heien sustengu eta kontsolazione emaile. Luzaz heien amodioaz gozatu ondoan lur huntan, izan nadin heiekin betikotz dohatsu zeruan. Halabiz.

Handitu-ta zer egin behar duen, jakin nahi duen haurraren othoitza.

Jauna, zer nahi duzu egin dezadan? Ene bihotzeko kartsutasun guziarekin, zure argiak dauzkitzut galdegiten, jakiteko, handitu-ta zer behar dudan egin.

Erradazu zer zautzun laketena. Bainan badakizu zoin nizen ahula eta ezdeusa. Emadazu indarra, zuk erakutsi bidechkari jarraikitzeke, dremendenik makurtu gabe.

O Maria, ene ama ona, ene eskua hara-zu zure eskuan. Zuhaurek gida nezazu eta atchik nezazu, zerurat helduko nuen bide chuchenean.

Hautatze hortarik jaliko da ene salbamendua. Zu, ene aingeru begirale ona, izan zite ene laguntzailea, hautatze premiatsu hortan. Halabiz.

Apeztu nahi duen haurraren othoitza.

Jauna, iduritzen zaut bihotz-barnean entzuten dutala zure deia. Bainan ez othe da nihaurek nahi nukeena, eta ez, zuk nahi duzuna? Hori, ondoan jakinen dut. Haatik aintzinetik onhartzen ditut, ene gainean dituzun chede guziak. Orai beretik erraiten dautzut arras kontent nintazkeela nahi banuzu hautatu, zure apez.

Arimen salbatzea, mezako sakrifizioa emaita bizientzat eta hilentzat, Jesusen erresuma munduan hedatzea, eni ez zaut iduri, deus badela munduan ederragorik eta handiagorik.

Erradazu othoi, jauna, ohore handi hori idurikatzen ahal dutanetz.

Zure argiak hedazkitzu ene etchekoeri, ene kobesorari, ez nadin, apezteari abia gogoetatu gabean.

Eta zu, ene zeruko Ama ona, atchik inezazu kos agarbi, egon nadin beti Jainko nagusiaren har iote. Hamluabiz.

VI. ESTAZIONEAK

Aldarearen aintzinean egin behar den othoitza

O Jesus ona, kalbarioko bidean zurekin abiatu baino lehen, nahi dut egin ene fedezko akta sakramendu Sainduaren aintzinean.

Ene bihotz guziaz sinhesten dut, hor zaudela, tabernakle barnean, zu, enetzat hil zirena, zernahi sofritu ondoan.

Zure grazia lagun, estazioneak egitean, hiru gauza nahi ditut komprenitu : Jesusi eskerren bihurtzea zor dutala, ene bekatuen urrikia behar dutala bihotzean ezarri, eta ene estakuruen ezeztatzeari behar dutala ari.

Eta zu, ene zeruko Ama ona, enekin egon zaite estazionen denboran. Zerbeit indulientzia edo merechimendu idabazten badut, hoitaz balia ditela, ene etcheakoak, ene ongi-egileak, eta Purgatorioko arima gaichoak.

Estazionen artean, kantatzen edo erraiten da :

*Sancta Mater, istud agas,
Crucifixi fige plagas,
Cordi meo valide.*

Ama ona, zure semeak, kurutzean izan zauriak, saraitzut barna bihotzean.

Estazionea hastean :

Adoratzen eta benedikatzen zitugu, Jesus :	ŷ. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi :
Zeren zure kurutze sainduaz erosi duzun mundua.	℞. Quia per sanctam crucem tuam redemisti mundum.

Estazione ondarrean :

Urrikal zakizkigu, Jainko Jauna.	ŷ. Miserere nostri, Domine.
Urrikal zakizkigu.	℞. Miserere nostri.

ŷ. Fidelium animæ per
misericordiam Dei requie-
scant in pace.

R̄. Amen.

Hil direnen arimak ba-
kean pausa ditezela Jain-
koaren miserikordiaz.

Halabiz.

I. — Jesus Hiltzerat kondenatua.

Adoramus te...

Jesusek ez du huts bakar bat ere.

Zuzen kontra hiltzerat kondenatzen dute. Eta ichil
ichila dago.

O Jesus ona, nik ere nahi ditut onhartu deus erran gabe,
entzuten ditudan gaizkiak, ukaiten ditudan gaztiguak,
ez balimbaditut arras merezituak ere.

Gure Aita...

II. — Jesus kurutzeaz kargatua.

Jesus mundu guziaren nagusia da. Hitzik atheratu
gabe, sorbalden gainera hartzen du emaiten dioten kurutze
dorphea. Kurutzearekin du egin behar gure salbamendua.

O Jesus ona, haurra niz, bainan gaizki hartzen ditut
ene adinari doazkon kurutze ttipiak, bereziki lana eta
obedientzia. Ikusten dut orai zoin nizan hobendun. Zure
etsempluari jarraikiz, hemendik harat kausituko nuzu
obedient eta langile.

III. — Jesus kurutzearen pean eroria.

Agoniak lehertu du Jesus. Azotatzek eta elhorriz
koroatzek arras ezindu dute. Betbetan, erortzen da, bai-
nan berehala chutitzen, bere bideari jarraikitzeke.

O Salbatzaile ona, ene bekatuek, zure erorikoek baino
biziki min gehiago egin dautzute. Egidazu othoi, nere
bekatuetarik berehala chuti nadin eta sekulan ez nadin
lokar bekatu mortal batekin konzientzian.

IV. — Jesusek buruz buru egiten du bere Amarekin.

Jesusek betbetan ikusten du bere ama bidera jina. Andredena Mariak ikusten du bere semea, dena odoletan.

O ene Ama ona, zombat sofritu ahal duzun, zure semea planta hortan ikusiz. Ene bekatuek zaituzte sofriarazi. Lagunt nezazu bekatuaren zinez hastiatzen eta ene chede onen atchikitzen.

V. — Simon Zirenekoak laguntzen du kurutzearen eremaiten.

Ni ere jinen nitzauzkitzun zure laguntzera. Ohore handia egin diozu Simon Zirenekoari, haren laguntza onhartuz.

Bainan badakit, o ene Salbatzaile ona, zuhauri eginak bezala ikusten dituzula, beharduneri, jende cheheari eta dohakabeeri egiten ditugun zerbitzu guziak. Hortaz orhoituko niz eta ikusiko nuzu lagunaren alderat beti ezti, on, zerbitzu-egile.

VI. — Emazte saindu batek chukatzen dio begitartea.

Soldadoak pusaka derabilkate Beronika, bainan soldadoen gatik eta heien artetik, Jesusen alde-aldera heltzen da. Haren begitarte odolstatua chukatzen du.

O Jesus ona, ni ere nehoren beldurra gabe, zure gana jinen naiz. Jakinen dut zure bihotzaren kontsolatzen, nihaur ezin hobeki biziz.

VII. — Jesus bigarren aldian eroria.

Jesusek gogoan ditu urgulutsuak eta bihotz gogorrak. Haimbertze sofritzen du, nun begitartez lurrera bigarren aldikotz erortzen baita.

O Jesus ona, nik ere ainhitz aldi entzun dut, thematsu

eta bihotz gogor nizela. Ikusiz bigarren aldikotz erortzen zirela, hartzen dut chedea gerla egiteko ene themari, ene urguluari, ene estakuru guzieri.

VIII. — Jesusek kontsolatzen ditu Jerusalemeko emaztekiak.

Nigarrez jarraikitzen zaizkion emaztekieri, Jesusek erraiten diote : Ez nitaz nigar egin, bainan bai zuen buruez eta zuen hurrez.

O Salbatzaile ona, nigar egiten dut maizenik, edo kolera, edo urguluan kolpatu nutelakoan.

Entzuten zaitut, eni mintzo, Jerusalemeko, emaztekieri bezala : Egizak nigar hire bekatuez. Egidazu grazia zure obeditzeko ene bekatuak hastiatuz.

IX. — Jesus hirugarren aldian eroria.

Geroago eta pizuago du Jesusek bere kurutzeara ; bainan gure bekatuen karga, kurutzeara baino biziki dorpheago zaio.

O Jesus, ene bekatuez urriki handi dut. Hitzemaiten dautzut arthoski utziko dutala, maiz aiphatzen dautaten bekatua, bekatu nagusia, bertze bekatuen erroa.

X. — Jesus buluzten dute.

Borthizki burregoen kentzen dituzte Jesusen soinekoak Lotuak zituen zaurieri. Odoletan ezartzen dute berriz ere haren gorputza.

Burregoen bezen gaichtoa niz ni ere, bekatu beretan erortzen nizelarik. Haimbertzetaraino dute sofriarazten Jesus, gure bekatuek ! Bainan oraikoan hartzen dut chede zina, bazterrerat uzteko gaizkirateko okasioneak, bereziki lagun gaichtoak.

XI. — Jesus kurutzean itzatua.

Jesusek eskaintzen ditu bere eskuak eta bere oinak. Itze ikaragarri batzu sartzen daizkote burregoeak, haragi bizian.

O Jesus ona, ikaran nago zerbeit sofritu behar dutalarik. Nere ahuleziaz ahalgetua niz.

Orai nahi ditut onhartu zuk igorri sakrifizio guziak. Zure eskutik heldu zauzkit denak. Egun berean, amodioz zuretzat eginen dut penitentzia ttipi bat.

XII. — Jesus kurutzean hiltzen da.

Haimbertze maitatu gitu Jesusek nun, guretzat hil baita kurutzean. Jesusen odol salbagarriari esker, zerua orai idekia da borondate ona duten guziera.

O Jesus ona, zure sofrikarioez ideki dautazun zeru hortara, nahi dut heldu.

Begira nezazu heriotze supitutik eta herioak kausi nezala graziazko estatuan.

XIII. — Jesus kurutzetik jautsia eta bere Amaren besoetan emana.

Itzeak atheratzen dituzte. Jesus jausten dute kurutzetik. Andredena Mariak hartzen du belhaunen gainean bere seme hilaren gorphutza.

O ene Ama ona, ene bekatuek dute zure bihotza ezpataz zilatu. Orai konprenitzen dut zer pena handia dautzutan egin. Barka dezadazu haur bati barkatzen den bezala.

XIV. — Jesus ehortzia.

Josep Arimateakoak beretzat egina zuen harrian, hobia. Hobi hartan ezarri zuten Jesusen gorphutza.

Salbatzaile maitea, hobi hortarik atheratuko zira

lorioski phizturik Pazko egunean. Eta zu phiztu zirelakoan, ni ere hiletarik phiztuko. Zu bezala ni ere hilen niz eta hobian ehortziko nute. Bainan azken egunean hiletarik phiztuko nizela esperantcha dut. Agian, zure lorian parte hartzeko.

Bururatzean egiteko othoitza

Jesus maitea, orai artino ere badakit zoin ona izan ziren enetzat. Zure ganik ditut nizan guzia eta ditudan guziak. Bainan, estazioneak egitean komprenitu dut noradino heltzen den zure amodioa. Sofritu duzu eta hil zira, ni ifernutik salbatzeko.

Nahi dut maizago gogoan erabili zure pasionea, hobeki baliatu, merezitu dauzkidatzun graziez. Zure graziarekin, hemendik harat nahi dut agertu haur bat othoitzari eta zuri bihotzetik atchikia.

Andredena Maria, ene Ama ona, nehok baino hobeki ezagutzen dituzu ene arimako estakuruak. Zure semeari pena handia, egiten diote. Lagun nezazu estakuru horien ezagutzen, horien ezeztatzen. Jujamenduko egunean, nahi dut gai ezagutua izan, Jesusekin bethikotz dohatsu izaiteko zeruan. Halabiz.

BIGARREN ZATHIA

HAURREN MEZA (1)

I. MEZA SAINDUA ZER DEN

1^{ik} Meza saindua moldatua

Haur maitea, zure bihotz guziarekin irakur-zkitzu hemen emanak diren chehetasun guziak.

Ortzegun saindu arratsa zen : Jesus Jaunak, bere apostoluekin azken afaria egin ondoan, baitzakien biharramunean behar zela hil kurutzearen gainean, Jesus Jaunak berak ogi piska bat hartu zuen eskuetan, benedikatu, hautsi eta bere apostolueri eman, erranez :

HAR ZAZUE ETA JAN, HAU DA ENE GORPUTZA.

Apostoluek Jesusen Gorputza jan ondoan, Jesusek hartu zuen arno chorta bat bere edateko-untzirat, benedikatu eta bere apostolueri eman, erranez :

HAR ZAZUE ETA EDAN, HAU DA ENE ODOLA.

Eta apostoluek edan zuten Jesusen Odola.

Ortzegun saindu arratsean zuen beraz Jesus Jaunak moldatu Meza saindua.

(1) L. Leon, jaun apezak, Arrangoitzeko jaun erretorak, egin du meza eder hau.

2^{ik} Meza saindua obratua

Ortzegun saindu arratsean zuen Jesus Jaunak moldatu Meza saindua, erran nahi baita : Jesus Jaunak elgarretarik berechi bezala zituela bere Gorputza eta bere Odola ogiaren eta arnoaren itchuren azpian ; eta berechi hil gabe.

Bainan hori ez zitzakon aski gure Salbatzale maiteari : nahi ukan du oraino bere Gorputza eta bere Odola elgarretarik berechiak izan ziten egiazki, errealki. Gauza hori egin du biharamun arratsaldean, ortzirale sainduz, **Kurutzearen gainean errealki hil delarik.**

Kurutzearen gainean beraz Jesusen Gorputza odolez hustu da osoki, azken chortaraino ; Jesusen Gorputza eta Odola elgarretarik berechi dira errealki.

Meza saindua, ortzegun sainduz moldatua, ortzirale sainduz du obratu Jesus Jaunak.

3^{ik} Meza saindua geroztik bethi ari

Ortzegun sainduz moldatua, ortzirale sainduz obratua, Jesusen Meza saindua ez da gelditu edo bururatu, Jesus Jaunak kurutzearen gainean azken hatsa emaiterekin. Ez !

Bazko goizean hiletarik phiztu, gehiago ezin hil ; Salbatore egunean zerurat igan ; Jesus Jauna ortzegun sainduz geroztik **bethi bere Mezaren emaiten ari da.**

Zeruan Jesusek berak du emaiten Meza bere Aitaren aintzinean ; mundu huntan bere aphezen bidez aldare gainean.

Jesusen Meza saindu bakhar hori ez da geldituko munduaren azken eguneraino, mundu huntako azken gizonaren arima salbatu arte.

4^{ik} Hiruak bat

Ez uste ukan beraz, haur maitea, Jesus Jaunak ortzegun sainduz moldatu Meza, Jesus Jaunak ortzirale sainduz

obratu Meza eta aphezak aldare gainean emaiten duen Meza, hiru Meza direla. Trinitate Sainduko hiru presunak Jainko bakhar bat diren bezala, hiru gauza hoik ez dira Meza bakhar bat baizik : **Jesusen Meza.**

Meza sainduan aurkitzen zirelarik beraz, bihotzez eta othoitzez bat egiten balin baduzu Jesusekin aphezak bezala ; orduan zinez eta egiazki sinesten ahal duzu Jesusekin zirela ortzegun sainduko Afarian, Jesusekin ortzirale sainduz kurutzearen oinean, Jesusekin zeruan.

Hortarik ikusten duzu, egun batez bethikotz zerurat joaiteko biderik hoberena, bide bakharra dela Meza saindurat usu joaitea eta han osoki Jesusekin bat egitea, Jesusen Gorputza janez komunione khartsu batean.

Jesusen Meza sainduaren ondorioak guretzat

Haur maitea, badakizu orai Meza saindua zer gauza handi eta ederra den. Bi hitzez behar dautzut erran Meza saindua zer gauza ona den oraino **GURETZAT.**

Meza saindua zer gauza ona den guretzat komprenitzeko, buruan ontsa sar zazu egia hau : Jainko maiteak egina zituela eta beraz Jainko maitearena zirela, zu eta dituzun guziak.

Jainko maitea da osoki zure Nausia.

Errechki duzu beraz komprenitzen behar zirela, noizetik noizerat bederen, zure **Nausiaz orhoitu** ; noizetik noizerat, ahal bezain usu, behar dakozula **milesker erran**, eman dauzkizun guzientzat.

Bainan, frangotan, zure Nausiaz orhoitzeko orde, zure Nausiari milesker erraiteko orde, zer duzu egin? **Bekatu !**

Bekatu eginez, haur maitea, ukhatu duzu Jainkoaren nausitasun hori ; bekatu eginez, Jainkoari erran bezala dakozu ez duzula zure Nausitzat nahi.

Jainkoari behar dakozu beraz zure bekatuez **barkamendu galdatu.**

Azkenekotz, haur maitea, zure baitarik ahula zira, eta bekatuak ahuldu zitu oraino gehiago.

Nork azkartuko zitu? Nork dautzu emanen giristinoki bizitzeko eskas duzun indarra? Jainko maiteak.

Bai, bainan indar hori, laguntza hori, **grazia** hori **galdatu** behar dakozu Jainkoari.

.....
Lau eginbide handi badituzu beraz Jainko maitearen alderat :

Lehena : behar duzu Jainkoa **Nausitzat onhartu** edo **adoratu** ;

Bigarrena : behar dakozu Jainkoari **milesker erran** ;

Hirugarrena : behar dakozu Jainkoari zure bekatuez **barkamendu galdatu** ;

Laugarrena : behar dakozu Jainkoari **laguntza** edo **grazia galdatu**.

.....
Eta orai, haur maitea, kasu huni :

Zer zira zu, Jainko guziz handiaren aldean? **Deusik ez!**

Bakhar bakharririk balin bazaude Jainko guziz handiaren aintzinean ; doi-doia aiphatu lau eginbide handi hoik nahi bezain ontsa betherik ere, zure boza ez da sekula Jainkoaren beharriraino heltzen ahalko : Jainko maitea sobera handia delakotz eta zu sobera ttipia.

Jainkoaren eta zure artean balitz bederen norbeit, boza aski azkarra lukeena, zure adorazioneen, zure eskerren, zure barkamenduzko galdeen, zure othoitzen heltzeko Jainkoaren beharriraino !

Hortakotz norbeit hori beharko litake Jainkoa bezain handi eta denbora berean gu bezain ttipi! Hots, norbeit hori beharko litake bera Jainko eta gizon !

Zer zoriona, haur maitea, norbeit hori badugu : Jesus Jauna, Jainko gizon egina !

.....
Jesus ona eman da beraz Jainkoaren eta gure artean.

Mundu huntan umil eta pobre sortuz, umil eta pobre biziz, eta bereziki kurutzearen gainean umil eta pobre

hilez, Jainko bere Aitari gure izenean erran dako hura dela gure Nausia; gure izenean erran dako milesker; gure izenean galdatu dako barkamendu; gure izenean galdatu dako guretzat laguntza eta grazia.

Eta Jainko Aitak entzun du Jesus bere Seme maitearen boz azkarra.

Bainan Jesus ona, bere bizi guzian eta bereziki kurutzearen gainean, guretzat hola mintzatu ondoan bere Aitari, ichildu othe da bethikotz?

Badakizu oraikotz, haur maitea, Jesus ez dagola ichilik.

Bere Meza sailduaren emaiten ari deno (eta munduaren azken eguneraino ariko da), Jesus, bai zeruan bere Aitaren aintzinean, bai mundu huntan aldarearen gainean, Jesus ona bethi mintzo da guretzat bere Aitari, bethi othoitzean guretzat.

Jainko maitearen alderat dituzun lau eginbide handiak noiz nola dituzu beraz osoki betheko, haur maitea? Meza saildurat joanen ziren aldi guzietz.

Hortarik duzu hobekienik komprenitzen Meza saildua ez dela choilki **zerbeit**, bainan bai egiazki **Norbeit** : Meza saildua dela Jesus bera, Jainko maiteari guretzat ari adorazione eta esker bihurtzen, barkamendu eta grazia galdatzen.

II. MEZA SAILDUA

Haur maitea, elizarat jin zira Meza saildua hasi baino lehentchago; zure lekuan umilki belaukatu zira eta kurutzearen seinale eder bat eginik, agur khartsu bat egin dakozu aldarean dagon Jesus onari... Eta orai, apheza sankristiatik atheratzearekin, Jainkoari errozu zertarat jina ziren :

Ene Jainko Jauna, — Meza saildurat jina niz — zure adoratzeke, — zuri milesker erraiteke, — zuri ene bekatuez barkamendu galdatzeko, — galdatzeko ere bai zuri laguntza eta grazia.

Ene Jainko maitea, — ez zazula beha, othoi, — zoin ttipia nizen eta zoin ezdeusa ; — bainan beha zazu — zure Seme eta ene Aneia Jesus — zoin den handia.

Ez zazula beha — ene othoitza zonbat den ahula, — bainan beha zazu — zure eta ene Jesus maitearen othoitza — zoin den azkarra.

Ene othoitz ahula — ichurtzen dut eta husten, — Meza huntan Jesus onak — eginen dautzun othoitz khartsurat.

Apheza aldarearen oinean

Othoitz guziak bezala, aphezak Meza saindua hasten du kurutzarearen seinalea eginez. Egizu zuk ere :

Aitaren — eta Semearen — eta Izpiritu Sainduaren izenean — Halabiz.

Jainko Jauna, — aphezak bezala, — konfientzia osoa badut zu baitan. — Zu zira ene bozkarioa — eta ene zoriona ; — zu, ene indarra.

Nahi dut bethi — zure alde izan eta agertu — beldurrik gabe. — Handi zazu, — azkar zazu fedea ene bihotzean.

Zu baitan daukat ene esperantza, — zu baitzira ene Salbatzalea.

Gloria Patri — et Filio — et Spiritui Sancto. — Sicut erat in principio — et nunc — et semper — et in sæcula sæculorum. Amen.

Zure Izen saindua — da ene laguntza eta ene indarra : — zeru-lurrak bezala, zuk nuzu egina.

Kofesatzen nitzaio...

Aphezak orai barkamendu galdatzen dako Jainkoari, Kofesatzen nitzaio erranez ukurturik ; umilki barkamendu galda zozu zuk ere zure bekatuez :

Kofesatzen nitzaio — Jainko guziz boteretsuari, — Maria bethi Birjina dohatsuari, — jondoni Mikael Arkanjeluari, — jondoni Joanes Batistari, — jondoni Petri

eta Paulo apostoluer, — saindu guzier — eta zuri, nere Aita, — zeren egin baitut hanitz bekatu — gogoz, hitzez eta obraz, — nere faltaz, nere faltaz, — nere falta handiaz. — Hortakotz othoitz egiten diot — Maria bethi Birjina dohatsuari, — jondoni Mikael Arkanjeluari, — jondoni Joanes Batistari, — jondoni Petri eta Paulo apostoluer, — saindu guzier — eta zuri, nere Aita, — othoitz egin dezozuen neretzat — nere Jainko Jaunari.

Jainko guziz boteretsuari — urrikal gakizkola, — eta gure bekatuak barkaturik, — hel-araz gitzala bizitze bethierekorat. Halabiz.

Gure bekatuen barkamendua, — barkamendu osoa — eman dezagula Jainko guziz boteretsu — eta urrikal-mendutsuak. Halabiz.

Aldarerat igaitea

Aldarearen oinetik, apheza othoitzean igaiten da aldarerat eta musu emaiten dako aldareari... Ez othe da aldare horren gainerat jaustekoa sarri Jesus gure Jauna?... Beraz aldareari musu emanaz, aphezak Jesusi berari dako aintzinerat emaiten musu...

Ene Jesus maite maitea, — aphezarekin batean — emaiten dautzut musu nik ere.

Judas gaichtoak ere — musu eman zauntzun, — bainan hak zure saltzeko etsaieri. — Nik emaiten dautzut musu — santa Madalenak zure oineri eman zuen bezala — ene bekatu guziez zuri barkamendu galdatzeko.

Ene ezpainak — elhe tzar guzietarik — garbi nahi ditut atchiki, — zuri musu emaiteko bethi garbiki.

Introita

Aldareari musu emanik, apheza badoa aldarearen eskuin-neko alderat, bertze othoitz baten erraiteko. Othoitz hau deitzen da Introita...

Ene Jesus guziz ona, — zeruko Ogiarekin, — zure Gorputz Sainduarekin hazten gituzu, — eta zuhauren zainetako Odolarekin azkartzen.

Jainkoaren bizia — hola gaindika — emaiten daukun Jesus maiteari, — gure ohore, — laudorio, — bozkario — eta eskerrik handienak.

Gloria Patri — et Filio — et Spiritui Sancto. — Sicut erat in principio — et nunc — et semper — et in sæcula sæculorum. Amen.

Kyrie eleison eta Gloria in excelsis

Introita erran ondoan, apheza aldare erdirat heldu da,
Kyrie eleison eta Gloria in excelsis erraiteko :

Jainko Aita, urrikal zakizkigu (*hiruetan*).

Jainko Semea, urrikal zakizkigu (*hiruetan*).

Jainko Izpiritu Saindua, urrikal zakizkigu (*hiruetan*).

Ohore Jainkoari zeruetan — eta bihotz oneko guzier bake mundu huntan.

Laudatzen zitugu, — Jainko Aita, — zeruetako Erregea, — goosten zitugu, — milesker dautzugu erraiten.

Jesus Jauna, — Jainkoaren Semea, — Jainkoaren Bildotcha, — gure bekatuak zure gain hartzen dituzuna, — urrikal zakizkigu, — entzun zazu gure othoitza.

Izpiritu Saindua, — Jainko bakhar bat duzu egiten — Jainko Aitarekin eta Jainko Semearekin. Halabiz.

Meza-nausietan kantatzeko, Gloria in excelsis kausituko duzu p. 59.

Dominus vobiscum

Gloria in excelsis erran ondoan, aphezak berriz emaiten dako musu aldareari... Gero elizan direneri buruz itzulirik,

agur bezala egiten dakote ; gomitatzen bezala ditu gero-ta bildukiago harekin batean othoitz egiterat, erranez :

Dominus vobiscum

(Jauna izan bedi zuekin)

Eta elizan direnek ihardesten dakote :

Et cum spiritu tuo

(Bai, zurekin ere).

Deus ederragorik eta hunkigarriagorik DOMINUS VOBISCUM bi hitz hoik baino.

Meza sainduan aphezak ZORTZI ALDIZ erraiten ditu... Eta hola erakasten dauku, Jainkoa gurekin ukaita dela, gutarik bakotcharentzat, mundu huntako gauzarik baliosena eta beharrena.

Oremus

Apheza aldarearen eskuineko alderat joan da berriz ; eta han, bi besoak zabalduz, erraiten du : Oremus... Hitz hunek erran nahi du : Othoitz egin dezagun.

Othoitz egin dezagun : — O Jesus Jauna, — gu zure kurutzeaz orhoitzea gatik, — aldareko sakramendu miresgarria daukuzu eman ; — iguzu, othoi, — zure Gorputz Sainduaren eta Odol Sakratuaren — behar bezala ohoratzeke grazia.

Agian hola — gure arimarat bilduko ditugu bethi — sakramendu horren ondorio salbagarriak.

Zu beraren izenean, — oi Jesus, — galdatzen dautzugu hori. Halabiz.

Eliza sainduak, Jainkoari galdatzen daizkon grazia guziak bethi Jesusen izenean daizko galdatzen... zuk ere, haur maitea, hola behar duzu egin, Jainkoak zure othoitz entzutekotz.

Epistola

Hitz hunek erran nahi du : letra... Eliza sailduaren lehen urtheetan, Apostoluak ez baitzitazken alderat beren giristino guziekin izan, noizetik noizerat Apostoluek letrak igortzen zaizkoten beren giristinoeri, haurien eskolatzeko... Letra hoik gero elizetan irakurtuak ziren... Orain ere aphezak Meza sailduan irakurtzen du letra hoietarik pharte bat.

Korinthiar giristinoeri Jondoni Paulo Apostoluak igorri letratik :

Haurride maiteak, — Jesusen ganik jakina dut eta errana dautzuet : — Ortzegun saildu arratsean — Jesus Jaunak hartu zuela ogi piska bat — eta erran : « Harzazue eta jan, — hau da ene Gorputza, — zuentzat emana izanen dena ; — egizue hau ene orhoitzapenetan. » — Halaber hartu zuen edateko-untzia — eta erran : « Harzazue eta edan, — hau da ene Odola, — zuentzat ichuria izanen dena ; — egizue hau ene orhoitzapenetan. »

Deo gratias.

Eskerrak Jainkoari.

Ebanjelioa

Eskuineko aldetik apheza joan da aldarearen ezkerreko alderat, Ebanjelioaren irakurtzeko... Ebanjelioa da Jesus Jaunaren bizia kondatzen duen liburua... Chutik da irakurtzen Ebanjelioa, Jesusi erraiteko bezala prest girela manatzen daukunaren egiterat...

Dominus vobiscum. — Et cum spiritu tuo.

Sequentia sancti Evangelii. — Gloria tibi, Domine.

Egun hartan — Jesusek erran zuen jendeeri : — Ene haragia egiazki janari bat da — eta ene odola egiazki edari bat. — Nork ere jaten baitu ene haragia — eta



edaten ene odola, — hura ni baitan dago — eta ni haren baitan. — Ni ene Aitarekin eta ene Aitarentzat — bizi nizen bezala ; — nork ere jaten bainu, — hura enekin bizi da eta enetzat. — Ni niz zerutik jautsi ogia ; — nork ere jaten baitu ogi huntarik, — hura biziko da eternitate guzian.

Laus tibi, Christe.
Ohore zuri, Jesu-Kristo.

Credo...

Ebanjelioa irakurtu ondoan, aldare erdirat heldu da apheza, Credo edo Sinesten-dut erraiteko...

Sinhesten dut — Jainko Aita bothere guzia duena baitan, — zeruaren eta lurraren Kreatzalean ; — eta Jesu-Kristo, haren Seme bakhar — gure Jauna baitan, — zoin kontzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez, — sortu zen Maria Birjina ganik, — pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, — Kurutzefikatu zuten, — hil zen eta ehortzi zuten, — jautsi zen ifernuetarat ; — hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik, — igan zen zeruetarat, — han jarria dago Jainko Aita bothere guzia duenaren eskuinean ; — handik ethorriko da bizien eta hilen jujatzerat.

Sinhesten dut Izpiritu Saindua baitan, — Eliza katoliko sainduan, — sainduen partaliertasunean, — bekatuen barkamenduan, — haragiaren **phiztean**, — bethi iraunen duen bizitzean. Halabiz.

(Meza-nausietan kantatzeko, Credo kausituko duzu, p. 60.

OFERTORIOA

Hitz horrek erran nahi du : ofrenda edo eskaintza... Aphezak Jainkoari ofreitzen daizko edo eskaintzen ogi piska bat eta arno chorta bat ; ogi hori Jesusen Gorputz eta arno hori Jesusen Odol bilhakatzeakoak baitira sarri.

Ogiaren eskaintzea

Patena deitu urhezko edo bederen zilarrezko azpil (plata) ttipi baten gainean, aphezak Jainkoari eskaintzen dako ogi piska bat, sarri Jesusen Gorputzerat kambiatua izan den ogia.

Onets zazu, — Jainko Aita, — Jainko botheretsu eta bethikoa, — onets zazu eskaintza garbi hau ; — zure aldean deusik ez niz, — halarik ere eskaintzen dautzut ostia hau, — ene bekatu eta lazakerientzat ; — eskaintzen dautzut halaber Meza huntan direnentzat, — bizi eta hilak diren giristino guzientzat ; — hauieri eta eni balia dakigun zerurat heltzeko.

Arnoa kalitzan...

Jainkoari eskaini dakon ogia pausatu du aphezak Korporala deitzen den oihal churi baten gainean... Eta orai Kalitza edo EDATEKO-UNTZIA eskuetan harturik, aldarearen eskuineko alderat badoa apheza... Beretterrak emaiten daizko bi fiola, bat arnoarekin, bertzea urarekin... Arno chorta bat ezartzen du aphezak kalitzaren barnean, Jesusen Odo-lerat sarri kambiatua izan den arnoa... Arnoari emaiten dako gero ur ttintta bat...

Ene Jainkoa, — ur ttintta hori arnoari emana den bezala, — arnoarekin osoki bat egiterainokoan, — egizu nik ere osoki bat egin dezadan — zure Seme Jesusekin.

Ene penak, — ene nigarrak, — ene sofrikarioak, — ene bizia, — oro husten ditut Jesusen bihotzerat ; — hil ala bizi, Jesusekin egoiteko bethi.

Arnoaren eskaintzea

Apheza jina da berriz aldare erdirat, eta han kalitza altchaturik, Jainkoari eskaintzen dako kalitzan den arnoa.

Zuri buruz altchatzen dugu, Jauna, — salbatu gituen kalitza ; — agian, — usain on bat bezala, — helduko da

zutaraino, — gure salbamendukotz — eta mundu guziaren salbamendukotz.

Aphezak pausatu du kalitza, ogiaren ondoan, korporalaren gainean... Eta orai, aldarearen gainerat ukurturik, apheza eskaintzen da bera Jainkoari.

Aphezarekin batean, — ene burua eskaintzen dautzut, Jauna, — umilki eta urriki bizi batekin; — begi onez beha zozu ene eskaintza huni, — Jesusen eskaintzari amultsuki behatu dakozun bezala.

Erhien garbitzea

Aldarearen eskuineko alderat badoa berriz apheza, bere erhien garbitzeko, bere erhiekin hunki beharko duelakotz sarri Jesusen Gorputza.

Aphezak bere erhiak garbitzen dituen bezala, — nik ere ene bihotza nahi dut garbitu, — mahain saindurat garbi garbia — hurbiltzeko sarri, Jauna. — Ene arima ez zazula galtzerat utz gaichtoekin, — gaichtoen bihotza gaichtakeriaz bethea baita. — Gaizkitik begira nezazu, — bide onean atchik nezazu bethi. Halabiz.

Eta orai, aldare erdian ukurturik, othoitz hau egiten du aphezak :

Trinitate Saindua, — onets zazu sakrifizio hau. — Jesusen izenean dautzugu egiten, — guretzat hil, phiztu eta zerurat igan den — Jesusen izenean. — Sakrifizio hau dautzugu ere egiten — Ama Birjinaren eta saindu guzien ohoretan, — guretzat dezaten othoitz egin zerutik. Halabiz.

Orate, fratres...

Hitz hoiek erran nahi dute : Othoitz egizue, haurrideak... Aldareari musu emanik, apheza itzultzen da jendeeri buruz hitz hoien erraiteko... Aphezak alabainan jendeeri galdatzen dakote are khartsukiago othoitz egin dezaten harentzat,

Mezako memento handia hurbiltzen ari delakotz. Errazuzuk ere :

Onhar zazu, Jauna, — aphezak zure Izenaren ohoretan, — gure onetan, — eta Eliza Saindu guziaren onetan — beretzat eta guretzat egiten dautzun sakrifizio hau.

Aphezak, bi besoak zabalduak, bertze othoitz bat egiten du orai :

Jainko Jauna, — othoizten zitugu, — bakea emozu zure Elizari, — gero-ta azkarkiago heda dadin — munduko bazter guzietarat, — hortakotz hil zirenaz geroz — kurutzearen gainean. — Grazia hori galdatzen dautzugu — zu beraren izenean. Halabiz.

Prefazioa

Aldare erdian, bi besoak zabalduak, aphezak erraiten du :
Per omnia sæcula sæculorum. — Amen.

Dominus vobiscum. — Et cum spiritu tuo.

Sursum corda. — Habemus ad Dominum.

Gratias agamus Domino Deo nostro. — Dignum et justum est.

Bai, egiazki zuzen da, — eta zor dautzugu, — guk zuri eskerren bihurtzea, — Jainko guziz handia, — Jainko guziz botheretsua, — bethiko Jainkoa. — Milesker dautzugu erraiten — Jesu-Kristo zure Semearekin. — Zor zaitzun bezala — zure adoratzeko eta laudatzeko, — aingeruek berek badute Jesusen beharra. — Zoin ziren handi eta saindu erraiteko, — utz gitzazu zeruko aingeru guziekin kantatzerat.

Sanctus...

Saindu, — Saindu, — Saindu da Jainkoa ! — Ohore Jainkoari zeru gorenean !

Ongi-ethorri — Jainkoaren izenean heldu den Jesus Jaunari ! — Ohore zeru gorenean.

OTHOITZ HANDIA

Beretterrak chilintcha jo du, jendeeri erraiteko belaunka behar direla eman... Oraitik aintzina, Komunione ondo arte, apheza tokiaren gainean, aldare erdian ari da othoitzean.

Othoitz Eliza sailduarentzat

Jainko Aita guziz ona, — umilki dautzugu galdatzen, — Jesus zure Seme eta gure Jaunaren izenean : — onhar zazu, othoi, eskaintza garbi hau ; — eskaintza hau egiten dautzugu — zure Eliza katoliko sailduarentzat, — gure Aita-Sailduarentzat, — gure Aphezpikuarentzat, — gure aphezentzat — eta egiazko giristino guzientzat.

Bizi direnentzat othoitz...

Aphezak othoitz egiten du orai Meza hau galdatu dako-tenentzat, bai eta Meza huntan direnentzat.

Orhoit zite, Jauna, zure zerbitzari onez : — ene ait'amez, — ene ahaidez, — ene adiskidez, — ene ongi-egilez, — Meza huntan diren giristinoez. — Ezagutzen duzu hoiien fedea eta kharra. — Emozute guziri — Meza huntako merezimenduez — eta ondorio salbagarriez baliatzeko grazia.

Othoitz zeruko saildueri

Ama Birjinarekin, — apostolu sailduekin — eta zeruko sailduekin — bat dugula egiten, — heien merezimendu eta othoitzeri bermatuz, — zure laguntza botheretsua galdatzen dautzugu — Jesu-Kristoren izenean.

Sagara

Aphezak bere bi eskuak luze luzea hedatzen ditu ogiaren eta arnoaren gainerat... Memento handia hurbildua da...

Beretterrak berriz jotzen du chilintcha, oraino chutik edo jarririk daudenen belaunka-arazteko : Jesus heldu da.

Beraz, Jauna, — aphezaren eta gu guzien eskaintza huni — amultsuki beha zozu, othoi ; — emaguzu bihotzeko bakea ; — ifernutik begira gitzazu, — eta zerurat har gitzazu, — Jesu-Kristoren izenean. Halabiz.

Eskaintza hau, — zuhauk, Jauna, benedika zazu, — zuhauk garbi zazu, — zuhauk ont zazu ; — zure Seme guziz maitearen — Gorputza eta Odola bilhaka dadin. — Jesus beraren izenean — dautzugu hau galdatzen. Halabiz.

Jesusen Gorputza

Hemen ez da orai apheza ari aldarean : Jesus bera da egiazki ari aphezaren eskuz eta aphezaren ahoz... Azken afarian bezala, hartzen du ogia eskuetan, benedikatzen du eta erraiten :

HAU DA ENE GORPUTZA

Hitz hauk erran orduko, ez da gehiago ogirik aphezaren eskuetan, bainan egiazki eta errealki JESUSEN GORPUTZA... Orduan, adoraturik berak belaunka, aphezak altchatzen du Ostia Saindua bere buruaz gorago, guziek ikusteko gisan... Beha zozu, zuk ere, Ostia Sainduari eta errozu umilki eta fede khartsuenarekin :

Ene Jauna eta ene Jainkoa !

Jesusen Odola

Berriz ere aphezaren eskuz, Jesusek hartzen du kalitza : azken afarian bezala, kalitzaren barnean den arnoa benedikatzen du eta erraiten :

HAU DA ENE ODOLA

Hitz hauk erran orduko, ez da gehiago arnorik kalitzaren barnean, bainan egiazki eta errealki JESUSEN ODOLA

Orduan odoraturik berak belaunka, aphezak altchatzen du kamara bere buruaz gorago, guziek ikusteko gisan... Beha zozu, zuk ere, kalitzuri eta errazu umilki eta fede khartsuenarekin :

Ene Jauna eta ene Jainkoa !

Jesus aldare gainean

Jesus hor dugu orai, egiazki eta errealki, aldare gainean : hila bezala, Gorputza alde bat, Odola bertze alde bat... Bere Aitari eskaintzen daizko guretzat bere sofrikarioak, bere zauriak, bere bizia, kurutzearen gainean egin zuen bezala.

Jainko guziz handia, — Jesusek berak erran bezala — eskaintzen dautzugu orai — zuhauk egin daukuzun dohainik ederren eta sainduena : — eskaintzen dautzugu Jesus bera, — egiazko bizia eta salbamendua — emaiten daukun janaria eta edaria.

Lehenago, patriarka sainduen emaitzak — onhartu zinituen bezala, — begi onez beha zozu orai gure eskaintza huni.

Zure Semearen Gorputza eta Odola — sarri hartuko baititugu, — bethe gitzazu zure benedizioez eta graziez ; — Jesu-Kristoren izenean dautzugu galdatzen. Halabiz.

Hilen arimentzat othoitz

Jesus hil ondoan, haren arima saindua jautsi zen Limboetarat, han ziren arimen kontsolatzeko... Meza sainduan ere, bereziki memento huntan, Jesusen kontsolamenduak jausten dira Purgatorioetako arimetarat.

Jainko guziz amultsua, — orhoit zite Purgatorioetako arimez ; — emozute, othoi, — zeruko kontsolamendua, argia eta bakea, — Jesu-Kristoren izenean. Halabiz.

Guretzat othoitz

Bekatore gira gu, Jauna, — bainan zu osoki ona zira ; — emaguzu beraz guri ere, — apostolueri eta martirreri bezala, — zerurat heltzeko grazia, — Jesus zure Semearen izenean. Halabiz.

Jesus beraren bidez, — Jesusekin eta Jesus baitan, — ohore eta loria zuri, — Jainko Aita guziz botheretsua, — halaber Izpiritu Sainduari. Halabiz.

Gure Aita...

Jesus beraren bihotzetik eta ahotik atheraia da othoitz hau, Jesusek berak erakatsia apostolueri : ederragorik ez dezokegu beraz egin Jainkoari... Aphezak orai erraitendu ; aphezarekin batean, errazu zuk ere emeki, konfientzia eta khar handi batekin :

Gure Aita, zeruetan zarena, — erabil bedi sainduki zure izena ; — ethor bedi zure erresuma ; — egin bedi zure nahia, — zeruan bezala lurrean ere. — Iguzu egunean eguneko ogia ; — barka dietzaguzu gure zorrak, — guk gure ganat zordun direneri — barkatzen diozkat egun bezala ; — ez gaitzazula utz tentamendutan erortzerat ; — bainan begira gaitzazu gaitzetik. Halabiz.

Ostia Sainduaren puskatzea

Gure Aita erran ondoan, aphezak othoitz hau egiten du :

Bai, begira gitzazu, Jauna, gaitz guzietarik ; — eta Jainkoaren Ama bethi Birjina denak, — apostolu eta saindu guziek — guretzat dutela egiten othoitz, — emaguzu bakea ; — zure laguntzak azkarturik, — bekatutik urrunt giten — eta nahasdura guzietarik garbi egon, — Jesu-Kristoren izenean. Halabiz.

Aphezak orai Ostia Saindua hiru pusketan hausten du, eta puska hoietarik ttipiena emaiten du kalitzan den Odol Sakraturat... Jesus Bazko goizean hiletarik phiztuzen : aphezak orai Ostia Saindu puska hori Odol Sakratuan emaiten duelarik, Jesus phizten bezala da berriz ; Jesusen Gorputza eta Odola elgarretaratzen direnaz geroz.

Agnus Dei

Jainkoaren Bildotch, — gure bekatuak zure gain hartzen dituzuna, — urrikal zakizkigu (*bietan*).

Jainkoaren Bildotch, — gure bekatuak zure gain hartzen dituzuna, — emaguzu bakea.

Komunione aintzineko othoitzak

Aldare gainerat ukurturik, aphezak othoitz hauk erraiten ditu :

Jauna, zure apostolueri erran duzu : — Bakea emaiten dautzuet, — ene bakea dautzuet emaiten ; — ez zazula ene bekatueri beha, — bainan zure Elizaren fedeari ; — emozu beraz zure bakea. Halabiz.

Jesus gure Jauna, — kurutzearen gainean hilez — munduari bizia eman duzuna, — hemen diren zure Gorputz eta Odolaz, — garbi nezazu ene huts eta gaitz guzietarik ; — egizu zure manamendueri jarraik nadin bethi, — eta zure ganik berech ez nadin sekula. Halabiz.

Jauna, deusik ez niz, — eta halarik ere nahi zitut hartu. — Jan nahi dutan zure Gorputzak — lagunduko nu agian — ene arimako eta gorputzeko behar-ordu guzietan, — bai eta nu salbatuko agian. Halabiz.

Komunione aintzineko bertze othoitz batzu kausituko dituzu p. 105.

Aphezaren Komunionea

Beretterrak chilintcha jotzen du, komunioneko mementoa dela erraiteko... Aphezak ezkerreko eskuan hartzen du Jesusen Gorputza, eta eskuinaz bere bulharra jotzen duela, hiru aldiz erraiten du :

Jauna, — ez niz on zure jateko, — bainan errazu hitz bakhar bat — eta ene arima sendo izanen da.

Aphezak jaten du Jesusen Gorputza... Eta bildu bildua egon ondoan aphur bat, edaten du Jesusen Odola... Zuk ere, haurra, komunione sailduaren egiteko gogoia balin baduzu, bildu bildua behar duzu egon Jesusen beha... Orhoit zite Jesusek nahi duela komunioa dezazun usu... Egizu bederen bethi gutiziazko komunionea, erranez :

Ene Jesus ona, — aphezak bezala nahiko zinduzket — hartu nik ere ene bihotzerat ; — aphezarekin batean dautzut erraiten : — Zure Gorputzak eta zure Odolak — begira dezatela ene arima — bethi iraunen duen bizikotzat. Halabiz.

Komunionen ondoan

Aphezak jan du Jesusen Gorputza eta edan Jesusen Odola... Gero, giristino zonbeit jin balin badira mahain saildurat, aphezak eman dakote komuniatzerat... Handik landa, aphezak garbitzen du kalitza arno chorta batekin eta arno hori edaten du, erranez :

Bihotz garbi batean ezarri dugu agian — ahoarekin hartu dugun Jesus ; — eta egun guri eman den Jesus bera — emana izanen zauku agian bethikotz zeruan.

Orai badoa apheza aldarearen eskuineko alderat ; bere erhiak kalitzaren barnerat chahutzen ditu arno eta ur chorta batekin... Arno eta ur hori edaten du aldare erdian, erranez :

Hartu ditudan zure Gorputz eta Odola, Jauna, — daudela ni baitan ; — ene bihotzean ez ahal da geldituko gehiago — ez bekaturik, ez bekatuaren kotsurik. Halabiz.

Eskerren bihurtzea

Patena eta kalitza oihal batekin estalirik, apheza joan da aldarearen eskuineko alderat; eta han Jainko maiteari milesker erraiten dako, eman duen Mezaz eta egin duen komunioneaz.

Jesusen Gorputza janen — eta Jesusen Odola edanen duzuen aldi guzietan, — orhoituko zirezte Jesusen heriotzeaz. — Jesusen Gorputza bekatuarekin jaten — eta Jesusen Odola bekatuarekin edaten duenak, — bere zorigaitza du jaten eta edaten.

Aldare erdirat jinik eta aldareari musu emanik, aphezak, jendeeri buruz itzuli ondoan, erraiten du : Dominus vobiscum... Eskuineko alderat badoa gero, erraiteko : Oremus.

Othoitz egin dezagun : — Egizu, Jauna, — egun zure Gorputza eta Odola — egiazki hartu ditugun bezala, — zutaz zeruan goza giten eternitate guzian ; — zu beraren izenean dautzugu grazia hori galdatzen. Halabiz.

Aphezaren benediziona

Liburua hetsirik, apheza aldare erdian da berriz; aldareari musu emaiten du eta jendeeri buruz itzulirik erraiten:

Dominus vobiscum. — Et cum spiritu tuo.
Ite, missa est. — Deo gratias.

Giristinoek Deo gratias ihardetsi ondoan, aphezak, aldare gainerat ukurturik, othoitz khartsu batean Jainko maiteari berriz eta berriz galdatzen dako, eman duen Meza saildua onets dezan giristino guzientan... Gero, jendeeri buruz itzulirik benedikatzeko dituz, erranez :

Benedikā zitzatela — bothere guzia duen Jainko — Aita, Seme eta Izpiritu Sainduak. Halabiz.

Aphezak, benediziona hori emaitarekin, haur maitea, belaunkaturik umilki egizu kurutzaren seinalea.

Azken Ebanjelioa

Aldarearen ezkerreko alderat joan da apheza, eta, jende guziak chutik daudela, erraiten du azken Ebanjelioa.

Bethidanik bazen Berboa, Jainkoaren Semea ; — eta Berboa Jainko da. — Difenak oro hak eginak dira. — Mundu huntarat jin da, — berak egina duen mundu huntarat, — eta mundu hunek ez dako behatu. — Bere eremuetarat edo etchalderat jin da — eta bere etchekoek ez dakote ongi-ethorri egin. — Bainan ongi-ethorri egin dakoteneri, — hura baitan sinesten duteneri — Jainkoaren Semeak eman dakote — Jainkoaren haur bilhakatzekeo grazia. — Eta Jainkoaren Semea gizon egin da, — eta gure artean egon da, — eta ikusi dugu bere distirarekin — graziaz eta egiaz bethea.

Deo gratias : Eskerrak Jainkoari.

Meza saindua emana da, haur maitea. Bainan ez othoi tarrapataka athera elizatik, bertze zonbeit bezala. Othoitz labur, bainan khartsu batean errozu Jesus onari zer atsegina hartu duzun Meza saindua ontsa segiturik... Edo ez bazira ontsa egon, galda zozu barkamendu.

III. MEZA SAINDUA KANTIKETAN

Ez galdegin : « Zer kantatuko dugu meza-denboran? » Errazu : « gure meza kantatuko dugu... »

- I. Hastapeneko othoitzak (1-6).
- II. Ofertorioa edo eskaintza (7-8).
- III. Othoitz handia (9-12).
- IV. *Pater* eta komunioea (13-15).
- V. Azken othoitzak (16-18).

I. Meza hasterakoan

Humilki zaitut adoratzan,
Ahuspez zure oinetan :
Jesus, zuk nauzu fagoratzen,
Hasiko den meza huntan.

Apheza orai aldarean
Igan da zure ordari :
Nahi gintezke denak eman
Bihotzetik othoitzari.

Jesusen Ama indartsua,
Lagun gaitzazu zerutik,
Hil ez dadien gure sua
Pentsu alferren artetik.

2. Confiteor

Barkha, Jauna, bai dolu dugu
Zu hanbat ofentsaturik :

Othoi urrikal zakizkigu
Aldare saindu hortarik.

Dohatsuak, zathozte egun
Gure laidoen lekhuko :
Zeruetan barkha dazkigun,
Jar zaitezte ararteko.

3. Kyrie (*seigarren tonukoa*)

Zeruko Aita amultsua, } *berriz.*
onets-azu gure othoitz ahula }
Jainko Semea, Jesus Jauna, } *berriz.*
altcha zure boza gure aldera }
Zuk aldiz, Izpiritu ona, } *berriz.*
bero zazu gure bihotza }

Denek : Trinitate Sainduko hiru Jaunak
gure hutsen gatik urrikal bekizkigu.

3 (*bis*). Kyrie (*hilen mezakoa*)

Batek : Ororen Aita ona,
orhoit zaite gure hilez.

Denek : *Bainan, othoi, ez samur*
heiek egin bekhatuez.

Batek : Jesus gure anaia,
guzien Salbatzailea,

Denek : *Suan dauden arimek*
han iraun behar dutea?

Batek : Izpiritu Saindua,
etzaitzula utz erretzen :

Denek : *Bil-aitzu amultsuki*
zerurat lehen-bai-lehen.

Batek : Ba, Jauna, guzieren emozute

Denek : *Bethiereko bakhea.*

4. **Gloria in excelsis Deo**

Gau-erditan aingeruek
Betlemen zuten kantatzen,
Eta aldeko mendiek
Baltsan zuten inhardesten :
Gloria in excelsis Deo.

Laudorio dugun kanta
Zeruko Jainko Aitari,
Haren Seme Jesusi ta
Izpiritu Sainduari...
Gloria...

5. **Epichtola**

*Zatho Izpiritua,
Irakasle saindua,
Emaguzu argia,
Dugun ikhas egia.*

Liburu sainduetan
Zu zare mintzatzen :
Hetako erranetan
Girade bermatzen.

Fedea guk ez dugu
Nehoiz ukatuko :
Zin egiten dautzugu
Haren beiratzeko.

6. **Ebanjelioa eta Credo**

Batek : Itzul hadi, itzul, bekatorea,
Jainko Jaunak deitzen hau arraiki.
Chuti hadi, entzun haren galdea :
Eta emok bihotza deblauki.

Denek : *Jauna, chutik, zeinatzan naiz kopetan :*
Ez dut nahi ukhan hebaberik.
Girichtino bethi eta orotan
Nahi bainaiz agertu osorik.

Batek : *Ez othe haiz ene alde jarriko*
Hire urhats eta erranetan?
Ez othe nauk sekulan maithatuko
Ene gatik pairatuz artetan?

Denek : *Zeinatzan naiz segurki ezpainetan :*
Bethi zutaz nahi naiz mintzatu;
Zeinatzan naiz bihotzaren gainean :
Hor legea nahi dut finkatu.

7. Ofertorioa eta Lavabo

(Airea : *Oi mirakulu guziz*)

Aphezak eskaintzen du ostia churia :
Jainko Jaunak har beza haren hitz garbia.
Guk aldiz behar dugu eskaini bizia,
Gure baithan nasaiki sar dadin grazia !

Ur chorta nahasi da kalitza sainduan ;
Arno bilhakatu da erori ondoan :
Gure sakrifizio ttipien itchuran
Jesusena phizten da, nahi dugunean.

Aphezak hortchet ditu eskuak garbitzen,
Berdin gure makhurrak antola ditezen :
Jauna, lagun gaitzazu arimen churitzen,
Garbi behar gintezke aingeruak bezen.

8. Orate, fratres

(Airea : *Oi Betleem*)

Batek :

Guri buruz
Itzuli da handik apheza,

Guri buruz,
Othoitz kartsuak galdetuz :
Nahi luke gure laguntza,
Azkartzeko bere othoitzza
Guri buruz...

Denek :

Zurekila
Guziek bat dugu egiten,
Zurekila,
Jainkoak adi gaitzala :
Elizari jun-junta gauden
Haurrak oro zerura gaiten
Zurekila.

9. Prefazioa eta Sanctus

Dezagun kanta gogotik ;
Gaiten guziak bozkaria.
Zure laudatzea gatik
Kantuz dugu zeru guzia ;
Bai bihotzaren erditik
Dezagun kanta gogotik.

Dezagun kanta gogotik
Aingeru onak laguntzaile,
Bainan ororen gainetik
Jesus hartuz gure sustaile :
Bai bihotzaren erditik
Dezagun kanta gogotik

Dezagun kanta gogotik
Jesus heldu da gure gana :
Ogi-itchuren barnetik
Jainko Jaunaren dohaina,
Bai bihotzaren erditik
Dezagun kanta gogotik.

10. Bizien orthoitzapena (kantatu gabe)

1. GURE Aita Sainduaz,
Gure Jaun Aphezpikuaz,
Gure erretor eta bertze aphezez,
Erlisionearen hedatzaile guziez, } *Orhoit zaitte Jauna.*
2. GURE etheko eta adichkidentzat,
Gure altchatzaile eta ongi-egilentzat,
Heien osagarri eta salbamenduarentzat,
Zure zerbitzari leialentzat,
Fedegabe eta bekhatorosentzat,
Hersturan eta tentazionetan direnentzat,
Egun zure aitzinerat agertuko direnentzat,
Gure parropiarentzat eta gure herriarentzat, } *Othoi,
entzun
gaitzazu.*
3. Zeruko Elizarekin batean, *benedikatzen zaitugu, Jauna.*
Andre-dena-Mariaren izenean,
San Josepe onaren izenean, } *Othoizten
zaitugu,
Jauna.*
Zure apostolu eta martiren izenean,
Zure aphezpiku eta Doktorren izenean,
Gure patroin eta saindu guzien izenean,
4. Zure Jainko Semearen izenean, *bethe gaitzazu zure fagorez.*
Haren sortzeko abeltegi eta hiltzeko kurut-
[zearen izenean,] } *iguzu
egiazko
zoriona.*
Haren Odol eta oinhaze sainduen izenean,
Hanbat maitatu gaituen haren Bihotz sakratu-
[jaren izenean,]
Oraiko sakrifizio eta sakramendu hunen
[izenean,]
O Jesus ezitia, *zatho lehen-bai-lehen...*

SAGARAN { Huna Bildotch ezitia,
(kantatuz) { Egiazko ogia ;
Zerutik da jautsia ;
Dugun adora.

11. Sagara ondoan

*Sinesten dut, sakramendu sainduan,
Jesus ona, zu zarela ostian.
Sinesten dut, sinesten dut...*

Jesus Jauna, oi ene Nausia
Amodiak zaitu hola ezeztatu.
Ni ere ordainez zurea naiz guzia :
Nahi zaitut bethi ere maitatu.

Sinesten dut...

Betlemeko haurño hura bera da,
Eta gurutzean itzatu gizona :
Oi Jesus, hor zare, bekatorosen malda,
Eta denen janharitzat emana.

Sinesten dut...

12. Hilen orhoitzapena (kantatu gabe)

Meza huntan aphezak gomendatu hilez, Gure ahaide eta ezagun hilez, Purgatorioko arima guziez, Purgatorioan gehienik egon diren arimez, Hor denek ahantzi arimez, Egun Purgatorioan sartu arimez,	} Orhoit zaite, Jauna.
---	---------------------------------

Zure oinhaze eta heriotzearen izenean, Zure meza huntako sakrifizioaren izenean, Saindu guzien pairamenduen izenean, Gure sakrifizio ttipien izenean, Jauna, emozute bethiereko bakea, <i>Eta ezin hilezko argia ikhus dezatela.</i>	} Jesus, urrikal zakizkiote.
---	---------------------------------------

13. Pater noster

Herri batzuetan « Gure Aita » kantatzen dute aire berezi batekin. Hura har ditake. Huna hitz batzu mezako Pateraren airearekin ongi doatzinak :

Gure Aita, zeruko Jauna,
Gorets dadila zure izena ;
Ehor zure erresuma ;
Egin zure nahia,
Zeruan eta lurtean ere.
Emaguzu egungo ere.

Behar den ogia.
Othoi guri barkha zor daitzugunak ;
Guk bertzeri beren zorrak
Barkhatzen tugu denak.
Eta zain gaitzazu bekhatu-bidetik ;
Bainan begira gaitzetik.

14. Agnus Dei eta komunionea

Huna Jainkoaren bildotcha nun dugun,
Zeruko bidean hazkurri ta lagun :
Nor ere ez baita garbi ez fededun,
Huntarik jan gabe egon bedi urrun.

*Adora dezazun menderen mendetan
Jesus Jainko Jauna Sakramendu huntan.*

Jesusek nahi du gohazkon guziak,
Arimak chahurik, churitan jauntziak ;
Ez bagare haren haragiz haziak,
Ez dezake iraun gu baithan graziak.

Jesusek gu baithan delarik egoiten,
O zenbat grazia deraukun emaiten !
Gu ere lorios hil-eta pitz gaiten,
Bera da hazitzat gutarat eraiten.

Adoratzen zaitut, O Jesus maitea
Aldaretik zaude orai niri beha.
Ezagutzen nauzu, ni bekhatorea.
Urrikal zakizkit, o Salbatzailea.

15. Komunione ondoa

(Airea : *Adoro te devote*)

Huna non zaitudan, Jesus eztia,
Ene bihotzean orai jautsia :
Gizon eta Jainko, dohain handia,
Adoratzen zaitut, zaren guzia.

Salba nezala zure Gorphutzak :
Uzten derauzkitzut gogo-bihotzak :
Zuk bero-zkidatzu, hain dire hotzak
Garbi nitan dauzken bekhatu-hatzak.

Ordu hautan, Jesus, bat naiz zurekin :
Haur herbail batentzat oi zer atsegin !
Hola bethiere nindauke berdin,
Har banindezazu aingeruekin.

Anartean, Jauna, zure grazia
Izan dadiela nere bizia :
Eginik ditaken ongi guzia,
Zeruan zaituzket irabazia.

16. Apezaren benediziona

(Airea : *Agur aingeruen*)

Meza finitzean,
Apezak gostuan
Benedikatzen gaitu :
Bi belhaunak makhurturik,
Arimak aldiz ernerik,
Behar gare zeinatu.

Jaunaren itzala
Segi dakigula
Gure bizi guzian.
Esker mila Jainkoari,
Meza saindu hunen sari,
Nork gure bihotzian.

17. Agur Maria eta Salve

Hemen « *Agur Maria* » kanta ditake eskuaraz bere aire berezian.

18. Cor Jesu Sacratissimum

Jesus, o Jesus, Bihotz on umila,
Denak egin gaitzazula zure pareko (*berriz*).

Jesus, o Jesus, Bihotz on umila,
Denak erre gaitzazula zure garretan (*berriz*).

Jesus, o Jesus, Bihotz on umila,
Denak junta gaitzazula zure zeruan (*berriz*).

IV. HAUR KURUTZEDUNEN MEZA

Haur kurutzedunak, ezar bi eskualdetan. Batzuek emanen dute galdea eta bertzek arrapostua.

Lehen Eskualdeak (A).

O Jesus, sinesten dugu kurutzean hil zirela, Jainkoari ohore emaitako eta gizonen salbatzeko, guretzat ardiesteko bekatuen barkamendua eta zure hobeki zerbitzatzeko grazia.

Bigarren Eskualdeak (B).

Sinhesten dugu, aldarean emaiten duzula sakrifizioa, lehen kalbarioko mendian bezala. Zure aldean izan bagine han kalbarioan Andredena Mariarekin! Zombat maitatuko zinintugun! Eginen ginituen sakrifizioak arimen salbatzeko.

Sinhesten dugu, bainan, zuk, jauna azkar gure sinhestea.

A. Jauna, nahi dugu mezan aurkitu, ezagutzeko, zu zirela gure nagusi handia eta gure aita, guziz ona. Zu behar zaitugu maitatu. Zuri zor dugu obedi-entzia osoa.

- B.** Jauna, nahi dugu oraino, barkamendu galdatu, guretzat, haur kurutzedun guzientzat, munduko giritino guzientzat. Zure laguntzarekin, izan gaiten haur suhar, othoitza, komunionea maite dutenak.

Meza Haste.

Apezak, aldare behean, erraiten du : *Kofesatzen nitzaio*
Apeza aldarera igaiten da.

A. Jauna, ken ene bekatu guziak.

B. Lagunt nezazu bertze bekaturik ez egiten, bihotz garbian har dezagun Jesus Jauna komunionean.

Introitean.

A. Dohatsu bihotz garbiak ! Dohatsu, zu maite zaituztenak ! Dohatsu bere buruari bortcha egiten dutenak, zure borondate sainduaren egiteko. Dohatsu usu kominiatzen dutenak !

Kyrie eleison (p. 59).

Gloria in excelsis Deo (p. 59).

Othoitza.

A. Jauna, emaguzu grazia sekulan bekaturik ez egiteko. Lagun gaitzatzu gure buruari bortchu egiten, sakrifizioak egiten, arimen salbatzeko eta zure ikusteko zeruan.

Epichtola.

B. Jauna, sinhesten dut zuk erranak katichiman aurkitzen direla. Lagun gaitzatzu gure katichimaren maitatzen, haren behar bezala ikasten. Harek erranak sinhets ditzagun eta ez, kontra mintzo direnak.

Ebanjelioa.

A. Ebanjelioa, zure hitza, Jesus Jauna.

B. Zure hitza nahi dut onhartu, Jauna eta zure erranen arabera bizi.

- A. Sinhesten dut (p. 60).
B. Sinhesten dut Izpiritu Saindua (p. 61).

Ofertoria.

A. Zeruko Aita, onhar zazu ostia saindu hau. Eskaintzen dautzut, ene bekatuentzat, mezan aurkitzen diren guzientzat eta haur kurutzadun guzientzat.

B. Apezak kalitzan ezartzen duen ura nahasten da arnoarekin. Gisa berean, fededun guziek bat egin dezagun, Jesu-Kristorekin. Eman dezagula bere bizitze dibinoa eta sakrifizioen amodioa.

A. Eskaintzen dautzugu, Jauna, zure semearen odola, gure bekatuentzat ichuri duena. Odol horrek ezti dezala zure kolera. Eman dezagula gure bekatuen barkamendua eta aski indar, garbi egoiteko, arimen salbatzea gatik.

B. Jauna, eskaintzen daukitzugu ditugun guziak : gure bihotzak, zure maitatzeko, gure gogoa zure baitan sinhesteko, gure nahikundea zure legeari jarria egoiteko, gure gorphutza, beti garbi atchiki nahi duguna.

Apezak eskuak garbitzean.

A. Jesus ona, hastio ditut ene bekatuak. Zikintzen dute ene arima ; zure odol sainduaz garbi nezazu.

Orate fratres.

A. Zeruko aitak onhar dezala sakrifizio hau zure eskutik, eliza guziaren ongiarentzat.

B. Jauna, azkar zazu gure sinhestea. Zinez sinhets ditzagun zuk erran solasak : ni naiz bizi-arazten duen ogia. Ni jaten nuena beti biziko da.

Konsekrazioea.

Apezak erraiten du prefazioa, eskerren bihurtzeko.

A. Zuzen da aithor dezagun, zeruko Aita, zu zirela gure aita guziz ona eta guziz maitea. Gu salbatzea

gatik egorri duzu zure seme bakarra, guretzat hil dena.

- B. Aingeruekin betan erraiten dautzugu : saindu, saindu, saindu da armaden Jainkoa. Zeru-lurrak betheak dira haren ongiez. Benedikatua izan dadila, bera eta bardin gutarterat igortzen duen Seme-Jainkoa.

Apeza othoitzean, besoak zabalik.

- A. Jauna, benedika ditzatzu gure etheko maiteak, gure anai-arrebak, gure aintzindariak eta buruzagiak, maite ditugun guziak. Emakozute arimako eta gorphutzeko osagarria. Deneri emakozute, girichtino on egoiteko grazia eta zure maiz errezibitzeko fagorea. Zu zira bizi-arazten duen ogia.

- B. Benedika Aita saindua, Eliza guzia manatu behar duena. Benedika gure apezpikua, gure apezak, apez saindu izan ditena.

- A. Urrikal zaite zu ezagutzen ez zaituzten haur ttipiez, maite ez zaituztenez. Izan ditela denak haur kurutzadun onak.

- B. Urrikal zaite nahigabetan diren dohakabez, kontsola bihotzminetan direnak. Eman ogia, beztitzekoa, egon-tokia ez duteneri. Denek ezagut zitzatela eta maita, zerurat heltzeko.

- A. Grazia horiek galdegiten dauzkitzugu jauna, Andredena Maria eta sainduak ararteko hartuz, apostoluen eta martirren izenean.

- B. Birjinen izenean oraino, Jesu-Kristo gure Nagusia baitan.

Apeza, kalitzaren gainean eskuak emanak.

- A. Jauna kambia zazu ogi hori Jesusen gorphutzera, arno hori haren odolera.

Ogia konsekratzean.

Ahapatik : Hiltzeko bezperan, Jesusek hartu zuen ogia, begiak zerurat altchatu bere zeruko aitari

buruz, eskerrak bihurtu, benedikatu ogia eta eman dizipulueri erranez : Har-azue denek eta jan huntarik : *hau da ene gorphutza.*

Ostia altchatzean, zuk, so ostiari, erranez : Ene Jauna eta ene Jainkoa !

Arnoa konsekratzean.

Ahapetik : Hartu zuen kalitza bere eskuetan, eskerrak Jainkoari bihurtu, benedikatu eta apostolueri eman erranez : Har-azue eta edan huntarik, *hau da ene odola.* Egizue hau ene orhoitzapenetan :

Ene Jauna eta ene Jainkoa !

A. Jesus Jauna, aldare gainean dira zure gorphutza eta zure arima, lehen kalbarioan bezala. Zure zeruko aitari dituzu eskaintzen. Barka gizoneri eta eman behar dituzten graziak.

B. Zeruko aita ona, guk ere, apeza ararteko hartuz eskaintzen daukitzugu, zure semearen gorphutza eta odola. Eta heiekin betan eskaintzen gira, giren guzia, arima eta gorphutz eta ere gure sakrifizioak.

Apeza, hilentzat othoitzean.

A. Jauna, huna Jesusen gorphutza eta odola, Purgatorioetan diren arimentzat, bereziki gure familiakoentzat. Ezki zaitzu heien pairamenak eta zerurat helaraz.

Apeza, bekatorosentzat othoitzean.

B. Zoin haur ahulak giren, estakuruz betheak. Lagun gaitzatzu girichtino suhar izaiten, gure lagunak ere biltzeko Jainkoari. Arima ainhitz salba dezagula.

Komunionea

Gure Aita zeruetan...

A. Gizon guziek ezagut zitzatela, Jauna.

B. Emaguzu, othoi, egunean eguneko ogia. Maita dezagun gorphutz sailduko ogi hori.

- A. Ez utz, tentamenduetan erortzera... Izan giten haur gisako, obedient eta kartsu...

Agnus Dei.

- B. Jainkoaren bildotcha, ene bekatuen gatik ichuri duzu zure odola. Garbi nezazu !

- A. Jesus, Jainkoaren bildotcha, emaguzu bakea guri, gure familieri, herriari, Frantziari, Elizari.

- B. Jesus, guretzat hil zirena, zato gure bihotzetarat, garbi gitzatzu bekatutik.

Komunione aintzineko aktak... (p. 105).

Apezak, komunione ondoan, kalitza garbitzen du :

- A. Garbi, Jauna, ene bihotza. Zure gorphutz saildua izan dadila enetzat sendagailua.

- B. Zure odolak garbi nezala guzia.

- A. Jauna, eskerrak zuri. Gure bihotzera jautsi zira Komunione sailduan. Maite zaitugu bihotz guziaz. Hitzemaiten dautzugu zure maitatzea eta zuri obeditzea.

- B. Jauna, hainbertze maitatu gituzuna, bethe zazu gure bihotza zure amodioaz. Maita ditzagun ere gure lagunak ; heintzat ere eman duzu zure odola.

- A. Onhar zazu, Jauna, egun guk eskaini sakrifizio handia eta horrekin betan egiten ditugun sakrifizio ttipiak.

Apezak, benedizionaema emaitan.

- B. Benedika gitzala, Aita, Seme eta Izpiritu Sailduak.

Azken Evangelioan.

- A. Jesus Jauna, guretzat hil zira kurutzean. Zu zira gizon guzien nagusia. Nahi gaituzu Jainkoaren haur egin eta zerurat helarazi.

- B. Hainbertze gizonek ez zaituzte maite. Egizu, Jauna, gaichtoak, on bilhaka ditene, onak, hobeak egin ditene eta haur kurutzedunak, gerota kartsuago bilhaka ditene. Halabiz.

V. MEZA NAUSIA

Asperges me...

(*Meza-nausi aintzinean kantatzeko*).

Asperges me, Domine, hyssopo, et mundabor * : lavabis me et super nivem dealbabor. — Miserere mei, Deus, * secundum magnam misericordiam tuam... Gloria Patri...

Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam. — Et salutare tuum da nobis.

Domine, exaudi orationem meam. — Et clamor meus ad te veniat.

Dominus vobiscum. — Et cum spiritu tuo.

Pazko denboran. — Vidi aquam egredientem de templo a latere dextro, alleluia ; et omnes ad quos pervenit aqua ista salvi facti sunt et dicent : alleluia. *Ps.* Confitemini Domino, quoniam bonus, * quoniam in sæculum misericordia ejus. Gloria Patri, etc... Vidi aquam...

Kyrie

Kyrie eleison (3 aldiz).

Christe eleison (3 aldiz).

Kyrie eleison (3 aldiz).

Jauna, urrikal zakizkigu.

Kristo, urrikal zakizkigu.

Jauna, urrikal zakizkigu.

Gloria In Excelsis Deo

Gloria in excelsis Deo,
Et in terra pax hominibus
bonæ voluntatis. Lauda-
mus te. Benedicimus te.
Adoramus te. Glorificamus
te. Gratias agimus tibi
propter magnam gloriam
tuam. Domine Deus, Rex

Ohore Jainkoari zeru go-
renean; eta lur gainean chede
oneko gizoner bake. Lauda-
tzen zaitugu. Benedikatzen
zaitugu. Adoratzen zaitugu,
Goresten zaitugu. Eskerrak
bihurtzen dauzkilzugu, zure
ospe handiaren gatik. Jainko

Jauna, zeruetako Erregea.
Jainko Aita guziz boteretsua.
Jesu-Kristo gure Jauna,
Seme bakarra. Jainko Jauna,
Jainkoaren Bildotsa, Aitaren
Semea. Munduaren beka-
tuak zure gain hartu ditu-
zuna, urrikal zakizkigu.
Munduaren bekatuak zure
gain hartu dituzuna, entzun
zazu gure othoitza. Aitaren
eskuinean jarria zaudena,
urrikal zakizkigu. Zu bakar-
rik baitzare saindu ; zu ba-
karrik Jaun ; zu bakarrik
handi, Jesu-Kristo : Izpiritu-
Sainduarekin, Jainko Aita-
ren ospean, Halabiz.

cælestis, Deus Pater omni-
potens. Domine Fili uni-
genite, Jesu Christe ;
Domine Deus, Agnus Dei,
Filius Patris. Qui tollis pec-
cata mundi, miserere nobis.
Qui tollis peccata mundi,
suscipe deprecationem no-
stram. Qui sedes ad dex-
teram Patris, miserere
nobis. Quoniam tu solus
Sanctus ; Tu solus Domi-
nus ; Tu solus Altissimus,
Jesu Christe ; Cum Sancto
Spiritu, in gloria Dei Pa-
tris. Amen.

Credo

Sinhesten dut Jainko ba-
kar, Aita guziz boteretsu,
zerū-lurren, ageri diren eta
ageri ez diren guzien egilea
baitan. Eta Jesu-Kristo Jaun
bakar, Jainkoaren Seme ba-
kar, mende guziez aintzin
Aitaren ganik sortua dena
baitan. Jainkoaren ganikako
Jainkoa da, argiaren gani-
kako argia, Jainko egiaz-
koaren ganikako Jainko
egiazkoa. Ethorkikoa da, bai-
nan ez egina, Aitaren izaite
berekoa ; oro hak eginak dire.

Gu gizonen gatik eta gure

Credo in unum Deum,
Patrem omnipotentem, fa-
ctorem cæli et terræ, visibi-
lium omnium et invisibi-
lium. Et in unum Dominum
Jesum Christum Filium
Dei unigenitum. Et ex
Patre natum ante omnia
sæcula. Deum de Deo,
lumen de lumine, Deum
verum de Deo vero. Ge-
nitum, non factum, con-
substantialem Patri ; per
quem omnia facta sunt.
Qui, propter nos homines
et propter nostram salu-

tem, descendit de cælis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Maria Virgine, et Homo factus est. Crucifixus etiam, pro nobis, sub Pontio Pilato, passus et sepultus est. Et resurrexit tertia die secundum Scripturas. Et ascendit in cælum, sedet ad dexteram Patris. Et iterum venturus est, cum gloria, judicare vivos et mortuos; cuius regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur, qui locutus est per Prophetas. Et unam, sanctam, catholicam et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptisma, in remissionem peccatorum. Et exspecto resurrectionem mortuorum. Et vitam venturi sæculi. Amen.

salbatzeko, jautsi da zerutik. Izpiritu-Sainduaren ariaz gorpuztu da Maria Birjina ganik eta gizon egin da. Gure gatik oraino izan da Kurutzefikaturua, oinhazkatua Ponzio Pilatusen egunetan eta ehortzia. Liburu Sainduen arabera hiletarik phiztu da hirugarren egunean. Eta igan da zerurat, jarri da Aitaren eskuinean. Eta berriz jitekoea da ospeekin bizien eta hilen jujatzerat eta haren erregetasuna ez da geldituko.

Eta sinesten dut Izpiritu-Saindu, Jaun eta biziaren emaile, Aitaren bai eta Semearen ganik dathorrena baitan. Aitarekin eta Semearekin batean adoraturua da eta goretzia, profeten ahoz mintzatu da.

Sinhesten dut Eliza bakar, saindu, Katoliko eta apostolikoa baitan. Aitortzen dut bathaio bat dela bakarrik bekatuen barkamendukotzat. Eta igurikatzen dut hilen berriz phiztea eta ethortzekoea den mendeko bizitzea. Halabiz.

Sanctus

Sanctus, Sanctus, Sanctus Dominus Deus Sa-

Saindua, Saindua, Saindua da Armadetako Jainko Jauna,

zerua eta lurra betheak dira zure ospez. Goretsia izan bedi zeru gorenetaraino. Benedikatu izan bedi Jainkoaren ize-nean heldu dena, goretsia izan bedi zeru gorenetaraino.

baoth. Pleni sunt cæli et terra gloria tua. Hosanna in excelsis ! Benedictus qui venit in nomine Domini. Hosanna in excelsis !

Agnus Dei

Jainkoaren bildotsa, munduko bekatuak kentzen dituzuna, urrikal zakizkigu (hiruetan).

Eta bururatzean : indazu bakea ene arimari.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

VI. HILEN MEZA

REQUIEM æternam dona eis, Domine, et lux perpetua luceat eis. *Ps.* Te decet hymnus, Deus, in Sion, et tibi reddetur votum in Jerusalem * : exaudi orationem meam, ad te omnis caro veniet. Requiem...

Dies Irae.

Dies iræ, dies illa,
Solvat sæclum in favilla,
Teste David cum Sibylla.

Quantus tremor est futurus,
Quando judex est venturus,
Cuncta stricte discussurus !

Tuba mirum spargens sonum
Per sepulcra regionum,
Coget omnes ante thronum.

Mors stupebit et natura,
Cum resurget creatura,
Judicanti responsura.

Liber scriptus proferetur,
In quo totum continetur,
Unde mundus judicetur.

Judex ergo cum sedebit,
Quidquid latet apparebit,
Nil inultum remanebit.

Quid sum miser, tunc dicturus?
Quem patronum rogaturus,
Cum vix justus sit securus?

Rex tremendæ majestatis,
Qui salvandos salvas gratis,
Salva me, fons pietatis.

Recordare, Jesu pie,
Quod sum causa tuæ viæ ;
Ne me perdas illa die.

Quærens me, sedisti lassus :
Redemisti, crucem passus :
Tantus labor non sit cassus.

Juste Judex ultionis,
Donum fac remissionis,
Ante diem rationis.

Ingemisco, tamquam reus :
Culpa rubet vultus meus :
Supplicanti parce, Deus.

Qui Mariam absolvisti,
Et latronem exaudisti,
Mihi quoque spem dedisti.

Preces meæ non sunt dignæ,
Sed tu bonus fac benigne,
Ne perenni cremer igne.

Inter oves locum præsta,
Et ab hædis me sequestra,
Statuens in parte dextra.

Confutatis maledictis,
Flammis acribus addictis,
Voca me cum benedictis.

Oro supplex et acclinis,
Cor contritum quasi cinis :
Gere curam mei finis.

Lacrymosa dies illa,
Qua resurget ex favilla
Judicandus homo reus !

Huic ergo parce, Deus !
Pie Jesu, Domine,
Dona eis requiem.
Amen.

Ofertorioa

Domine Jesu Christe, Rex gloriæ, libera animas omnium fidelium defunctorum de pœnis inferni, et de profundo lacu : libera eas de ore leonis, ne absorbeat eas tartarus. ne cadant in obscurum : sed signifer sanctus Michael repræsentet eas in lucem sanctam, * Quam olim Abrahamæ promisisti, et semini ejus. ̄. Hostias et preces tibi, Domine, laudis offerimus ; tu suscipe pro animabus illis

quarum hodie memoriam facimus : fac eas, Domine, de morte transire ad vitam, * Quam olim...

Komunionea

Lux æterna luceat eis, Domine. * Cum sanctis tuis in æternum, quia pius es. Requiem æternam dona eis, Domine, et lux perpetua luceat eis. Cum sanctis tuis, etc.,

Libera me.

Libera me, Domine, de morte æterna in die illa tremenda : * Quando cæli movendi sunt et terra : † Dum veneris judicare sæculum per ignem. †. Tremens factus sum ego et timeo dum discussio venerit atque ventura ira. Quando cæli movendi sunt et terra. †. Dies illa, dies iræ, calamitatis et miseræ, dies magna et amara valde. Dum veneris judicare sæculum per ignem. †. Requiem æternam dona eis, Domine, et lux perpetua luceat eis. Libera me...

VII. BERETTERAREN ERREPOSTUAK

Aphezak. Introibo ad altare Dei.

Beretterrak. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

A. Judica me, Deus, et discerne causam meam de gente non sancta ; ab homine iniquo et doloso erue me.

B. Quia tu es, Deus, fortitudo mea ; quare me repulisti, et quare tristis incedo, dum affligit me inimicus?

A. Emitte lucem tuam et veritatem tuam ; ipsa me deduxerunt et adduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

B. Et introibo ad altare Dei, ad Deum qui lætificat juventutem meam.

- A. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus; quare tristis es, anima mea, et quare conturbas me?
- B. Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi; salutare vultus mei, et Deus meus.
- A. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto.
- B. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.
- A. Introibo ad altare Dei.
- B. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.
- A. Adjutorium nostrum in nomine Domini.
- B. Qui fecit cælum et terram.
- A. Confiteor Deo... orare pro me ad Dominum Deum nostrum.
- B. Misereatur tui omnipotens Deus, et, dimissis peccatis tuis, perducatur te ad vitam æternam.
- A. Amen.
- B. Confiteor Deo omnipotenti, beatæ Mariæ semper virgini, beato Michaeli Archangelo, beato Joanni Baptistæ, sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis, et tibi, Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo et opere: mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper virginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.
Quoniam confirmata est super nos misericordia ejus, *
et veritas Domini manet in æternum.

Gloria Patri...

BENEDIZIONE ONDOAN : *Laudarioak*

Jainkoa izan bedi benedikatua.

Benedikatua izan bedi haren izen saindua.

Benedikatua izan bedi Jesu-Kristo egiazko Jainko eta egiazko gizona.

Benedikatua izan bedi Jesusen izena.

Benedikatua izan bedi haren Bihotz sakratua.

Benedikatua izan bedi Jesus aldareko sakramendu sainduan.

Benedikatua izan bedi Maria Birjina Jainkoaren ama saindua.

Benedikatua izan bedi Maria bekaturik gabe konzebitua.

Benedikatua izan bedi Maria Birjina eta Ama denaren izena.

Benedikatua izan bedi San Josep haren espos guziz garbia.

Benedikatua izan bedi Jainkoa bere aingeru eta sainduetan.

LAUGARREN ZATHIA

SAKRAMENDUAK

I. PENITENTZIA

1^o) Kontzientziako etsamina

Kofesio on baten egiteko, haur maitea, zure katichimak erraten dautzu kontzientziako etsamina egin behar duzula : horrek erran nhai du, zer bekatu egin duzun bilhatu behar duzula. Hortako :

1^o Othoitz hau egizu lehenik, belhauniko, zure bekatuen ezagutzeko grazia Jainkoari galdetzeko :

Jauna, argi nezazu. Othoi zato ene ganat, ni ez bainaiz haur ttipi bat baizik, eta ezagutaraz diezadatzu ene bekatu guziak. Egizu orai ikus detzadan, Jujamenduko egunean ikusiko ditudan bezala...

Gure Aita zeruetan zarena... Agur, Maria, graziaz bethea...

Ene Aingeru Begirale ona, zuk ere lagun nezazu. Bethi enekin zarenaz geroz, badakizu zer bekatu egin dutan, oro ikusi ditutzu : emadatzu gogorat hemen, handietarik bederen bat baxharra ez dezadan ahantz...

2^o Gero, haurra, artha handirekin irakurtuko duzu urruntchago ezarria den bekatuen saila, gogoan ongi hartuz baxhotcha zenbat edo bederen zenbatsu aldiz egin duzun...

Zoin bekatu egin duzun eta baxotcha zenbat aldiz egin

duzun ongi orhoitu-eta, haurra, hartuko duzu chedea oro diren bezala aphezari errateko. Bere kofesategian apheza ez da gehiago gizon bat, bainan ba Jainkoaren beraren ordaina eta mandataria. Bertzalde, haurra, ez ahantz aphezak nihori ez detzazkela sala kofesioan erran diozkatzun bekatuak, erranarazteko heriotzeaz mehatchatzen balute ere... Ez daukitzu zeroneri ere aiphatuko : oro ahantziko ditu, baitu segurki hetaz orhoitzeaz bertze egitekorik...

2^o) Kontrizioea

Kofesio on baten egiteko bigarren lana, kontrizioearen bihotzean sor-araztea. Zer da kontrizioea? Bekatu eginikako bihotzmina edo urrikia edo pena, eta gehiago ez egiteko chedea. Haurra, kontrizioe hori zure bihotzean sor-araziko duzu aise, orthoitu nahi baduzu bekatuaz Jainkoaren kontra altchatu zarela eta bizkitartean Jainkoa osoki ona dela zuretzat. Deusek etzaitu holako sentimenduetan sar-araziko nola Jesus gurutzefikatuaren aintzinean, ongi gogoa bilduz, othoitz eder hunen errateak :

« Jainko Ona, oro zor daukitzut : ene begiek ikusten duten argia, ene bulharrek iresten duten airea, ene gorphutzak egun guziz hartzen duen janharria. Oro ! Aitamak hoin jainkotiarrak baditut, bathaiatu ondoan hoin ongi altchatu banaute, eta orai maiz eta maiz Mahain Saindurat hurbiltzen ahal banaiz, bai, Jauna, badakit Zuri dutala zor guzia. Bainan zerbeit bada zure Amodioa oraino hobeki frogatzen dautana, hori da hortche begien aintzinean dutan gurutze saindua : hortan hil da Jesus ene salbatzeko, hortan daut zerua berritz ideki, zabaldu !

Eta zu, o Jesus, ene Jesus maitea, ez dut ahantzi nahi Pasioneko oren latzgarri hetan nola azotatu zintuzten, hirur aldiz nola zabal-zabala lurrerat erori zinen, zure bihotza ezpata batek nola zilhatu zuen, zure eskuak eta zangoak itze handi batek nola sarraskitu zituen, zure burua arhantzeek nola odoletan ezarri zuten ! Iduritzen

zaut ene begiz ikusten ditudala oraino horiek guziak, bai-eta gurutzearen aldean zagon Ama Onaren nigarrak ! Eta, o Jesus, horiek etziren gertatuko, gizonak bekatu egin ez balu, ... neronek bekatu egin izan ez banu ! Ahalgez urtu behar nuke, lurraren barnean gorde ! Ez naiz egiten, bihotzik aski ez dutalakotz, ondikotz ! Bainan barkatu nahiko dautazu halere, o ene Salbatzaile Ona, ezen hitzematzen dautzut bederen hemendik goiti lehiatuko naizela, ene bothere guziaz lehiatuko, bekatuari ihes egiterat eta azken hatseraino leialki zure zerbitzatzerat ! »

3^o) Bekatuen aithortzea

Kofesio on baten egiteko hirugarren lana, bekatuen aithortzea. Haurra, kofesategian sartu orduko, hortako, egin den alki ttipian belhaunika zaite eta egizu kartsuki gurutzearen seinalea. Gero apheza gordea dagon chiloari buruz itzulirik, ohi den bezala erratzu hitz hauk :

« Aita, benedika nezazu zeren egin baitut bekatu ».

Doidoiako bat hatsa harturik, orduan :

« Kofesatzen nitzaio Jainko guziz bothetsuari Maria, bethi Birjina dohatsuari, Mikael Arkanjeluari, jondini Joanes Batichtari, jondoni Petri eta Paulo Apostoluer, Saindu guzier eta zuri, ene Aita, zeren egin baitut sobera bekatu, gogoz, hitzez eta obraz... »

Eta segidan, « Kofesatzen nitzaio » hitz horietan utzirik :

Aita badu hunenbertze dembora kofesatu nintzela...
Ukhan nuen (edo ez nuen) absoluzione saindua, eta egin (edo ez) penitentzia...

Ustez bederen ez nuen bekaturik aiantzi (edo halako edo holako bekatu aiantzi nuen)...

Geroztik Mahain Saindurat hurbildu naiz hunenbertze aldiz...

Hemen hasten da egiazki bekatuen aithortzea. Haurrai bethi erratzu bekatu guziak. Bainan, guziz, buruari ong, emozu bekatu mortalak bederen behar direla aithortu. Dударик ttipiena balinbaduzu egin duzun bekatu bat mortala den ala ez, aithor-azu den bezala zure dudarekin. Sekulan ez utz bertzalde bekatu bat erran gabe « ez ahal delakoan mortala ». Bekatu ikharagarria da, alabainan, kofesio gaichto bat.

Orai, huna nola egiten den bekatuen aithortze hori. Hola errechago baita eta deusen ez ahanzteko molderik hoberena, haurra, zoazi bethi manamendutik manamendurat, etsamina egin duzun bezala-bezala.

« Lehen manamenduan, Aita, akusatzen naiz othoitzak huts eginik (hunentbertze) aldiz,... gaizki eginik (hunentbertze) aldiz... predikueri ez kasu emanik,... katichimaren ikasten ez aski arizanik...

« Bigarren manamenduan akusatzen naiz gezurraren finkatzeko besoa altchaturik (hunentbertze) aldiz..., Jainkoaren izena nola-nahi mihiaren puntan ibilirik...

« Hirugarren manamenduan, Aita, akusatzen naiz mende eta phesta manatuetako Meza Saindua ene faltaz huts eginik (hunentbertze) aldiz,... Mezarat ene faltaz berantegi heldurik ... Mezako demboran, aldarerat behatzeko orde, bazterretarat beha egonik,... irriz eta aldeko lagunekin elheketa arizanik,... lagunak jostarazirik... Mezarat eta Bezperetararat bortchaz ethorririk...

« Laugarren manamenduan, Aita, akusatzen naiz ene burhasoeri desobediturik (hunentbertze) aldiz,... elhetzarrak ahapetik ihardetsirik,... gibeletik eskarniaturik,... eskolan kasko zarra eginik...

« Bortzgarren manamenduan, Aita, akusatzen naiz ene haurrideekin samurturik (hunentbertze) aldiz,... heiekin joka arizanik,... lagunekin ere ba,... laguneri etsenplutzarrak emanik,... gaizkia eginarazirik,... norbeitentzat hala ez dena erranik...

« Seigarren eta bederatzigarren manamenduetan, Aita,

akusatzen naiz itsuskeriak gogoan atchikirik (hunentz) aldiz,... itsuskeriak eginik baxharrik,... lagunekin,... itsuskerieri behaturik,... liburu edo egunkari tzarrak irakurturik,... kantu tzarrak kantaturik...

« Zazpigarren eta hamargarren manamenduetan, Aita, akusatzen naiz ebasteko gutizia ukhanik,... ene burhasoeri dirua ebatsirik,... bertze zerbeit ebatsirik,... etchetik kampo hau edo hura ebatsirik,... bidean atchewan zerbeit norena zen bilhatu gabe gorderik,... bertzeen ontasunean kaltea eginik...

« Zortzigarren manamenduan, Aita, akusatzen naiz gezurak erranik (hunentz) aldiz,... norbeit gaizki jujaturik arinki...

« Elizaren seigarren manamenduan, Aita, akusatzen naiz mehe egunetan ene faltaz gizen eginik (hunentz) aldiz...

« Bekatu kapituletan, Aita, akusatzen naiz urguilutsua (hunentz) aldiz,... espantuka arizanik,... Aita-amez ahalgeturik,... gormanta izanik,... koleraturik,... alferra izanik eskolan, etchean, katichiman... jeloskorra izanik...

« Aita, akusatzen naiz bekatu horiez eta ahantzi dituzketan guziez, bai-eta lehenagokoez : barkhamendu galdetzen diot Jainkoari eta zuri, ene Aita, absoluzioea, zure ustez merezi balinbadut...

« Ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz. Hortakotz othoitz egiten diot Maria bethi Birjina dohatsuari... etc.. »

Ohart huni. *Haur baxhotchak ez ditu bekatu horiek guziak egin, bainan egin ditake hemengo bakatuez bertzerik. Bilha ongi oro... eta erran.*

4^o) Absoluzioea

Haurra, zure bekatuak hola aithortu ditutzun ondoan, ongi emazu kasu, aphezak erranen daukitzun guzieri. Galde bat edo bertze egiten badautzu, den bezala eta lañoki ihardetsiko diozu. Ongi gogoan hartuko duzu zer penitentzia ematen dautzun. Eta gero, apheza absoluzioearen ematen

ari zautzularik, bildutasun handienarekin erranen duzu Kontrizionezko Akta :

« Ene Jainkoa, handizki damu dut zu ofentsaturik zeren guziz ona zaren eta guziz maitagarria eta zeren bekatua hastio duzun : barkha zadazu Jesu-Krichtoren merezimenduen gatik : hartzen dut chede zin bat, zure graziarekin batean, zu gehiago ez ofentsatzek oeta penitentzia egiteko »...

Kofesategitik atheratu-eta, ez duzu irriz eta elheketta hasi behar, haurra. Norbeitek galdetzen badautzu aphezak zer erran dautzun edo holako zer-nahi, etzozu ihardets : berehala zoazi chokho batetarat eta han, aldareari beha, othoitz hau egizu lehenik :

5^o) Penitentzia

« Eskerrak bihurtzen daukitzut, Jauna, egin dautazun fagore handiaz, eman dautazun absoluzione sainduaz. Horri esker ez dut gehiago bekaturik orai. Garbi-garbia naiz, ni, eta Zuk ere ez ditutzu nere bekatuak batere gehiago gogoan. Bainan othoi lagun nezazu, bihar, etzi, eta bethi oraintche naizen bezen garbi egoten, hartu ditudan chede onen atchikitzen. Badakit deusek ez dautzula bihotz bat garbi ikusteak baino atsegin gehiago egiten. Bai, Jauna, zure laguntzarekin egon nadila garbi ! Halabiz...

On litake orduan, haurra, berritz gogoan erabil detzatzun aphezak eman daukitzun kontseiluak eta ongi buruan har dezazun nola jarraikiko zitzaioten hobekienik. Gero eginen duzu penitentzia, erran nahi baita, aphezak manatu dautzun othoitzza. Ez sekulan elizatik athera penitentzia egin gabe, nun-eta ez duzun ezinbertze zerbeit...

II. GORPHUTZ-SAINDUA

1^o) Komuniatu gogo duenaren othoitzza

Ez da baxharrik Mahain Saindurat hurbiltzeko mementoan ethorri delarikorhoitu behar zer egiten den : aintzinetik orhoitu behar da. Haurra, on litake hiruzpalau egun aintzinetik bederen othoitz hau erran dezazun, goiz-arratsetako othoitzzen ondolik :

« O Jesus, berritz laster ukhanen dut Mahain Saindurat hurbiltzeko eta zu ene bihotzerat han jautsarazteko zorion handia ! Ez baditut aski chede onak, hobeak sor-arazki-datzut : ez badut othoitzza aski maite, gehiago maitaraz diezadazut ; ez banaiz aski prestua, prestuaraz nezazu !

« Ene bihotza ongi ezagutzen duzu, zuk : badakizu othoitz hau ez dautzutala airerat egiten. Bainan hain haurra naiz, hain aise ahanzten ditut oro ! Holakorik gertatzen bazaut egun, orhoitaraz nezazu, othoi !

« O Maria, Nazaretan Jesus-Haurrari lo egiteko sehaska zuk egiten zinion : egizu ene bihotza ere Jesusentzat sehaska gocho bat izan dakion ondoko egunetan ! Halabiz... »

2^o) Komuniatzeko egunean

Erran gabe doa, haurra, Mahain Saindurat joan gogo duzun goizean, jeiki orduko Jesus maiteaz orhoituko zarela eta komuniatu arte ez duzula bertze deusik gogoan atchikiko. Elizarat joaitan etzaitzatela irriz eta oihuka adi, are gutiago lagunekin kalapita gorrian. Elizarat orduko, has zaite othoitzean. Meza Saindua segi zazu ongi. Huna, sagara ondoan bildutasun handienarekin erranen ditutzun othoitzak :

Fedezko Akta. — « Jesu-Krichto ene Jauna, sinhesten dut zinez hor zarela egiazki lAldareko Sakramenduan eta zure hartzera nohala Komunione Sainduan »

Adorazionezko Akta. — « Ene Jesus, adoratzen zaitut hemen ogiaren itchuraaz gordea. Ezagutzen dut ene Kreatzailea eta Jainkoa zarela »...

Humiltasunezko eta Kontrizionezko Akta. — « Jauna, ez dut merezi ene baitan sar zaiten, hanbat laidoztatu zaitudan ondoan, bainan errazu bakharrik hitz bat eta ene arima sendatua izanen da. Urrikalmenduzko hitz bat errazu eta barkazkidatzu ene bekatu guziak. Bai, Jauna, bihotzetik hastiatzen ditut ! »...

Esperantzazko Akta. — « Salbatzaile maitea, esperantza dut, ni baitan egoitera ethorritz, ene arima garbituko duzula, eta betheko zure graziez eta zure amodioaz »...

Amodiozko Akta. — « Jesus, ene ontasun bakharra, maitatu nauzu zure haragiaz hazi nahirainokoan ; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez. Nahi naiz bizi eta hil zure amodio sainduan »...

Gutiziazko Akta. — « Zato, Jesus, zato ene bihotzerat : garbi zazu bere gaitz guzietarik : bethe zazu graziez : kartsuki gutiziatzen dut zure hartzea ! »...

3º) Komuniatu ondoan

Komuniatu ondoan, haurra, emeki-emeki zoazi zure tokirat, bi besoak gurutzatuak, begiak bazterretarat altchatu gabe eta zure tokian doi bat hola-hola bildua egonik, gero erratzu komunione ondoko Aktak.

Adorazionezko Akta. — « Ene Jainkoa eta ene Salbatzailea, adoratzen zaitut orai ene bihotzean, eta bat egiten dut zeruan adorazione bihurtzen ari zaizkitzun Aingeru eta Sainduekin »...

Esker onezko Akta. — « Eskerrak deraitzut, ene Salbatzaile maitea, zeren ene bihotzerat ethorri nahi izan duzun Komunione Saindu huntan. Zer bihurtuko derautzut zure ongi-egin guzientzat? »...

Emaitzazko Akta. — « Jesus Jauna, emaiten nit-zautzu naizen guzia, zu eni eman zaren bezala : egidazu grazia zuretzat baizik ez bizitzeko ! »...

Amodiozko Akta. — « Oi, ene Jesus Ona, maite zaitut ahalaz khartzukiena ! Zure amodioaren suak bero, erre, suntsi dezala ene bihotza ! »

Chede zinezko eta Galdezko Akta. — « Ene Jainkoa, hartzen dut chede zin bat zuk hastio dilutzun guzietarik begiratzeko eta ni ganik galdetzen ditutzun guzien egiteko. Egizu zure graziaz maita zaitzadan eta gorets, ene biziak dirauno eta mende guzietan »...

Dembora hortan Meza Saindua ez baita naski oraino bururatu, haurra, beha eman zaite orduan Aldareari, ahal bezenbat bat eginez aphezaren othoitzekini Jesus, eskerren hobeki bihurtzeko. Meza Saindua bururatu denean, ez tarrapataka abia kaporat, bainan erratzu oraino Arroso-riotik bi hamarreko eta gero Jesus Gurutzefikatuaren othoitzza :

4^o) Othoitz baliosa



« Huna, o Jesus ona eta guziz ezitia, nun naizen zure aintzinean belhauniko emana : eta arimako khar handienarekin othoizten zaitut eta biñtan othoitzen, barna sar detzatzun ene bihotzean fedezko, esperantzazko eta karitatezko sentimendurik bizienak, ene bekatuen egiazko urrikia, eta gehiago ez egiteko chederik azkarrena : nik, bihotzeko amodio eta min handi batekin, zure bortz zauriak ene baitan ikusten ditudalarik eta gogoan erabiltzen, begien

aintzinean atchikiz zutaz Dabid profetak zure ahoan ezar-
tzen zituen hitz hauk : « Zilhatu dituzte ene eskuak eta
ene oinak, kondatu ene hezur guziak... » (1)

*Ez ahantz, haurra, Jainkoak sekulan etzaituela hola
komuniatu duzun egunetan baino gogotikago entzunen.
zoin ongi litaken beraz arratsean ere, holako egunetan,
sar-athera bat elizan egiten bazinu hamarreko baten errateko,
zuretzat, zure burhaso maiteentzat, zure ongi-egileentzat,
Eliza ama sainduarentzat !...*

III. KONFIRMAZIONEA

*Haurra, huna erakaspén bat ongi gogoan hartu behar
duzuna : nahiz Konfirmazioneko Sakramendua ez den bai-
tezpadakoa salbatzeko, ona baino hobea da. Gehiago dena,
oraiko mende sinetsgaitz eta nahasietan ez da zuhurtzia
Konfirmatu gabe gelditzea. Ezen badakigu zer den Konfir-
mazionea? Konfirmazionea da Izpiritu Saindua grazia fran-
gorekin ematen daukun Sakramendua. Bereziki, ematen
dauku erlisioneko egia azkarki sinhesteko eta heien alde
beldurrik gabe agertzeko grazia.*

*Mahain Saindurat hurbiltzeko bezala, Konfirmazioneko
sakramenduaren ongi hartzeko graziazko estatuan behar
da izan. Beraz, haurra, Konfirmatzeko bezperan behar duzu
kofesio on bat egin. On litake kofesio jenerala egin dezazun
edo bederen Lehen komunionetikakoa. Kofesio hortarik
lekhora, penitentziaz kampo, othoitz on batzu eginen ditutzu*

(1) Gurutzefikaren aintzinean othoitz hori egin-eta, bertze
othoitz bakhar batzu Aita Sainduarentzat egiten dituenak
bekatuari zor zaion gaztigu guzia barkha dezaken indulientzia
irabazten du, Purgatorioko arimentzat...

elizan berean, eta gero etchean oherakoan, Sakramendua ongi balia dakizun bethi eta nun-nahi girichtino on izaiteko eta agertzako.

Arras eder eta hunkigarriak dire konfirmazioneko othoitz eta zer guziak. Konfirmatu behar ditueneri katichimako galde batzu egin ondoan, jaun Apezpikua belhaunikatzen da aldarearen aintzinean eta hasten du Izpiritu Sainduaren kantu ederra : Veni, Creator Spiritus.

Kantu hori orok bururatu dutenean, jaun Apezpikua itzultzen da, bi besoak zabaltzen ditu belhauniko dauden haurren alderat eta heientzat othoitz egiten Izpiritu Sainduari :

Spiritus Sanctus superveniat in vos, et virtus Altissimi custodiat vos a peccatis :

Orok : Amen.

Adjutorium nostrum in nomine Domini.

Orok : Qui fecit cælum et terram.

Domine, exaudi orationem meam.

Orok : Et clamor meus ad te veniat.

Dominus vobiscum.

Orok : Et cum spiritu tuo.

OREMUS

Omnipotens sempiterne Deus, qui regenerare dignatus es hos famulos tuos ex aqua et Spiritu Sancto, qui que dedisti eis remissionem omnium peccatorum, emitte in eos septiformem Spiritum tuum Sanctum Paraclitum de cælis.

Orok : Amen.

Izpiritu Saindua jauts bedi zuen gainerat eta Jainkoaren indarrak begira zaitzaitela bekatuetarik.

Halabiz.

Gure ihes lekhoa izan da diela Jainkoa.

Zerua eta lurra egin dituen.

Jauna, adi zazu ene othoitz.

Eta ene oihua hel bedi zutaraino.

Jauna izan bedi zuenkin.

Bai-eta zure izpirituarekin.

OTHOITZA

Jainko guziz botheretsu eta bethikoa, hemengo zure zerbitzari hauk urean eta Izpiritu Sainduan arraphitzarazi ditutzuna, bai-eta bekatu guzien barkhamendua eman diozutena, igor dezozute zeruetarik Izpiritu Saindua, Kontsolatzailea, bere zazpi dohainekin.

Halabiz.

Zuhurtzia eta adimendua.

Halabiz.

Kontseilua eta indarra.

Halabiz.

Jakitatea eta othoitzaren amodioa.

Halabiz.

Zure beldurraz bethe zatzu eta zure bihotz onak eman dezotela zeruan sartzeko behar den Jesu Krichtoren gurutzearzen seinalea. Horigaldetzen dautzugu Jesu Krichto gure Jaunaren beraren izenean.

Halabiz.

Spiritum sapientiæ et intellectus.

Orok : Amen.

Spiritum cõsili et fortitudinis.

Orok : Amen.

Spiritum scientiæ et pietatis.

Orok : Amen.

Adimple eos spiritu timoris tui et consigna eos signo Crucis Christi in vitam propitiatus æternam. Per eundem Dominum nostrum Jesum Christum.

Orok : Amen.

Orduan, haur batetik bertzerat, jaun Apezpikuak bakhotchari egiten dio kopetan gurutzearen seinale bat krisma sainduarekin — olio usain oneko bat da, apezpikuak ortzegun sainduz kontsekratua — hitz hauk erraten dituelarik :

Markatzen zaitut gurutzearen seinaleaz eta azkartzen Krisma salbagarriaz, Aitarren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

Halabiz.

N... signo te signo Crucis et confirmo te Chrismate salutis in nomine Patris, et Filii et Spiritus Sancti.

Orok : Amen.

Segida berean, haur bakhotechari mathela eskuz hunkitzen dio jaun Apezpikuak, Pax tecum erranez.

Krisma Saindua orori eman eta, huna zoin othoitz erraten diren :

O Jauna, finka zazu gu baitan egin duzuna.

Zeruan den zure egoitza saindutik.

Loria Aitari eta Semeari eta Izpiritu Sainduari.

Confirma hoc, Deus, quod operatus es in nobis.

A templo sancto tuo quod est in Jerusalem.

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper, et in sæcula sæculorum.

Orok : Amen.

Berritz aldareari buruz itzultzen da jaun Apezpikua eta othoitzak segitzen ditu :

ÿ. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

Orok : Et salutare tuum da nobis.

ÿ. Domine, exaudi orationem meam.

Orok : Et clamor meus ad te veniat.

Dominus vobiscum.

Orok : Et cum spiritu tuo.

OREMUS

Deus, qui apostolis tuis Sanctum dedisti Spiritum, et per eos eorumque successores cæteris fidelibus tradendum esse voluisti, respice propitius ad humilitatis nostræ famulatum et præsta, ut eorum corda, quorum frontes sacro Chrismate delinivimus, et signo sanctæ Crucis signavimus, idem Spiritus Sanctus in eis superveniens templum gloriæ suæ dignanter inhabitando perficiat. Qui cum Patre et eodem Spiritu Sancto vivis et regnas in sæcula sæculorum.

Orok ; Amen.

Gero, jaun Apezpikuak bakharrik :

Ecce sic benedicetur omnis homo qui timet Dominum.

Hastean zen bezala dardiala orai eta bethi eta menderen mendetan.

Halabiz.

Irakus diezaguzu, Jauna, zure meserikordia.

Eta emaguzu zure laguntza.

Jauna, adi zazu ene othoitzza.

Eta ene oihua hel bedi zutaraino.

Jauna izan bedi zuenkin.

Bai-eta zure izpirituarekin.

OTHOITZA

Jainko apostolueri Izpiritu Saindua eman duzuna eta heien beren eta heien ondokoen bidez bertze giritinoeri ematea manatu duzuna, begi onez beha zozugure ezdeusean egiten dugun lanari eta egizu Izpiritu Saindua sar eta ohoratua izan dadien egun kopetan hunkitu eta gurutzearen seinaleaz markatu ditugunetan. Zuri, Jainko Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean bizi zarena menderen mendetan.

Halabiz.

Hola benedikatuak izanen dire Jainkoaren beldurra duten gizon guziak.

Azkenekotz haur konfirmatu berrien alderat itzulirik bere benediziona ematen diote :

Jainkoak benedikak zaitzateela gain hartarik, bizi huntan ukhan detzatzuen behar ditutzuen laguntzak eta bertzean bethiereko zoriona.

Halabiz.

Benedicat vos Dominus ex Sion, ut videatis bona Jerusalem omnibus diebus vitæ vestræ et habeatis vitam æternam.

Orok : Amen.

Eta orori batean Sinhesten dut, Gure Aita eta Agur Maria erranarazten diozkate orduan...

BORTZGARREN ZATHIA

IGANDETAKO ETA PHESTA BURUETAKO EBANJELIOAK

ABENDOKO LEHEN IGANDEA

MUNDUAREN AKABANTZA (S. Luc. XXI, 25-33.)

Orduan, Jesusek erran zioten bere dizipulueri : « Izanen dire ikhusgarriak iguzkian, eta ilhargian, eta izarretan, eta lurrean jendayak hersturetan, itsasoaren eta uhinen orroak laztuko baititu. Gizonak ihartuko dire izialdurarekin, eta mundu guziari garthatzera dihoakionaren igurikimenean ; ezen zeruetako armadak khordokan izanen dire ; eta orduan ikhusiko da gizonaren Semea hedoyen gainean dathorla bothere eta mayestate handitan. Bada, horiek gerthatzen hasiko direnean, begira zazue, eta goiti zatsue buruak, hurbil baita zuen berrerospena. Eta iduripen bat erran zioten : Ikhusatzue pikondoa, eta arbola guziak : ninika beren baitharik arthikitzen duten orduan, badakizue uda hurbil dela. Halaber zuek ere ikhusiko duzuenean horiek gerthatzen direla, jakizue hurbil dela Jainkoaren erresuma. Egiaz derratzuet ez dela gizate hau iraganen, non ez diren horiek oro gerthatzen. Zerulurrak iraganen dire ; bainan ene hitzak ez dire iraganen.

ABENDOKO BIGARREN IGANDEA

JONDONI JOANES BATISTAREN MEZUA JESUSI

(S. Matth. XI, 2-11.)

Orduan, Joanesek presondegian aditurik Kristoren egintzak, bere bi dizipulu igorri ziozkan, galdatzera : Zuzare ethortzekoa zarena, ala bertze bat behar dugu iguriki? Eta Jesusek ihardetsi zioten huneletan : Zoazte, errozuezte Joanesi zer aditu duzuen, eta zer ikhusi. Itsuek ikhusten dute, mainguak badabiltza, legentsuak edo lepratsuak garbitzen dire, gorrek aditzen dute, hilak phizten dire, beharrei Ebenjelioa erantzuten edo predikatzen zayote. Eta dohatsu nitaz gaizbiderik edo eskandalarik hartzen ez duena. Hekiek goan ondoan, Jesus abiatu zen populuari Joanesez mintzatzen : Zeren ikhustera ilkhi zarete mortura? haizeak derabilan khanabera edo seska baten? Bainan zeren ukhustera ilkhi zarete? guriki jaunzia den gizon baten? Erregen etchetan daude guriki jaunzten direnak. Bainan zeren ikhusten izatu zarete bada? profeta baten? Bai, erraten darotzuet, profeta ere baino gehiago den baten. Hura da ezen zeintaz iskribatua izan baita : Huna non zure aitzinean igortzen dudan nik ene aingerua, zure bidea lehenik aphainduren duena.

ABENDOKO HIRUGARREN IGANDEA

JONDONI JOANESEN LEKUKOTASUNA JESUSEZ

(S. Joann, I, 19-29.)

Orduan Jerusalemdik, aphez eta lebitar batzu bidali ziozkaten Juduek Joanes Batistari galdegitera : Nor zarezu? Eta aithortu zuen, eta ez ukhatu ; eta aithor hau eman zuen : Ez naiz ni Kristo. Eta galdatu zioten : zer zare bada? Elias zarezu? Eta erran zuen : Ez naiz hura. Profeta zarezu? Eta ihardetsi zuen : Ez. Erran zioten

beraz : Nor zare, ihardets diozotegun bidali gaituztenei? zer diozu zure buruaz? Erran zuen : Ni naiz hainaren mintzoa, zeinak mortuan oihu egiten baitu : Aphain zazue Jaunaren bidea, Isaias profetak erran izan duen bezala. Eta haren ganat igorriak zirenak, Farisauetarik ziren. Eta galdatu, eta erran zioten : Zer hari zare beraz bathayutzen, ez bazare ez Kristo, ez-eta Elias, ezietare profeta? Joanesek ihardetsi zaroten, zioelarik : Nik urean dut bathayutzen ; bada ordean zuen erdian bertze bat, zuek ezagutzen ez duzuen. Hura da ene ondotik ethortzekoa dena, ene gaineko ezarria dena ; ni ez bainiaz haren oinetakoen lokharriaren urratzeko ere. Haukiek gerthatu ziren Bethanian, Jordanez haindian, non hari baitzen Joanes bathayutzen.

ABENDOKO LAUGARREN IGANDEA

JOANESEN IRAKASPENAK (S. Luc. III, 1-7.)

Bada, Tiberio Zesar emperadore zen hamabortzgarren urthean, Ponzio Pilatus Judean gobernadore zelarik, Herodes Galilean tetrarka, haren anaya Filipe Iturian eta Trakonitako eremuan, Lisaias berriz Abilinan. Ana eta Kaiphas aphez handi zirelarik, Jaunaren hitza mortuan atheratu zitzayoen Joanesi, Zachariasen semeari. Eta ethorri zen Jordaneko herrialde guzira, predikatuz urrikizko bathayo bat bekhatuen barkhamendutako, iskribatua den bezala Isaias profetaren hitzetako liburuan : Mortuan oihuz dagoenaren boza : Aphain zazue Jaunaren bidea ; chuchen zatzue haren bidechkak. Betheko dire haran guziak, mendiak eta aldapak edo bichkarrak beheratuko, makhurak chuchenduko, eta malkarrak bide zelhai eginen ; eta gizon guziek ikhusiren dute Jainkoa ganikako Salbatzailea.

EGUERRI EGUNEAN

EGUERRI GAUEKO MEZAN

JESUS SORTZEN DA BETHLEHEMEN (S. Luc. II, 1-15.)

Bada, egun hekietan gerthatu zen ilkhi zela Zezar-Augustoren erabaki edo manu bat, lur guziko izenen hartzeko. Lehembiziko izen hartze hori egina izan zen Zirinoz, Siriako gobernadoreaz. Eta bazihoazen oro, zein bere hirira, bere izenaren ematera. Josep ere Galileatik, Nazaretheko hiritik, Judeara igan zen, Dabiden hirira, zeina deitzen baitzen Bethlehem, Dabiden etchetik eta odoletik zelakotz, izenen ematera bere emazte Mariarekin, zeina amatu beharra baitzen. Bada, han zirelarik gerthatu zen Mariari bethe zitzaizkola amatzeko egunak. Eta amatu zen bere seme lehensorthuaz, eta chatharrez inguratu, eta etzan zuen hei bateko askan, zeren hekientzat ostatuan lekhurik az baitzen.

Eta baziren eremu berean artzain batzu, gauzko muge-tan aldizka ardien zain egoten zirenak. Eta hara Jau-naren aingerua aldean gelditu zitzaizotela, eta Jainkoaren argiak inguratu, eta izialdura handi batek hartu zituen. Eta aingeruak erran zioten : Ez izi ; ezen huna non ekhartzen darotzuedan berri bat, populu guzientzat bozkario handiren bide izanen dena : gaur, Dabiden hirian sorthu baitzaitzue Salbatzaile bat, zeina baita Kristo Jauna. Eta huntarik ezaguturen duzue : Haurtto bat aurkhituren duzue chatharrez inguratua, eta hei bateko askan ezarria. Eta ordu berean aingeruarekin jarri ziren zeruko armadako aralde handi batzu, Jainkoa goresten, eta erraten zutenak : Ospe Jainkoari zeru goren-etaraino, eta lurrean bake esker oneko gizonei.

EGUERRI ARGU-URRATZEKO MEZAN

ARTZAINEK JESUS ADORATZEN DUTE (S. Luc. II, 15-21.)

Orduan artzainek elkharrri erran zuten : Goazen Bethlehe-meraino, eta dugun ikhus Jaunak gerthatu dela ezagutarazi darokun gauza hori. Eta lehiaz ethorri ziren, eta aurkitu zituzten Maria eta Josep, eta haurttoa askan etzana. Eta ikhusi zutenean, ezagutu zuten egia zela haur hartaz errana izan zitzayoten solasa. Eta aditu zuten guziak espantituak zauden hortaz, eta artzainek erran zaroez-tenez. Bada, Mariak gauza horiek oro zaduzkan, bere bihotzean erabiliz. Eta itzuli ziren artzainak, Jainkoa goresten eta laudatzen zutelarik, aditu eta ikhusi zituzten gauza guziez, errana izan zitzayotenaren arabera.

EGUERRI EGUNNEKO MEZAN

JESUS JAINKOAREN BETHIDANIKAKO SEMEA (S. Joann. I, 1-15.)

Hastapenean zen Hitza, eta Hitza Jainkoaren baithan zen, eta Hitza Jainko zen. Hatspaenean Jainkoaren bai- than zen. Gauza guziak haren bidez eginak dire, eta eginadenik ez da hura gabe egin deusere. Haren baithan zen biziá, eta biziá gizonen argia zen. Eta argiak ilhumbeetan argitzen du, eta ilhumbeek ez dute ezagutu.

Jainkoak igorria, gizon bat izatu da Joanes deitzen zena. Hura ethorri zen lekhukotzat, argiaz egin zezan lekhukotasun, orok haren ariaz har zezaten sinheste. Hura etzen argia, bainan zen argiaz lekhukotasun bihurtzeko. Hau zen argi egiazkoa, mundu huntara dathortzen gizon guziak argitzen dituená. Munduan zen, eta haren bidez egin izan da mundua, eta munduak ez du ezagutu. Ethorri da bere izateetara, eta berek ez dute onhetsi. Bainan zembatek-ere onhetsi baitute, heieri eman diote Jainkoaren ume bilhakatzeke ahala, heieri zeinek haren izenean sinheste baitute, zeinak ez odoletik, ez haragiaren nahitik, ez gizonaren doletik, bainan Jainkoaren ganik

baitire sorthu. Eta Hitza haragi egin izan da, eta egotu da gure artean, graziaz eta egiaz bethea ; eta ikhusi izan dugu haren ospea, Aita ganikako seme bakharraren ospea bezala.

EGUERRI ONDOKO IGANDEA

SIMEON PROFETAREN HITZAK (Luc. II, 33-41.)

Orduan Josep eta Maria, Jesusen ama, miretsiak zauden, haurraz erranak ziren solas horien gainean. Eta benedikatu zituen Simeonek, eta erran zioen haren ama Mariari : Huna ezarria dela haur hau hainitzen galpenetan eta hainitzen salbamendutan Israelen, eta jomen bat bezala, zeinari alde orotarik jazarriko baitzayo ; eta zeroniri ezpatak iraganen darotzu arima, ager ditezen asko bihotzetako asmuak. Eta bazen profetesa bat, Ana, Phanuelen alaba, Aserren leinutikakoa ; adin handitan sarthua zen, eta neskatcha zelarik hartu senharrarekin bizi izan zen zazpi urthez. Eta alhargun egotu zen hura laur hogoi eta laur urthetaraino ; etzen templotik aldaratzen, gau eta egun Jauna zerbitzatzuz barur eta othoitzetan. Hura ere ordu berean harat gerthaturik, eman zen Jaunari aithorren bihurtzen, eta haurraz mintzatzun Israelen berrerospenaren iguri zauden guziei.

Jaunaren legearen arabera egin beharrak akhabatu ondoan, itzuli ziren Galileara, Nazaretheko beren hirira. Bizkitartean haurra hari zen larritzen eta hazkartzen, zuhurtziaz bethea, eta Jaunaren dohaina haren baithan zen.

TRUFANIA EGUNEAN

MAGOEK ADORATZEN DUTE JESUS (S. Matth. II, 1-13.)

Nola beraz Jesus sorthua baitzen Bethlehem Judakoan, Herodes erregearen egunetan, hara Mago batzu ethorri zirela iguzkialdetik Jerusalemera, ziotelarik : Non da

Juduen errege sorthu dena? ezen iguzkialdean ikhusi izan dugu haren izarra, eta haren adoratzera gathortzi. Bada, hori aditzearekin, asalduan sarthu zen Herodes erregea eta Jerusaleme guzia harekin batean. Eta bilarazirik aphezen buruzagiak eta populuaren iskribauak, galdeka zagokioten hean non sortzekoa zen Kristo. Hekiek berriz, erran zioten : Bethlehem Judakoan ; alabainan hau da profetak iskribatua : Eta hi Bethlehem, Judako lurra, ez haiz segur chumeena Judako lehembizikoen artean ; ezen hire baitharik duk ilkhiren Israelgo ene populuari hotsemanen dioen buruzagia. Orduan, Magoak ichilik deithurik, Herodes ardurarekin argitu zen hekien baithan zer mugaz agertu zitzayoten izarra. Eta Bethlehemera igortzen zituelarik, erran zioten : Zoazte, eta ardurarekin galda zazue haurraz ; eta aurkhitu dukezuenean, gaztia diazadazue, nathorren ni ere haren adoratzera.

Entzun ondoan errege, bideari lothu ziren. Eta hara iguzki aldean ikusi izan zuten izarra aintzinean zihoakiotela, heldurik bara zadien arteo haurra zagoen tokiaren gainean. Bada ikhusi zutenean izarra, bozkario handiz ziren boztu. Eta etchean sarthurik, aurkhitu zuten haurra bere ama Mariarekin, eta lurrerat eroriz adoratu izan zuten ; eta beren kutchak idekirik, emaitzetan eskaini ziozkaten urhea, isentsua eta mirra. Eta lotan izanik Herodesen gana ez bihurtzeko mezua, bertze bide batetarik itzuli ziren herri alde.

TRUFANIATIK LEHEN IGANDEA

JESUS HAURRA JAKINTSUNEN ERDIAN (S. Luc. II, 42-53.)

Eta hamabi urthetan zelarik, nola Jerusalemera igan baitziren, besta eguneko ohitzaren arabera, besta egunak iragan ondoan, gibelerat itzultzen zirenean, Jerusalemen gelditu zen Jesus haurra, eta burhasoak etziren ohartu. Ustez-eta lagunen andanan zen, egin zuten egun baten bidea, eta beren ahaide eta ezagunetan galdatzen zuten

hartaz. Eta ez baitzuten aurkhitzen, Jerusalemera itzuli ziren haren ondotik. Eta gerthatu zen, hirur egunen buruan atzeman zutela temploan, irakhasleen erdian jarria, hari zela hekien entzuten eta hekiei galde egiten. Eta aditzen zuten guziak harrituak zauden haren zuhurtziari eta haren ihardesteari. Hala ikhusi zutenean beraz, balditu ziren. Eta erran zioen bere amak : Haurra, zertako egin darokuzu holakorik? huna zure aita eta ni bihotzminekin ginabiltzala zure ondotik. Eta ihardetzi zioten : Zertan zinabiltzaten ene bilha? Ez zinakiten ene Aitari dagozkioten gauzetan behar naizela aurkhitu? Bainan etzuten aditu harek erran solasa.

Eta jautsi zen heiekin, eta goan zen Nazarethera ; eta hekien eskupeko bizi zen. Eta haren amak bere bihotzean zaduzkan gauza horiek oro. Eta Jesus aitzinatuz zihoan zuhurtzian, adinetan, eta grazian, Jainkoaren eta gizonen begietan.

TRUFANIATIK BIGARREN IGANDEA

JESUS KANAKO EZTEYETAN (S. Joann. II, 1-12.)

Orduan, eztei batzu egin ziren Kana Galileakoan; eta han zen Jesusen ama. Bada, Jesus ere eta bere dizipuluak ezteyeta deithuak izan ziren. Eta arnoa eskastera baitzihoan, Jesusi erran zioen bere amak : Arnorik ez dute. Eta Jesusek erran zioen : Emaztekoa, zer da ene eta zure arteko? ene ordua ez da ethorria oraino. Haren amak erraten diote sehiei : Zer-ere erranen baitarotzue, eta hura egizue. Bada, han baziren sei untzi harrizko, Juduen chahualdietakotzat ezarriak, bizpahiruna metrata zadukatenak. Jesusek erraten diote : Urez bethe zatzue untziak. Eta bethe zituzten gaineraino. Eta Jesusek erraten diote : Erautsazue orai, eta eremozue mahain arthatzaileari. Eta eraman zuten. Bada, mahain arthatzaileak jastatu zueneko arno bilhakatua zen ura, nola ez baitzakien nondik heldu zen, bainan ura ekharri zuten sehiek baza-

kiten, deitzen du jaun esposa, eta erraten dio : Nor-nahik hastetik mahainean ezartzen du arno ona ; eta tcharragoa, jendea edana denean ; zuk aldiz, orai artio iduki duzu arno ona. Hori egin zuen Jesusek bere lehembiziko sendagaila Kana Galileakoan ; eta ezagutarazi zuen bere ospea, eta haren baithan sinhetsi zuten haren dizipuluek.

TRUFANIATIK HIRUGARREN IGANDEA

LEPRATSUAREN ETA EHUNTARIAREN
MUTHILAREN SENDATZEA (S. Matth. VIII, 1-14.)

Orduan, Jesus jautsi zenean, oste handiak jarraiki zitzaizkon ondotik. Eta hara lepratsu bat ethorri zela, eta adoratzan zuen Jesus, zerralarik : Jauna, zuk nahi baduzu, garbi nezakezu. Eta eskua hedatuz Jesusek ukitu zuen, zioelarik : Nahi dut, chahu bezedi. Eta han berean garbitu zen haren lepra. Eta hari erran zaroen Jesusek : Berautzu nihori ez derrozun ; bainan zoaz, ager zaite aphezari, eta eskaintzazu Moisesek manatu eskaintza, lekhukotasuntan dakioten izan.

Jesus sarthu zenean, berriz, Kapharnaumen, ehuntari bat hurbildu zitzayoen, othoizka, eta erranez : Jauna, ene muthila etchean da ohatua paralitiko, eta oinhazeak ematen dio gogorki. Jesusek erran zioen : Ethorriren naiz ni, eta sendaturen dut. Eta ehuntariak ihardetsi zuen : Jauna, zu ene etchera sartzeko ez naiz gai ; bainan bakharrik hitz bat errazu, eta ene sehia sendatua daite. Ezen ni ere gizon bat naiz bertseen manukoa, soldadoak ere azpiko dudana ; eta erraten diot bati : Habil, eta badoha ; eta bertge bati : Haugi, eta heldu da ; eta ene muthilari : Egizak hori, eta egiten du. Bada, Jesusek aditzean ederresten zuen, eta ondotik zituenei erran zaroten : Egiaz derratuet, hunembateko sinhesterik ez dut Israelen aurkhitu. Nik derratuet oraino hainitzak direla iguzki haizetik eta mendealetik ethorriko, eta Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin jarriko direla, zeruetako erre-

suman. Aldiz erresumako umeak kampoko ilhumbeetara izanen dira arthikiak : han izanen baitire marraskak eta hortz karraskak. Orduan Jesusek erran zioen ehuntariari : Zoaz, eta sinhetsi bezala egin bekizu. Eta ordu berean sendatua zen muthila.

TRUFANIATIK LAUGARREN IGANDEA

ITSASOAREN JABALTZEA (S. Matth. VIII, 23-28.)

Orduan Jesus, untzichkan sarthu zenean, jarraiki zitzaizkon bere dizipuluak. Eta hara itsasoa hasarre handitan jauzi zela, haletan non uhinez estalia baitzen untzichka ; bera berriz lo zagoen. Eta hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak, eta iratzarri zuten, ziotelarik : Begira gaitzatzu, Jauna, galtzen hari gare. Eta Jesusek ihardetsi zioten : Zertako zarete beldurti, sinheste aphurrekoak? Orduan jaikirik, manatu zioten haizeei eta itsasoari, eta jabaldura handi bat egin zen. Eta ederresten zuten orok, zerratelarik : Nor da hau, haizeek eta itsasoak entzuten baitute?

TRUFANIATIK BORTZGARREN IGANDEA

OGIA ETA HIRAKA (S. Matth. XIII, 24-31.)

Orduan Jesusek bertze parabola bat atheratu zaroeten, ziotelarik : Zeruetako erresuma ezarria da gizon baten iduriko, zeinak bere landan errain baitzuen hazi ona. Bainan etcheakoak lo zaudelarik, ethorri zen haren etsaia eta ogiaren erdian erain zioien ganetik hiraka, eta goan zen gero. Bada, belharra handitu, eta burutu zenean, orduan agertu zen hiraka ere. Eta etcheko nausiari ethorri zitzaizkon bere sehiak, eta erran zioten : Jauna, ez othe zinduen hazi ona zure landan erain? Nondik du beraz hiraka? Eta ihardetsi zioten : Etsaiaren lana da hori. Sehiak erran zioten, berriz : Nahi duzu, goazen, eta bil

detzagun hirakak? Eta ihardetsi zuen : Ez ; beldurrez-eta hiraken biltzean, hekiekin errotik athera dezazuen ogia. Uztaraino utzatzue guziak handitzera eta uztaroan erranen diotet ephaileei : Bil zazue lehenik hiraka, eta ezpalka loth zazue erretzeko ; ogia berriz, ene selhaurura bilzazue.

TRUFANIATIK SEIGARREN IGANDEA

MUSTARDA BIHIA ETA ALTCHAGARRIA (S. Matth. XIII, 31-36.)

Orduan Jesusek atheratu zaroeten bertze parabola bat ere, zioelarik ; zeruetako erresumak iduri du mustarda bihia, gizonak hartzen eta bere landan eraiten duena. Hazi guzietarik hura da cheheena ; bainan handitu denean, belhar guziak baino larriago da, eta arbola bilhakatzen da, haletan non zeruko choriak ethortzen, eta haren adarretan egoten baitire.

Erran zioten oraino bertze parabola bat : Zeruetako erresumak iduri du altchagarria, emazteki batek hartu eta hirur neurri irinetan nahastekatzen duena, orhe guzia haz dadien arteo.

Jesusek horiek oro paraboletan erran ziozkan populuari ; eta hitz estalitan baizik etzitzayoen mintzatzen, bethe zadientsat profetaren erran hau : Paraboletan idekiren dut ene ahoa, agorturen ditut munduaren hastapenetik hunat gordeak zaudezen gauzak.

SEPTUAGESIMAKO IGANDEA

MAHASTI-LANGILEEN PARABOLA (S. Matth. XX, 1-17.)

Orduan Jesusek athera zuen dizipulueri parabola hau : Zeruetako erresumak iduri du etcheko jaun bat, zeina goiz lehenetik ilkhi baitzen bere mahastikotzat langile hartzera. Bada, langileekin eguneko denario banaz hitzarturik, bidali zituen bere mahastira. Eta hirugarren oreneko irian atheraturik, ikhusi zituen bertze batzu plazan alfer.

Eta erran zioten : Zuek ere zoazte ene mahastira, eta emanen darotzuet zuzen ditakeena. Eta goan ziren. Berriz-ere ilkhi zen seigarren eta bederatzigarren orenetako ingurutsuan, eta orobat egin zuen. Azkenekoz, hamekagarren orenaren gainera ilkhi zen, eta bertze batzu aurkhitu zituen, han zaudela, eta erraten diote : Zertan zaudezte hor egun guzia alferrik? Ihardesten diote : Nihork ez gaitu hartu. Erraiten diote : Zoazte zuek ere ene mahastira.

Bada, arratsa ethorri denean, mahastiaren jabeak erraten dio bere etcheko gizonari : Deith zatzu langileak, eta emozute beren saria, azkenekoetarik hasirik lehembizikoetaraino. Hurbildu zirenean beraz hamekagarren orenaren gainera ethorri zirenak, izatu zuten denario bana. Bada, ethorri zirenean lehembizikoak, uste izan zuten gehiago izanen zutela ; bainan hekiek ere denario bana izan zuten. Eta hartzean, erasiaka hari ziren etcheko jaunaren kontra, zerratelarik : Azken horiek oren bat haritu dire lanean, eta gurekin, egun osoko beroa eta nekhea jasan dugunekin bardin egin ditutzu ! Bainan harek hekie-tarik bati ihardestean erran zuen : Adiskidea, bidegaberik ezdarotzut egiten ; etzare denario batez enekin hitzegina? Har zazu zurea dena eta zoaz ; bada azken huni ere nahi diot zuri bezembat eman. Ala nahi dudanaren egitera ez othe naiz haizu? ala zure begia gaichto da, ni naizelako z ona? Horrela izanen dire azkenak lehen, eta lehenak azken ; ezen hainitzak dire deithuak, guti ordean hautatuak.

SEXAGESIMAKO IGANDEA

ERAILEAREN IDURIPENA (S. Luc. VIII, 4-16.)

Orduan, nola, jendetze handiak bildu, eta lehiaka haren gana hirietarik heldu baitziren, erran zaroeten iduripenentan : Erailea ilkhi zen, bere haziaren eraitera ; eta eraiten zuelarik, liphar bat erori zen bide bazterrera, eta ostikatua izan zen, eta zeruko choriek jan zuten. Eta

bertze bat erori zen toki harritsu batera, eta sorthu ondoan ihartu zen, hezadurarik etzuelakoz. Eta bertze bat erori zen laphar arterat, eta lapharrak harekin batean handiturik itho zuten. Eta bertze bat lur onera zen erori, eta sorthurik eman zuen ehunetan bertze haimbertze. Horiek erratean, oihu egiten zuen : Aditzeko beharririk duenak, adi beza.

Bada, bere dizipuluek galdatzen zioten zer erran nahi zuen parabola horrek. Jesusek erran zaroeten : Emanazaitzue zuei ezagut dezazuen Jainkoaren erresumako misterioa, bainan bertzei iduripenetan, ikhustean ez dezaten ikhus, entzutean ez dezaten adi. Hau da beraz parabola : Hazia, Jainkoaren hitza da. Berriz, bide bazterreko bihiak, dire aditzen dutenak ; heldu da gero debrua, eta hekien bihotzetarik khentzen du hitza, sinhetsiz ez ditezen salba. Aldiz harrien arterat eroriak dire, aditu ondoan, hitza gogotik onhesten dutenak ; ez dute ordean errorik ; aphur bateko baita sinhestea, eta ukho egiten baitute tentazioneko orduan. Berriz, laphardira eroriak, dire entzun dutenak, eta geroaren ardurek, aberastasunek, bizitzeko atseginkeriek ithotzen dituzte, eta fruiturik ez dakharte. Bada, lur onerat eroriak, hainak dire zeinek bihotz on eta guziz onean hartu eta iduki baitute hitza, eta jasankortasunaren bidez fruitu ekhartzen baitute.

QUINQUAGESIMAKO IGANDEA

JESUSEK BERE PASIONEAZ HIRUGARREN AIPHUA ETA ITSU JERIKOTARRAREN SENDATZEA (S. Luc. XVIII, 31-44.)

Orduan Jesusek hartu zituen hamabiak, eta erran zioten : Huña non igaiten garen Jerusalemera, eta gizonaren Semeaz profetek iskribatu guziak bethetzera dihoazela. Ezen jandayen eskuetara arthikia, eta eskarniatua, eta azotatua, eta thuztatua izanen da ; eta azotatu ondoan, hilen dute, eta hirugarren egunean phizturen da. Bainan hekiek etzuten horietarik deusere ardietsi edo kompre-

nitu, eta solas hori hekientzat solas itsu bat zen, eta etzuten aditzen haren errana.

Bada, gerthatu zen, Jesus hurbiltzen zelarik Jerikora, itsu bat bide bazterrean, eske jarria zagoela. Eta nola aditzen baitzuen ostea iragaiten, galdatu zuen zer zen harramantza hura. Eta ihardetsi zioten. Jesus Nazaretharra zela iragaiten. Eta oihu egin zuen, ziolarik : Jesus, Dabiden semea, urrikal zakizkit. Eta aitzinenan zihoazenak, gaizkika hari zitzaizkon, ichilarazi beharrez. Harek ordean hainitz gorago egiten zuen oihu : Dabiden semea, urrikal niri. Gelditurik orduan, Jesusek manatu zuen erakhar ziozoten. Eta hurbildu zenean, erran zioen : Zer nahi duzu egin dezazudan? Eta harek ihardetsi zioen : Ikhus deza dan, Jauna. Eta Jesusek erran zioen : Ikhusazu, zure sinhesteak salbatu zaitu. Eta ordu berean ikhusi izan zuen, eta Jesusen ondotik zihoan, ospe Jainkoari bihurtuz. Eta populu guziak ere ikhusi zuenean hori, esker eman zioen Jainkoari.

GARIZUMAKO LEHEN IGANDEA

JESUSEN TENTAZIONEA (S. Matth. IV. 1-12.)

Orduan Izpirituak mortura eramane zuen Jesus, debruaz tentatua izateko. Eta berrogoi gau-egunez barur egin zuenean, gero gosetu zen. Eta tentatzaileak hurbildurik erran zioen : Zu balimbazare Jainkoaren Semea, errazu ogi bilhaka ditezen harri horiek. Jesusek ihardestean erran zioen : Iskribatua duk : Gizona ez da bakharririk ogiz bizi, baina Jainkoaren ahotikako hitz guziz.

Orduan debruak eramane zuen hiri saindura, eta temploaren kaskoan ezarri zuen. Eta erran zion : Jainkoaren Semea balimbazare, beheiti arthikazu zure burua. Iskribatua da ezen : Bere aingeruei eman zaituela gomen-dioz, eta beren eskuetan ekharriren zaituztela, oinaz jo ez dezazum harria. Jesusek ihardetsi zioen : Hau ere iskri-

batua duk : Zure Jainko Jauna ez duzu frogapenez behar-tuko edo tentatuko.

Debruak eraman zuen berriz mendi guziz gora batera ; eta erakhutsi ziozkan lurreko erresuma guziak, eta hekien ospea. Eta erran zioen : Emanen darozkitzut horiek oro, baldin lurrerat eroriz adoratzan banauzu. Orduan Jesusek erran zioen : Hoakit, Satan : iskribatua duk ezen : Adoraturen duzu zure Jainko Jauna, bai-eta hura bakharririk duzu zerbitzaturen. Orduan utzi zuen debruak, eta hara aingeruak hurbildu zitzaizkoela, eta zerbitzatzan zutela.

GARIZUMAKO BIGARREN IGANDEA

TRANSFIGURATZIONEAZ EDO ITCHURALDATZEAZ

(S. Matth. XVII, 1-10.)

Orduan Jesusek hartu zituen Piarres, Jakobe, eta Joanes, hunen anaya ; eta bazterrerat eraman zituen mendi gora batetara, eta itchuraldatua izan zen hekien aitzinean. Haren begitharteak argitzen zuen hala nola iguzkiak ; eta haren soinekoak egin ziren churi elhurra bezala. Eta hara dizipuluen begietara agertu zirela Moises eta Elias, Jesusekin solasean. Orduan mintzatzuz, Piarresek erran zaroen Jesusi : Jauna, ongi gare hemen ; nahi baduzu, hementche detzagun egin hirur etchola, bata zure, bertzea Moisesen, eta bertzea Eliasen. Eta mintzo zelarik oraino, hara hedoi, argi batek itzali zituela. Eta hara hedoyetik mintzo bat, zerrana : Hau da ene Seme maitea, zeinaren baithan ezarri baitut ene gogo guzia ; hau entzun zazue. Eta aditzearekin, dizipuluak erori ziren ahuspeka, eta izialdura handia lothu zitzaizoten. Eta hurbildu zitzaizoten Jesus, eta ukitu zituen ; eta erran zaroeten : Chuti zaitezte, eta ez izan beldurrik. Orduan, begiak goititzean, etzuten ikhusi nihor, Jesus bera bakharra baizik. Eta menditik jaustean, Jesusek manatzuz erran zioten : Nihori ez erran zer ikhusi duzuen, hiletarik phitz dadien artio gizonaren Semea.

GARIZUMAKO HIRUGARREN IGANDEA

DEBRUAK HARTU BATEN SENDATZEA

(S. Luc. XI, 14-29.)

Orduan Jesus abiatu zen debru baten iraizten, eta debru hura mutua zen. Eta debrua iraizi zuenean, mintzatu zen mutua, eta jendeak harrituak zauden. Bainan hekie-tarik batzuek erran zuten : Beelzebubez, debruen buru-zagiaz, iraizten ditu debruak. Eta bertze batzuek, hura zertan froga, galdatzen zioten zerutikako sendagaila zer-bait. Bainan Jesusek ikhusi baitzituen hekien gogoetak, erran zioten : Bi aldetara dagoen erresuma chahutua izan-nen da, eta bera berari jazarria den etcheak leher eginen du. Eta Satan bere baithan bi aldetara zeihar badago, nola dirauke haren erresumak? diozue ezen Beelzebubez iraizten ditudala debruak. Beraz nik Beelzebubez iraizten baditut debruak, nortaz iraizten dituzte zuen hurrek? Hargatik berak izanen dire zuen juye. Bainan nik Jainkoaren erhiaz iraizten baditut debruak, ezagun da zueta-raino heldua dela Jainkoaren erresuma.

Hazkarrak harmekin zaintzen duenean etche sartzea, segurean dire haren onak. Bainan hazkarrago batek ethor-ririk garhaitzen badu, eramanean diozka harma guziak, zeinen gainean baitzen fida, eta haren buluzkinak emanen ditu bertzeeri. Enekilako ez dena, ene kontra da ; eta enekin biltzen hari ez dena, barrayutzen hari da.

Izpiritu lobia gizon baten ganik ilkhi denean, lekhu agorretan gaindi dabila, phausu eske ; eta ez aurkhituz, erraten du : Itzuliko naiz ene etchera, zeintarik bainaiz ilkhi. Eta heldu denean, kausitzen du garbitua jatsaz, eta aphaindua. Orduan badoha, berekin hartzen ditu bertze zazpi izpiritu, bera baino gaichtoagoak, eta barnera sar-thurik, han egiten dute here egoitza. Eta gizon haren azken zoria egiten da lehembizikoa baino gaitzagoa.

Bada, horiek erraten zituelarik, emazteki batek, mintzoa goratuz jendeen erditik, erran zuen : Zorionezkoa zu

ekharri zaituen sabela, eta zuk egoski ditutzun bulharrak. Eta Jesusek ihardetsi zuen : Dohatsuago Jainkoaren hitza entzuten, eta begiratzen dutenak.

GARIZUMAKO LAUGARREN IGANDEA

JESUSEK LEHEN ALDIKOTZ BOST OGI EMENDATZEN DITU
(S. Joann. VI, 1-16.)

Orduan Jesus goan zen Galileako, erran nahi Tiberiasako itsasoaz haindira ; eta bazarraikion jendetze handia, eri zirenen gainean egiten zituen sendagailak ikhusten baitzituzten. Aldaratu zen beraz mendi batetara Jesus, eta han jarria zagoen bere dizipuluekin. Bada, hurbil zen Bazko, Juduen besta eguna. Jesusek begiak goititu, eta ohartu zenean oste bat gaitza heldu zitzayoela, erran zioen Filiperi : Nondik erosiko dugu ogia, jan dezaten horiek orok? Bada, haren frogatzeko erraten zuen hori ; bazakien zeren egitera zihoan. Filipek ihardetsi zioen : Berrehun denarionen ogia ere ez lukete aski, bakhotchak izpi baten izateko. Bere dizipuluetarik bertze batek, Andres, Simon Piarresen anayak, erraten dio : Bada hemen muthiko bat, bortz garagar ogi eta bi arrain dituena ; bainan zer da hori humembat gizonen arteko? Jesusek erran zuen beraz : Jarrarazkitzue. Bada, toki hartan ederra zen beharra. Eta jarri zen bortz mila gizonen heina. Jesusek hartu zituen beraz ogiak ; eta eskerrak bihurtu ondoan, zathitu ziozkaten jarriak zirenei, eta arrainetarik halaber, nahi zuten bezembat. Ase zirenean, berriz erran zioten dizipuluei : Bil zatzue soberatu diren puskek, gal ez dituzten. Bildu zituzten beraz, eta bortz garagar ogietarik jaleei soberatu puskez bethe zituzten hamabi saski. Gizon hekiek beraz, ikhusi zutenean Jesusek egin sendagaila, erraten zuten : Hau da egiazki mundurat ethortzekoa den profeta hura. Jesusek ezagutu baitzuen ordean, ethortzekotan zirela haren hartzera, eta errege egitera, berriz mendira ihes egin zuen bakharrak.

PASIONEKO IGANDEA

JESUSEK JAINKO DELA DIO (S. Joann. VIII, 46-59.)

Orduan Jesusek erraiten zuen Judueri : Norķ zuetarik frogaturen darot bekhatu bat? Baldin egia erraten bada-rotzuet, zergatik ez nauzue sinhesten? Jainkoaren gani-kakoa denak, Jainkoaren hitzak entzuten ditu. Hargatik ez ditutzue zuek entzuten, etzaretelakoz Jainkoaren gani-kakoak. Horren gainean, Juduek ihardetsi eta erran zioten : Gure hitza ez othe da ongi errana, Samariar bat zarela, eta debrua duzula zurekin? Jesusek ihardetsi zuen : Ez da debrurik enekin ; bainan ohore bihurtzen diot nik ene Aitari, eta zuek niri desohore. Ni ordean ez nabila enetzat ospeketa ; bainan bada dabilana eta juyatzen duena. Egiazki derratzuet, egiazki, nork-ere begiraturen baitu ene hitza, hainak ez du nihoiz ere ikhusiren herioa. Juduek erran zioten beraz : Orai ezagutzen dugu debrua duzula. Hil izan da Abraham, eta profetak ere-bai ; eta diozu zuk : Norbaitek ene hitza begiratzen badu, harek ez du nihoiz heriotzea jastaturen. Ala gehiago zare zu ezenez Abraham gure aita, zeina hil izan baita? hil izan dire pro-fetak ere. Nor egiten duzu zure burua? Jesusek ihardetsi zuen : Ospe ematen badiot ene buruari, deusik ez da ene ospea ; niri ospe ematen darotana da ene Aita, zeina baiterrazue zuen Jainkoa dela. Eta ez duzue ezagutu halere, nik bai ordean, ezagutzen dut ; eta erran baneza ez dudala ezagutzen, zuen iduriko ninteke, gezurti. Bai-nan ezagutzen dut, eta begiratzen dut haren hitza. Abra-ham, zuen aita, lehiatu izan da ene egunaren ikhustera ; ikhusi du, eta bozkariotan sarthu da. Horren gainean, Juduek erran zioten : Ez dituzu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta zuk ikhusi baituzu Abraham? Jesusek ihardetsi zaroeten : Egiazki derratzuet, egiazki, ni banaiz, Abraham izan den baino lehenagodanik. Orduan Juduek hartu zituzten harriak, Jesusi arthikitzeke ; bainan itzali zen Jesus, eta ilkhi zen templotik.

ERRAMUKO IGANDEA

JESUSEN PASIONEA (S. Matth. XXVI-XXVII.)

Orduan, Jesusek erran zioten bere dizipuluei : Badakizue bi egunen buruan eginen dela Bazkoa, eta gizonaren Semea saldua izanen da gurutzefikatua izateko.

Batzarrea Jesusen atzemateko eta hiltzeko. — Orduan aphezetakó aitzindariak eta populuko zaharrak bildu ziren aphez handi, Kaiphas deitzen zenaren salhara ; eta batzarre egin zuten Jesusen atzemateko amarruz, eta haren hilarazteko. Bainan erraten zuten : Ez besta egunean, populua builetan sar dadien beldurrez.

Jesus Bethanian gantzutua. — Bada, nola Bethanian baitzen Jesus, Simon legentsuaren etchean, emazteki bat hurbildu zitzayoen, albatrazko untzi bat eskuan, balio handitako gantzugailu batez bethea, eta buruaren gainera ichuri zioen mahainean zelarik. Aldiz dizipuluek ikhusi zutenean, gaizki hartu zuten, zerratelarik : Zertako galtze hori? Ezen kario sal, eta beharrei eman zitaken. Jesusek ordean baitzakien zer zerasaten, erran zaroeten : Zergatik egiten diozue damurik emazteki huni? Ezen hunek niri egin dautana, ongi da ; ezen beharrak baditutzue bethi zuekin ; bainan ni ez nauzue izanen bethi. Alabainan ene gainera ichuri duenean gantzugailu hau, ene ehorzpenaren ariaz egin du. Egiaz derratzuet, edozein tokitan Ebanjelio hau erantzun dadien mundu guzian, hunek egin duena ere hunen orhoitzapenetan izanen dela aiphatua.

Judasen traidorekeria. — Orduan hamabietarik bat, Judas Iskariot deitzen zena, goan zen aphezen buruzagietara ; eta erran zaroeten : Zer nahi darotazue eman, eta nik eskuetaraturen darotzuet? Eta hekiek agindu ziozkaten hogoi eta hamar zilharrezko. Eta geroztik paradaketa zabilan, hekiei eskuetara emateko Jesus.

Azken apairuaren aphaintzea. — Bada, airisetako lehembiziko egunean, dizipuluak ethorri zitzaizkon Jesusi, ziotelarik : Non nahi duzu aphain dezazugun Bazkoa jateko? Jesusek aldiz ihardetsi zioten : Hirira zoazte hulakoaren gana, eta errozue : Nausiak dio : Hurbil da ene eguna ; zure etchean egiten dut Bazkoa ene dizipuluekin. Eta dizipuluek egin zuten Jesusek manatu bezala, eta aphaindu zuten Bazkoa.

Legearen araberrako apairua. — Arratsa ethorri zenean beraz, mahainean jarri zen bere hamabi dizipuluekin. Eta jaten hari zirelarik, erran zaroeten : Egiaz derratzuet, zuetarik batek salduko nauela. Eta atsekabe handitan, abiatu zitzaizkon zein bere aldetik galdeka : Jauna, ni othe naiz hura? Jesusek ihardetsi zuen : Jatekoan enekin eskua bustitzen duenak, hainak nau salduko. Bada, gizonaren Semea badihoa, hartaz iskribatua izan denaren arabera ; baina zorigaitz gizonaren Semea salduko duenari ! hainak hobe zukeen, egundaino sorthu ez balitz. Judasek, saldu zuenak, ihardestean erran zioen : Nausia, ni othe naiz? Ihardetsi zioen : Erran duzu.

Gorphutz Sainduaren establitzea. — Bada, afariten hari zirelarik, Jesusek hartu zuen ogia, benedikatu zuen eta hautsi, eta eman zioten bere dizipuluei, zioelarik : Har zazue, eta jan ; hau ene gorphutza da. Eta edateko untzia harturik, eskerrak bihurtu zituen, eta eman zaroeten, zioelarik : Huntarik edan zazue guziek. Hau da ezen ene odola testament berrikoa, hainitzentzat ichuriko dena. Erraten darotzuet bada, ezdudala oraidanik harat edanen mahats-arno huntarik ene Aitaren erresuman zuekin berritan edanen dukedan eguneraino.

Piarresen hirur erorikoak. — Eta eskerrak erranik, ilkhi ziren Olibetako mendira. Jesusek erran zioten orduan : Gau huntan zuek guziek gaizbide izanen duzen nitan. Iskribatua da ezen : Joko dut artzaina, eta barraya-

tuko dire arthaldeko ardiak. Bainan hiletarik phiztuko naitzenean, aitzinduko zaituztet Galileara. Bada, Piarresek ihardetsiz erran zioen : Bertze guziei zu gaizbide izanik ere, niri nehoiz etzitzaitzat izanen. Jesusek erran zioen : Egiaz derratzut nik, gau huntan, oilarrak jo baino lehen, hiruretan nauzu ukhaturen. Piarresek ihardetsi zioen : Zurekin hil behar banintz ere, etzintzazket ukha. Eta gauza bera erran zioten bertze dizipulu guziek ere.

Jesusen agonia. — Orduan Jesus hekiekin ethorri zen Jethsemani deitzen zen bazter batetara, eta erran zioten bere dizipuluei : Zaudezte hemen, harache othoitz egitera nohan artean. Eta harturik Piarres, eta Zebedeoren bi semeak, hasi zen ilhuntzen eta atsekabetan sartzen. Erran zioten orduan : Beltz da ene arima hiltzeko heineraino ; igurikazue hemen, eta zaudezte atzarriak enekin.

Eta aitzinachago goanik, erori zen begithartez lurrera, othoitz egiten zuelarik eta erraten : Ene Aita, ahal badaite, kalitza hau urrun bedi ni ganik ; guzia gatik, ez nik nahi bezala, bainan zuk bezala. Eta ethorri zen bere dizipuluetara, eta lo atzeman zituen, eta erran zioen Piarresi : Zer bada ! oren bat ezin egon zarete enekin atzarririk ? Zaudezte erne eta egizue othoitz, tentazionetara sar etzaitzten. Ezik ernea da izpiritua, bainan haragia flucha. Berriz goan zen bigarren aldian, eta othoitz egin zuen, zioelarik : Ene Aita, kalitza hau ez badaite urrun non ez dudan edaten. egin bedi zure nahia. Eta berriz ethorri zen, eta atzeman zituen lo ; ezen nagituak ziren hekien begiak.

Eta hekiek utzirik, goan zen berriz ere, eta hirugarren aldian othoitz egin zuen, hitz berak erranez. Orduan heldu da bere dizipuluetara, eta erraten diote : Orai egizue lo, eta phausa zaitzte; huna hurbildua dela orena, eta gizonaren Semea gaichtaginen eskuetara dihoa. Jaiki zaitzte, goazen ; huna non hurbildua den ni saldu behar nauena.

Juduek preso eremaiten dute Jesus. — Oraino mintzo zelarik, Judas, hamabietarik bat, ethorri zen, eta harekin gizon multzo handi bat, ezpatekin eta makhilekin, aphez buruzagiek, eta populuko zaharrek igorriak. Bada, Jesus saltzen zuenak eman zaroeten ezagutkari bat, erranez : Zeini-ere musu emanen baitiot, hura izanen da, loth zakizkiote. Eta berehala hurbildurik Jesusi, erran zioen : Agur, Nausia. Eta musu eman zioen. Eta Jesusek erran zaroen : Adiskidea, zertara ethorri zare? Orduan hurbildu ziren, eskuak eman zituzten Jesusen gainean, eta hartu zuten.

Eta hara Jesusekin zirenetarik batek, eskua hedaturik, atheratu zuela bere ezpata, eta aphez handiaren sehi bat jorik, moztu zioen beharria. Orduan Jesusek erran zioen : Bihur zazu ezpata bere tokira ; ezen ezpata hartuko duten guziak, ezpatatik gcanen dire. Ez duzu uste othoitz dezakedala ene Aita, eta igor letzakedala hamabi aingeru aralde baino gehiago? Nola betheko dire beraz Iskribuak, haukiek hola gerthatu behar direla diotenak? Ordu berean Jesusek erran zioten oste hekiei : Ohoin baten ondoan bezala ezpatekin eta makhilekin ilkhi zarete ene hartzera ; egun oroz zuen erdian jarria nindagoen temploan irakhas-ten nuelarik, eta ez nauzue hartu. Bada, hori oro gerthatu izan da, bethe zadientsat profetek iskribatu dutena. Orduan dizipulu guziek, Jesus utzirik, ihes egin zuten.

Jesus aphez handiaren aitzinean. — Berriz, Jesus hartua zadukatenek, eramán zuten Kaiphasen, aphezen buruzagiaren gana, zeinaren etchean bilduak baitziren Iskribauak eta zaharrak. Aldiz Piarres urrundik jarraikitzen zitzayoen Jesusi, aphezen buruzagiaren ezkaratzeraino. Eta barnera sarthurik, sehiekin jarria zagoen, akhabantzaren ikhustea gatik. Bada, aphezetako buruzagiak, eta biltzarra guzia, gezurrezko lekhukotasun baten bilha zabiltzan Jesusen kontra, hunen hilarazteko ; eta etzuten aurkhitu, asko lekhuko gezurti agertu ziren arren.

Azkenean ethorri ziren bi lekhuko gezurti, eta erran

zuten : Horrek erran izan du : Jainkoaren temploa urra dezaket, eta chuti hirur egunen buruan. Eta jaikirik, aphezen buruzagiak erran zioen : Ez duzu deus ihardesten gizon haukiek zure kontra lekhukotasun egiten duten gauzei? Bainan Jesus ichilik zagoen. Eta aphez handiak erran zioen : Jainko biziaz errekeitzen zaitut erraguzun hean zu zaren Kristo, Jainkoaren Semea. Jesusek ihardesten dio : Erran duzu ; nik derratzuet hargatik, egun batez ikhusiren duzuela gizonaren Semea Jainko guzizkoaren eskuinean jarria, eta dathorla zeruko hedoyen gainean. Orduan aphez handiak urratu zituen bere soinekoak, zioelarik : Burhoa egin du ; zer behar dugu oraino lekhukorik? Horra non aditu duzuen burhoa, zer zaitzue? Eta ihardetsi zuten hekiek : Hiltzea du merezi. Orduan abiatu zitzaizkon begithartera thuka, ethendu zuten ukhabil ukhaldika ; bertze batzuek berriz, begithartean jo zuten zaflakoka, ziotelarik : Profetisa guk, Kristo ; nor da jo hauena?

Piarresek hirur aldiz ukhatzen du Jesus. — Bada, Piarres kampoko aldean zagoen, ezkaratzean jarria ; eta neskatcha bat hurbildu zitzayoen, zerralarik : Jesus Galilearrarekin hintzen hi ere. Bainan harek ukhatu zuen guzien aitzinean, zioelarik : Ez dakit zer derrazun. Eta nola athetik ilkhitzen baitzen, bertze neskatcha batek ikhusi zuen, eta han zirenei erran zioten : Jesus Nazaretharekin zen hori ere. Eta zin eginez, berriz ukhatu zuen Piarresek, zioelarik : Ez dut ezagutzen gizon hori. Eta aphur baten buruan han zaudenak hurbildu ziren, eta erran zioten Piarresi : Egiazki hi ere horietarik haiz ; ezen hire hizkuntzak salhatzen hau. Orduan hasi zen zinka eta arneguka etzuela gizona ezagutzen. Eta orhoitu zen Piarres Jesusek erran hitzaz : Oilarrak jo dezan baino lehen, hiruretan nauzu ukhaturen. Eta kamporat ilkirik, ichuri zituen nigar minak.

Bada, ethorri zenean goiza, aphezetako aitzindari guziek eta populuko zaharrek Jesusen kontra biltzar egin

zuten, haren hilaraztekotzat. Eta estekatua eramán zuten, et Ponzio Pilato gobernadorearen eskuetara eman zuten.

Judasek bere burua urkhatzen du. — Orduan ikhusirik egin zela Jesusenaz, Judas, haren saltzaileak, urrikiak eramánik, aphez aitzindariari eta zaharrei gibelerat ekharri ziozkaten hogoi eta hamar zilharrezkoak, zerralarik : Bekhatu egin dut, hobengabeko odola salduz. Bainan hekiek ihardetsi zioten : Guri zer dihoakigu? hire ikhustekoa duk. Eta temploan arthikirik dirua, goan zen, eta urkhatu zuen bere burua. Aphez aitzindariak ordean, diruak bildurik, erran zuten : Temploko khutchan haukien ezartzea ez da zilhegi zeren diren odolaren saria. Bada, beren artean egon ondoan, diru hartaz erosi zuten bacheregile baten landa, arrotzen ehorts lekhutzat. Hargatik landa hura egungo eguna arteo deitzen da Hazeldama, erran nahi baita odol-landa. Orduan bethe zen Jeremias profetaren ahoko hitza, erran zuenean : Eta hartu dituzte hogoi eta hamar zilharrezko, saldua izan denaren, eta Israelgo umeei erosi dutenaren saria ; eta eman dituzte bacheregile baten landaren truk, Jaunak niri manatu bezala.

Jesus Pilatusen aitzinean. — Bada, Jesus agertu zen gobernadorearen aitzinera ; eta harek bilhatu zuen, zerralarik : Zu zare Juduen errege? Jesusek ihardetsi zaroen : Diozu. Eta nola asko gauzaz jazartzen baitzioten aphez aitzindariak eta zaharrek, etzuen deusere ihardetsi. Orduan Pilatussek erraten dio : Ez duzu aditzen zembat lekhukotasun ekhartzen duten zure kontra? Eta etzioen hitz bat ihardetsi, haletan non Pilatus handizki harritzen baitzen.

Bada, besta-buru egunean, gobernadoreak ohi zuen populuari uztea presoner bat, nahi zutena. Aldiz, orduan burdinetan zadukan gaichtagin bat aiphatua, Barrabas deitzen zena. Bilduak zirelarik beraz, Pilatussek erran zioten : Zein nahi duzue utz dezazuedan : Barrabas, ala Jesus, Kristo deitzen dena? Bazakien alabainan bekhaizgoz eman ziotela eskuetara. Bada, juye alkhian jarria zagoe-

larik, bere emazteak igorri zioen erratera : Ez bedi deusere izan zure eta gizon justu horren artean ; ezik egun ametsetan hainitz jasana nago horren ariaz. Bizkitartean aphez aitzindariak eta zaharrek bildu zuten populua Barrabasen galdatzera, eta Jesusen galaraztera.

Pilatusek, hekiei mintzatuz, erran zuen : Bietarik zein nahi duzue utz dezazuedan? Eta hekiek ihardetsi zuten : Barrabas. Pilatusek erraten diote : Zer eginen dut bada Jesusez, Kristo deitzen denaz? Orok ihardesten dute : Bedi gurutzefika. Eta Pilatusek derrote : Bainan zer gaizki egin du? Hekiek ordean oihu gehiago zaramaten, erranez : Gurutzefikatua izan bedi. Bada, Pilatusek ikhusirik etzuela deusere atheratzen, aitzitik tarrapata geroago eta gaitzago zihoala, harturik ura, populuaren aitzinean garbitu zituen eskuak, erraten zuelarik : Ni behintzat justu hunen odoletik garbi naiz ; zuen ikhustekoa da. Eta populu guziak inardetsiz, erran zuen : Gure gain horren odola, eta gure hurren gain. Orduan utzi zioten Barrabas, eta azotarazirik Jesus, eskuetara eman zaroeten gurutzean izan zadientsat ezarria.

Jesus arrantzez khorroatua. — Orduan gobernadorearen soldadoek, pretoriora harturik Jesus, haren ingurura bildu zuten andana guzia. Eta biluzirik Jesus, kapa gorri bat eman zioten soinera ; eta elhorriz bihurturik khorobat, ezarri zioten buruan, eta khanabera edo seska bat eskuineko eskuan. Eta belhaunaz lurra joz haren aitzinean, eskarniatzen zuten, zerratelarik : Agur, Juduen errege. Eta gainerat thu eginez, hartzen zioten khanabera, eta hartaz jotzen burua.

Gurutzearen bidea. — Eta burlatu zuten ondoan, kapa khendu-eta, jauntzi ziozkaten bere soinekoak, eta eramane zuten gurutzefikatuzera. Bada, ilkhitzen zirelarik, atzeman zuten Zirenear gizon bat. Simon deithua ; bortchatu zuten, Jesusen gurutzearen eramatera. Eta ethorri ziren Golgotha deitzen den lekhura, erran nahi baita Kalbarioko tokira.

Eta edatera eman zioten arnoa minagrearekin nahasirik. Eta jastatu zuenean, etzuen edan nahi izan.

Jesusen gurutzefikatzearen eta hiltzearen chehetasuna
— Gurutzefikatu zuten ondoan, berriz, beren artean zorthera berezi zituzten haren soinekoak, bethea izan zadien profetaren erran hau : Ene soinekoak berezi dituzte beren artean, eta zorthea arthiki dute ene soingainekoaz. Eta jarririk, haren zain zaudezen. Eta haren buruaren gaineko aldean iskribuz ezarri zuten haren heriotzeko aria : HAU DA JESUS, JUDUEN ERREGE. Orduan harekin gurutzefikatuak izan ziren bi ohoïn : bata eskuinetarik, eta bertzea ezkerretarik. Eta han iragaiten zirenak, buruak dardaratuz, ahapaldika hari zitzaizkon, ziotelarik : Hean ! Jainkoaren temploa urratzen eta gero hirur egunen buruan berritzen dukana, athera zak hire burua ; Jainkoaren Semea balimbahaiz, jauts hadi gurutzetik. Halaber, aphez aitzindarietarik ere, Iskribauekin eta zaharrekin trufatuz, erraten zuten : Bertzeak atheratu ditu, eta bere burua ezin athera dezake ; Israelgo errege bada, orai jauts bedi gurutzetik, eta sinhetsiko dugu horren baithan. Jainkoaren gainean da fida : harek orai athera beza, gogarako balimbadu ; erran du ezen : Ni naiz Jainkoaren Semea. Aldiz, harekin gurutzefikatuak ziren ohoïnek ere, irri egiten zioten.

Bada, seigarren orenetik bederatzigarreraino, ilhumbeak hartu zuen lur guzia. Eta bederatzigarren orenaren inguruan, Jesusek hazkarki oihu egin zuen, erranez : Eli, Eli, lamma sabacthani? erran nahi baita : Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu? Aldiz, hori aditurik, begira zauden batzuek, erran zuten : Eliasi egiten dio dei edo oihu. Eta berehala hekietarik batek laster eginik hartu zuen esponja bat, minagrez bethe, eta khanabera baten muthurrean ezarririk, edatera ematen zioen. Bertzeek berriz, erraten zuten : Bego, dugun ikhus, hean ethorriko zayoën Elias libratzera.

Bainan Jesusek, berriz-ere oihu handi bat eginik, arthiki zuen hatsa.

Ordu berean temploko beloa gainetik beherera bi erdi egin zen, ikharatu zen lurra, harriak arraildu ziren, hobiak zabaldu ziren, eta hilak ziren sainduen gorphutz hainitz phiztu ziren. Eta beren hobietarik ilkhirik, Jesus phiztu ondoan, hiri saindura ethorri ziren, eta askori agertu zitzaizkoten. Bada, Ehuntariak eta harekin Jesusen zain zaudezenek, ikhusi zituztenean lur ikhara eta bertze gerthatzen ziren guziak, izitu ziren borthizki, eta zerraten : Hau egiazki Jainkoaren Semea zen. Urrundik berriz, bazagoen han emazteki multcho bat, Jesusi Galileatik jarraikia, hura zerbitzatzuz : hekien artean ziren Maria Magdalena, Maria Jakoberen ama, eta Josepena, eta Zebedeoren semeen ama.

Jesusen ehorztea. — Berriz, arratsa egin zenean, ethorri zen Arimathiar gizon aberats bat, Josep deitzen zena, zeina baitzen hura ere Jesusen dizipulua. Pilatusi goan zitzayoen hura, eta galdatu zioen Jesusen gorphutza. Orduan Pilatussek manatu zuen eman zakioen. Eta gorphutza harturik, mihise churi batean inguratu zuen Josepek. Eta ezarri zuen bere hobi berri, harroka bizian egina zuen batean. Eta harri handi bat hurbildu zuen hobiaren ahora, eta goan zen. Maria Madgalena berriz, eta bertze Maria han zauden, hobiaren aldean jarriak.

Hau kxanthatzen du aphezak. — Bada, biharamunean, hura baitzen larumbat eguna, aphezen aitzindariak eta Farisauak batean goan ziren Pilatusen gana, ziotelarik : Jauna, orhoitu gare enganatzaile horrek, oraino bizi zelarik, erran izan duela : Phizturen naiz hirur egunen buruan. Mana zazu beraz, hobia hirurgarren eguneraino izan dadien zaindua, beldurrez-eta ethor ditezen horren dizipuluak, eta ebats dezaten, eta populuari derroten : Hiletarik phiztu da ; eta hala azken enganioa lehenetik areagoa lizate. Pilatussek ihardetsi zioten : Badituzue zaintzaleak ; zoazte, zain zazue zuen gogora. Goan ziren beraz, segurtatu zuten hobia, harria zigilatuz eta zainak ezarriz.

BAZKO EGUNAN

EMAKUME DEBOTAK HOBIAN (S. Marc. XVI, 1-8.)

Orduan, Maria Magdalenak, eta Maria Jakoberenak, eta Salomek baltsamuak erosi zituzten, Jesusen gantzutzero goateko. Eta asteko lehen egunean, goizean goizik ethorri ziren hobira, iguzkia atheratu orduko. Eta zioten, beren artean : Nork aldaratuko daroku hobi sartzetik harria? Gaitza zen alabainan. Eta begiratzearekin, ikhusi zuten harria aldaratua. Eta hobian sartzean, ikhusi zuten gizon gazte bat eskuineko aldean jarria, soineko churitan, eta laztu ziren. Gizon gazteak erraten diote : Ez izi ; Jesus Nazarethekoa, gurutzefikatua izan dena, bilhatzen duzue ; phiztua da, ez da hemen, huna non ezarri zuten. Bainan zoazte, errozute dizipuluei, eta Piarresi, aitzintzen zaituztela Galileara ; han duzue ikhusiren, berak erran izan darotzuen bezala.

BAZKOTIK LEHEN IGANDEA

(QUASIMODO)

JESUSEN AGERTZEA APOSTOLUERI (S. Joann., XX, 19-31.)

Orduan, larumbat biharamunean, arratsa zelarik, eta Juduen beldurrek atheak hetsiak zirelarik dizipuluak bilduak zauden tokian, ethorri zen Jesus, eta erdian baratu, eta erran zioten : Bakea zuei. Eta hori erran ondoan, erakhutsi ziozkaten eskuak eta sahetsa. Dizipuluak beraz bozkariotan sarthu ziren, Jauna ikhusirik. Eta erran zaroeten berriz : Bakea zuei. Ni Aitak bidali nauen bezala, nik ere bidaltzen zaituztet zuek. Horiek erranik, hats egin zuen hekien gainera, eta erran zioten : Har zazue Izpiritu saindua : bekhatuak barkhatuko diozkatzuetenei, barkhatuak izanen zaizkiote ; eta idukiko diozkatzuetenei, izanen zaizkiote idukiak. Bada, Thomas, hamabietarik

bat, Didimo deitzen zutena, etzen hekiekin Jesus ethorri zenean. Erran zioten beraz bertze dizipuluek : Ikhusi dugu Jauna. Harek aldiz ihardetsi zioten : Non ez ditudan ikhusten haren eskuetan itzeen zilhoak, eta ez dudan ene erhia ezartzen itzeen tokian, eta ematen ez dudan ene eskua haren sahetsean, ez dut sinhetsiren.

Eta handik zortzi egunen buruan, Jesusen dizipuluak barnean ziren berriz ere, eta hekiekin zen Thomas. Jesus ethorri zen, atheak hertsia zirelarik, eta eman zen hekien erdian, eta erran zioten : Bakea zuei. Gero erraten dio Thomasi : Ekhar zazu hunat zure erhia, eta ikhusatzu ene eskuak ; hurbil zazu zure eskua, eta ezar zazu ene sahetsean ; eta ez izan sinhetsgaitz, bai ordean sinheskor. Thomasek ihardetsi, eta erran zioen : Ene Jauna, eta ene Jainkoa. Jesusek erran zioen : Ikhusi nauzulakoz, Thomas, sinhetsi duzu ; dohatsu ez ikhusi, eta sinhetsi dutenak.

Bada, Jesusek egin izan du bere dizipuluen aitzinean bertze asko mirakuilu, liburu huntan emanak ez direnak. Haukiek aldiz iskribatuak izan dire, sinhets dezazuentzat ezen Jesus dela Kristo, Jainkoaren Semea, eta sinhetsirik, haren izenean izan dezazuen bizitzea.

BAZKOTIK BIGARREN IGANDEA

ARTZAIN ONA (S. Joann., x, 11-17.)

Orduan Jesusek erran zuen Farisaueri : Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du bere ardientzat. Bainan saritako gizonak, eta artzain ez denak, norenak ez baitire ardiak, ikhusten du otsoa dathorla, eta uzten ditu ardiak, eta ihes badoa ; eta otsoak ardiak harra-patzen, eta barrayutzen ditu. Bada, saritako gizona ihesari ematen da, sarizale delakoz, eta ardiez ez baitihoakio. Ni naiz artzain ona, eta ezagutzen ditut ene ardiak, eta eneez ezagutzen naute. Hala nola ezagutzen bainau ene Aitak, eta nik ezagutzen baitut ene Aita, eta ene ardien gatik demat ene bizia. Baditut bertze ardi batzu ere,

hespil huntakoak, eta hekiek ere erakharri behar ditut ; eta entzunen dute ene mintzoa, eta arthalde bakhar bat eta artzain bakhar bat izanen da.

BAZKOTIK HIRUGARREN IGANDEA

ORAIKO ATSEGABEA BOZKARIO BILHAKATUKO DA
(S. Joann., XVI, 16-23.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Oraino aphur bat, eta ez nauzue gehiago ikhusiren ; eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiko nauzue, zeren Aitaren gana bainoha. Dizipuluetarik batzuek erran zuten beraz elkarren artean : Zer othe da guri derragun hau : Oraino aphur bat, eta ez nauzue ikhusiko ; eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiko nauzue ; eta : Zeren Aitaren gana bainoha ? Zioten beraz : zer da aiphatzen duen Aphurra ? ez dakigu zertaz den mintzo. Bada, Jesusek ezagutu zuen galdeka abiatu nahi zitzaizkola, eta erran zioten : Zuen artean hortaz bilhatzen zarete, zeren erran baitarotzuet : Oraino aphur bat, eta ez nauzue ikhusiko ; eta berriz bertze aphur bat, eta ikhusiren nauzue. Egiazki, egiazki derratzuet nik : Zuek auhen eta nigar eginen duzue, eta mundua boztuko da ; zuek aldiz atsekabetuko zerete, bainan zuen atsekabea bozkariotara bihurtuko da. Emazteki batek erditzean, atsekabe du, zeren ethorria baita haren ordua ; bainan seme bat ukan duenean, ez da orduan bere hersturaz orhoitzen bozkarioaren ariaz, zeren gizon bat mundura sorthu baita. Zuek ere beraz orai atsekabetan zarete, hala da ; bainan ikhusiren zaituztet berriz, eta bozturen da zuen bihotza ; eta zuen baitharik nihork ez du khenduko zuen bozkarioa.

BAZKOTIK LAUGARREN IGANDEA

JESUSEK HITZEMAITEN DU IZPIRITU SAINDUA
(S. Joann., XVI, 5-16.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Orai bainoha bidali nauenaren gana ; eta batek ere zuetarik ez darot galdegiten : Nora zoaz? Bainan erran darozkitzuedalakoz, ilhundurak bethe du zuen bihotza. Bizkitar-tean egia derratzuet : zuen ona da goan nadien ; ezen goan ez banindedi, Sosegatzaila ez litzaitzueke ethor ; aldiz balimbanoha, igorriko dut zuen gana. Eta ethorri ditekeenean, mundua agerraraziko du hobendun bekhatuaz, zuzembideaz, eta juyamenduaz. Bekhatuaz behin, zeren ez duten ene baithan sinhetsi ; zuzembideaz aldiz, zeren ene Aitaren gana bainoha, eta ez bainauzue gehiago ikhusiren ; juyamenduaz gero, zeren juyatua baita jadanik mundu huntako buruzagia.

Oraino baditut bertze asko zuei errateko, bainan etzaretete oraino egartzeko gai. Noiz-ere ordena ethorriren baita egiazko Izpiritu hura, erakhatsiren darotzue egia guzia. Ez da ezen bere baitharik mintzaturen ; bainan zer ere eutzun baituke, hura erranen du eta ethorkizuneko gauzez argituren zaituzte. Harek nau goretsiren, zeren enetik hartuko baitu, eta ezagutaraziko baitarotzue. Aitak dituenak oro, eneak dire. Hargatik erran darotzuet : enetik hartuko du, et zuei ezagutaraziko darotzue.

BAZKOTIK BORTZGARREN IGANDEA

OTHOIZ EGIN BEHAR DUGU JESUSEN IZENEAN
(S. Joann., XVI, 23-31.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Egiaz derratzuet, egiaz, baldin zerbait galdegiten badiozue Aitari ene izenean, emanen darotzue. Orai artio deus ez duzue galdegin ene izenean. Galda zazue, eta izanen

duzue, zuen bozkarioa izan dadien bethea. Haukiek hitz estalika erran darozkitzuet. Heldu da ordua non ez bainatzaitzue gehiago hitz estaliz mintzatuko, bainan ene Aitaz garbiki eginen baitarotzuet solas. Egun hartan ene izenean galdeginen duzue ; eta nik ez darotzuet erraten zuentzat othoizturen dudala Aita ; alabainan Aitak berak maite zaituzte, zeren zuek maithatu bainauzue, eta sinhetsi baituzue ni Jainkoaren ganik ilkhi naizela. Aitaren ganik ilki naiz, eta mundurat ethorri ; berriz uzten dut mundua, eta Aitaren gana banoha. Dizipuluek erraten diote : Huna, orai garbiki mintzo zare, eta zure solasetan ez da itchurapenik batere. Orai ikhusten dugu gauza orotaz jakintsun zarela, eta beharrik ez duzula nihor hari dakisun galdeka ; horren gatik sinhesten dugu Jainkoaren ganik ilkhia zarela.

JONDONI SALBATOREKO EBANGELIOA

(S. Marc, XVI., 14-20.)

Orduan Jesus agertu zitzayoten hamekei, mahainean zirelarik ; eta gaizkiak erran ziozkaten beren sinhesgaiztasunaz eta bihotz gogortasunaz ; zeren phiztua zela ikhusi zutenei, etzioten sinhesterik eman.

Eta erran zioten : Zoazte mundu guzia gaindi, eta gizon guziei erantzun edo predika diozozuete ebanjelioa. Sinhetsiko duena, eta bathayatua izanen dena, salbatua izanen da ; aldiz, sinhetsiko ez duena, galdua. Bada, haukiek dire sendagailak sinhetsiko dutenei jarraikiren direnak : ene izenean iraiziko dituzte debruak ; mintzaya berriz mintzaturen dire ; erabiliren dituzte sugeak, eta zerbait hiltzeko edari edan balezate ere, ez liozokete kalterik egin ; erien gainean ezarriko dituzte eskuak, eta osasunera bihurturen dire. Eta Jesus Jauna, hekiei mintzatu ondoan, zezurat zen altchatu, eta Jainkoaren eskuinean jarria dago. Hekiek berriz, goan ziren eta toki guzietan predikatu zuten, Jaunak lagunduz, eta gogortuz hitza ondotikako sendagailez.

SALBATORE ONDOKO IGANDEA

IZPIRITU SAINDUAK ETA APOSTOLUEK EZAGUTUKO DUTE
JESUS JAINKOTZAT (S. Joann., XV, 23-27, XVI, 1-5.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Ordean, noiz-ere ethorriko baita nik Aitaren ganik bidaliko dudan Sosegatzaila, egiazko Izpiritua, Aitaren ganik atheratzen dena, harek bihurturen du lekhukotasun nitaz. Zuek ere lekhukotasun bihurturen duzue, zeren hastetik enekin baitzarete.

Erran darozkitzuet horiek, gaizbidetan etzaitezten eror. Sinagogetarik khenduko zaituztete ; eta heldu da ordua, non edozeinek hil zaitzazten, usteko baitu Jainkoaren nahira egiten duela. Eta horiek eginen darozkitzuate, zeren ez baikaituzte ezagutzen ez Aita, ez ni. Bada, haukiek erraten darozkitzuet, orhoit zaitetzen ordua ethorri ditekeenean, nola erran izan darozkitzuetan.

MENDEKOSTEKO IGANDEA

IZPIRITU SAINDUA (S. Joann., XIV, 23-31.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Norbaitek maite balimbanau, begiratuko du ene hitza, ene Aitak ere maithatuko du hura, eta haren gana ethorriko gare, eta haren baithan eginen dugu gure egoitza. Ni maite ez nauenak, ez ditu ene hitzak begiratzen. Eta entzun duzuen hitza ez da enea, baina bai ni bidali nauen Aitarena.

Haukiek erran darozkitzuet, zuekin naizelarik. Sosegatzailak ordean, Izpiritu sainduak, zeina ene izenean igorriren baitu Aitak, harek irakhatsiren darozkitzue guziak, eta orhoitaraziren zaituztete nik erran darozkitzuedan guziez. Uzten darotzuet bakea, ematen darotzuet ene bakea ; nik ematen darotzuet, ez munduak deman arara. Zuen bihoitza ez bedi ez nahas, ez ikhara. Aditu

duzue nola erran darotzuedan : Banoha, eta heldu natzaitzue. Maite baninduzue bai, bozkariotan sar zintezkete, zeren Aitaren gana nohan, Aita ni baino handiagoa baita. Eta orai darotzuet erraten, gertha dadien baino lehen, gerthatu ditekeenean, eman dezazuen sinheste. Ez naiz gaurgeroz zuekin hambat mintzatuko. Ezik heldu da mundu hunen buruzagia, nahiz ez duen ene gainean ikhustekorik batere ; bainan hola da, ezagut dezan munduak nik maite dudala Aita, eta nola niri Aitak manatu, hala egiten dudala. Jaiki zaitezte, goazen hemendik.

TRINITATEKO IGANDEA

APOSTOLUEN EGIMBIDEA (S. Matth., XXVIII, 18-20.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Ahal guziak zeru-lurretan niri zaizkit emanak. Zoazte beraz, irakhats zatzue jendaki guziak, bathayatzen ditutzuelarik Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu sainduaren izenean ; nik zuei manatu gauza guzien begiratzen irakhatsiz. Eta huna ni zuekin izanen naizela egun oroz, menderen azkeneraino.

BESTA BERRIKO IGANDEA

KOMUNIONEAN, ARIMEN HAZKURRIA (S. Joann., VI, 65-60.)

Orduan Jesusek erran zuen Judueri : egiazki ene haragia janhari da, eta ene odola edari da egiazki. Ene haragia jaten, eta ene odola edaten duena, ene baithan dago, eta ni haren baithan. Nola Aita bizi denak igorri bainau, eta ni bizi bainaiz Aitaren ariatik, eta ni jaten nauenak, haina ere ene ariatik biziko da. Hau da zerutik jautsi den ogia. Ez da zuen arbasoek jan duten mana iduri, eta gero hil izan baitire. Ogi huntarik jaten duena, bethi guzian da biziko.

MENDEKOSTETIK LEHEN IGANDEA

LAGUNAREN ALDERATEKO KARITATEA (S. Luc. VI, 36-43.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Urrikalmendutsu izan zaitezte beraz, zuen Aita urrikalmendutsu den bezala. Ez juya, eta etzarete juyatuak izanen ; ez kondena, eta etzarete izanen kondenatuak. Barkha zazue, eta barkhaturen zaitzue. Emazue, eta emanen zaitzue : neurri ona, asea, higitua, eta gaindi dihoana emanen zaitzue altzora. Ezen zein neurritz ere neurtu baitukezue, hartaz beraz zuei neurturen zaitzue.

Atheratzen zioten oraino iduripen bat : Itsua izan othe ditake itsu bidari? ez othe dire biak erre kara eroriko? Dizipulua ez da nausia baino gehiago ; baina dizipulua osoki ona da, nausia bezalakoa balimbada. Nolaz ikhusten duzu bada anayaren begian lastoa, eta zure begian ez zare ohartzen ernaiari? Edo nola derrokezu zure anayari : Anaya, zaude khen dezazudan phits bat begitik, etzarenean ohartzen zure begian duzun ernaiari? Itchura-ederrekoa, lehenik khen zazu zure begitik ernaiia eta gero abia zaite zure anayari idokitzen begitik phitza.

MENDEKOSTETIK BIGARREN IGANDEA

BAZKARI HANDIAREN PARABOLA (S. Luc. XIV, 16-25.)

Orduan Jesusek erran zuen Farisaueri parabola hau : Gizon batek egin zuen afari handi bat, eta hartara deithu zituen asko. Eta afaltzeko orduan, sehi bat bidali zioten deithuak zirenei erratera ethor zitezela, gauza guziak ja aphainduak zirelako. Eta guziak orobat abiatu ziren estakuruka. Lehenak erran zuen : Bazterretche bat erosi dut, premia dut ilkhitzea. eta haren ikhustera goatea ; behar darotadazu barkhatu. Bigarrenak erran zuen : Erosi ditut bortz idi pare, hekien ikhartzera noha ; othoizten zaitut, behar darotadazu barkhatu. Bertze batek erran

zuen : Ezkontzetik heldu naiz, eta horrela ezin nathorke. Eta sehiak, itzulirik, berri horiek ekharri ziozkan bere nausiari. Orduan hasarreturik, etcheko jaunak erran zioen bere sehiari : Zoaz berehala hiriko plaza eta karriketara, eta sarrarazkitzu hunat erromesak, ezinduak, itsuak eta mainguak. Gero sehiak erran zioen : Egina da, Jauna, zuk manatua, eta oraino toki bada. Eta nausiak ihardetsi zioen : Zoaz bideetara, eta berro bazterretarra ; eta atzemanak sartzera bortcha zatzu, bethe dadien ene etchea. Ezen nik derratzuet, deithuak ziren horietarik batek-ere ez duela jastaturen ene afaria.

MENDEKOSTETIK HIRUGARREN IGANDEA

ARDI ETA DRAKMA GALDUAK (S. Luc. XV, 1-11.)

Orduan publikanoak eta bekhatoreak Jesusen ganat hurbiltzen ziren, haren entzuteko. Eta Farisau eta Iskribauak erasten zuten, ziotelarik : Horrek onhesten ditu bekhatoreak, eta hekiekin jaten du.

Eta Jesusek parabola hau atheratu zioten : Zuetarik zein da ehun ardi dituen gizona, eta hekietarik bat galtzen badu, laur hogoi eta hemeretziak ez othe ditu mortuan uzten, eta galdu denaren ondotik ez othe da goaten, atzeman duken arteo? Eta atzeman duenean, bozik hartzen du soin gainera ; eta etcheratu denean, adiskideak eta hauzoak biltzen ditu, derrotelarik : Enekin har zazue bozkario, aurkhitu baitut ene ardi galdu zena. Nik derratzuet, zeruan horrela izanen dela urrikitan sartzen den bekhatore batentzat bozkario gehiago, ezenez laur hogoi eta hemeretzi justu urrikitze beharrik ez dutenentzat.

Edo zein emaztekik, hamar drakma izan-eta, hekietarik bat galtzen badu, ez du phizten argia, garbitzen etchea, eta bilhatzen artharekin, atzeman dezan artio? Eta khausitu dukeenean, deitzen ditu adiskideak eta hauzoak, dioelarik : Enekin har zazue bozkario, aurkhitu

baitut galdu nuen drakma. Horrela, derratzuet, Jainkoaren aingeruen artean izanen dela bozkario urrikitan sartzen den bekhatore baten gatik.

MENDEKOSTETIK LAUGARREN IGANDEA

ARRANTZA MIRAKUILUZKOA (S. Luc. v, 1-12.)

Orduan Jesus, gerthatu zen osteek hertsatzen zutela Jainkoaren hitzaren aditzeko, eta zen Jenesaretheko ur-maelaren aldean. Eta ikhusi zituen bi untzi ur hegian geldituak; arrantzariak berriz, jautsiak ziren, eta sareen garbitzen hari. Simonen untzi batera iganik, othoiztu zuen Simon leihorretik urrun gibela zadien aphur bat. Eta jarri ondoan, untzitik hari zen osteen irakhasten. Eta mintzatzetik gelditu zenean, erran zioen Simoni: Egizu zabalerat, eta sareak arthikatzue arrantzatzeko. Ihardestean Simonek erran zioen: Nausia, gau guzian nekhatu ondoan, ez dugu deus atzeman; bainan zure erranaren gainean, hedatuko dut sarea. Eta hori egin zutenean, harrapatu zuten nihonereko arrainketa; eta sarea lehertzen zitzaizoten. Eta kheinu egin zioten bertze untziko lagunei, ethor zitezen laguntzera. Eta ethorri ziren, eta bethe zituzten bi untzichkak, haletan non hondatzeko heinean baitziren. Simon Piarresek ikhusi zuenean hori, erori zen Jesusen oinetara, zioelarik: Ene ganik gibela zaite, Jauna, gizon bekhatore bat bainaiz ni. Alabainan lazturak hartu zituen, egin zuten arrantzaren ariaz, hura eta harekilakoak; eta orobat Jakobe eta Joanes, Zebedeoren semeak, zeinak baitziren Simonen lagunak. Eta Simoni erran zioen Jesussek: Ez izi, hemendik aitzinat gizon atzemaile izanen zare. Eta untziak leihorrerat ekharri ondoan, guziak utzirik, jarraiki ziren Jesusi.

MENDEKOSTETIK BORTZGARREN IGANDEA

EBANJELIOAK MANATZEN DUEN SAINDUTASUNA
(S. Matth. v, 20-25.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Ezen nik derratzuet, etzaretela zeruetako erresuman sarthuren, baldin eta zuen zuzentasunak Iskribau eta Farisauena gainditzen ez badu.

Entzun duzue lehengo zaharrei errana : Ez duzu hilen ; eta hiltzailea, juyamenduaren jasankizun izanen dela. Nik derratzuet ordean, bere anayari sumintzen zayona, juyamenduaren jasankizun dela. Nork-ere berriz anayari erranen baitio : Raca, haina biltzarraren meneko izanen dela. Zeinak aldiz erranen baitu : Erhoa, haina ifernuko suaren jasankizun dela. Baldin beraz eskaintza bat aldarrera ekhartzen baduzu, eta han orhoitu bazare zure anayak baduela zerbait zure kontra, han utzazu zure eskaintza aldarearen aitzinean, eta zure anayari lehenik zoazkio baketzera, eta orduan ethorriarik eginen duzu zure eskaintza.

MENDEKOSTETIK SEIGARREN IGANDEA

BIGARREN ALDIKOTZ JESUSEK EMENDATZEN DITU OGIAK
(S. Marc. VIII, 1-11.)

Orduko egunetan, nola bertze behin ostea handia baitzen eta ez baitzuten zer jan, Jesusek deithurik bere dizipuluak, erran zioten : Urrikaltzen zait populu hau, ezen huna jadanik hirur egun ez nautela uzten, eta jatekorik ez dute ; eta barurik igor banetza beren etchetara, ahi edo ahul laitezke bidean ; badire ezen horietan urrundik ethorriak direnak. Dizipuluek ihardetsi zioten : Nork eta nondik horiek ogiz ase hemen, mortu huntan? Jesusek galdegin zioten : Zembat ogi ditutzue? Ihardetsi zuten : Zazpi. Orduan osteari manatu zioen jar zadien lurrean. Eta harturik zazpi ogiak, eta eskerrak bihurturik, hautsi

zituen eta bere dizipuluei eman, populuaren aitzinean ezartzeko, eta ezarri zituzten. Eta bazituzten arraintto bakhar batzu; eta benedikatu zituen, eta emanarazi. Eta jan zuten, eta ase ziren, eta gelditu pusketarik goititu zituzten zazpi saskitara. Baziren bada jan zutenak, lau milaren heina; eta etcherat igorri zituen.

MENDEKOSTETIK ZAZPIGARREN IGANDEA

PROFETA FALTSUEZ (S. Matth. VII, 15-22.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri: Begira zaitezte gezurrezko profetetarik, zeinak heldu baitzaizkitzue ardi larruz jauntzirik, barnean otso harrapariak diren ordean. Beren fruituetarik ditutzue ezaguturen. Elhorrietarik biltzen othe dire mahatsak, edo lapharretarik pikoak? Horrela arbola onak fruitu ona dakhar; aldiz arbola tzarrak tzarra dakhar. Arbola onak ez dakharke fruitu gaichtorik, ez-eta arbola tzarrak ere fruitu onik. Edozein arbola fruitu ona ematen ez duena, ebakia izanenda, eta surat arthikia. Beren fruituetarik ezaguturen ditutzue beraz.

Niri Jauna, Jauna, erraten darotan edozein ez da zeruetako erresuman sarthuren; baina ene Aita zeruetan denaren nahia egiten duena, haina da sarthuren zeruetako erresuman.

MENDEKOSTEKIK ZORTZIGARREN IGANDEA

ETCHEGIZON GAICHTOAREN IDURIPENA (S. Luc. VIII, 1-10.)

Orduan, Jesusek bere dizipuluei ere erran zioten: Gizcn aberats batek bazuen etchegizon bat; eta hau bere nausiaren baithan beltzatua izan zen, chahutu ziozkala bere onthasunak. Eta deithu zuen nausiak, eta erran zioen: Zer aditzen diat hitaz? Hire etchegizongoaz athera dizadak argitasun; ezen holako kargurik etsukek hiretzat gehiago.

Orduan etchegizonak erran zuen bere gogoan : Zer eginen dut, nausiak khentzen darotanaz geroz ene kargua? Haitzurreko ez naiz, eskatzeko, ahalke. Badakit zer egin beren etcheetara hartuko nautenen izateko, kargutarik khendua izanen naizenean.

Deithurik beraz bere nausiaren zordun bakhotcha, lehembizikoari erran zioen : Zembat zor diozu ene nausiari? Eta harek ihardetsi zuen : Ehun izari olio. Eta erran zioen : Orizu zure zorraren ageria, jar zaite hor berehala, eta bertze bat egizu berrogoi eta hamarrekoa. Gero galdatu zioen bertze bati : Zuk berriz, zembat duzu zor? Ihardetsi zuen : Ehun izari ogi. Erran zioen hari : Har zazu zure ageria, eta iskriba zazu laur hogoyeko bat. Eta nausiak ederretsi zuen bere etchegizon tzarra, zuhurki zuelakoz egin ; ezen mendeko umeak atzarriago dire beren egitekoetan argiaren umeak baino. Eta zuei derratzueta nik : Adiskideak egizkitzue bide makhurretikako onthasunetarik ; har zaitzazten, hil zaretekenean, bethiereko egoitzetara.

MENDEKOSTETIK BEDERATZIGARREN IGANDEA

JESUS NIGARREZ JERUSALEMAREN GAINEAN

S. Luc. XIX, 41-48.)

Orduan Jesus hurbildu zenean Jerusalemeri, hiria ikhustearekin, haren gainean nigar egin zuen, zioelarik : Ai bederen, hire egun huntan, ezagut baheza zerk ekhar lezakenan bakea ! bainan orai estalia dun hire begientzat. Hargatik ethorriren ditun hire gainerat egunak, eta hire etsayek inguraturen haute phezoinez, setiaturen haute, eta alde orotarik hertsaturen eta lurrerat arthikiren zaitzute hi eta barnean ditunan hire umeak, eta harria harriaren gainean ez ditun hitan utziko, zeren ez dunan ezagutu hire Jainkoa ikhustera ethorri zainan eguna.

Gero temploan sarthurik, abiatu zen han saltzen eta erosten hari zirenen kamporat iraitzen, zerrotelarik :

Iskribatua da : Ene etchea, othoitzeko etchea da. Zuek ordean ohoin zilho bat egin duzue.

Eta egun oroz hari zen temploan irakhasten.

MENDEKOSTETIK HAMARGARREN IGANDEA

FARISAUAREN ETA PUBLIKANOAREN IDURIPENA

(S. Luc. XVIII, 9-15.)

Orduan Jesusek, bere buruak justutzat idukiz, bere baithan fidatzen, eta bertzeak erdeinatzen zituzten batzuentzat ere atheratu zuen parabola hau : Bi gizon igan ziren templora, othoitz egitera : bata Farisaua, eta bertzea publikanoa. Farisauak, chutik, bere baithan hunela egiten zuen othoitz : Ene Jauna, eskerrak darozkitzut zeren ez naizen bertze gizonak iduri, harrapari, bidegabe egile, emakoi baitire ; hala-nola horrako publikano hori ere. Barur egiten dut astean bietan ; eta ene izan guzien hamarrenak ematen ditut. Publikanoak aldiz, urrundik zagoe-larik, etzituen altchatu ere nahi begiak zerurat ; bainan bulharrak jotzen zituen, zioelarik : Jainkoa, urrikal zakizkit naizen bekhatoreari. Nik derratzuet, hau barkhatua jautsi zela bere etcherat, eta bertzea ez ; zeren goratzen diren guziak izanen baitire aphalduak, eta aphaltzen direnak goratuak.

MENDEKOSTETIK HAMIKAGARREN IGANDEA

JESUSEK SENDATZEN DU GIZON GOR ETA MUTUA

(S. Marc. VII, 31-38.)

Orduan Jesus, berriz atheraturik Tirreko aurkhintzetarik edo aldetarik, Sidonen gaindi ethorri zen Galileako itsas-aldera, Dekapolisako eremuak barna. Eta erakhartzen diote gizon bat gor eta mutua, eta othoizten zuten eskua eman ziozon gainean. Eta ostetik bazterrerat joanik Jesusek bere erhiak beharrietan jazarri ziozkan,

eta ahogozoz ukitu zioen mihia. Eta zerura begiratu, hasgorapen batekin erran zuen : Ephphetha, erran nahi baita : Idek hadi. Eta han berean haren beharriak ideki ziren, amor egin zuen haren mihiko lokharriak, eta mintzo zen garbiki. Eta manatu zioten etzezaten nihori erran. Bainan zembatenaz harek debekatuago, eta hambatenaz gehiago barrayutzen zuten : eta gehiago ederresten zuten, ziotelarik : Guziak ongi egin ditu ; gorrak adiarazi, eta mutuak mintzarazi ditu.

MENDEKOSTETIK HAMABIGARREN IGANDEA

SAMARIAR URRIKALMENDUTSUA (S. Luc. x, 25-38.)

Orduan Jesusek bere dizipuluen aldera itzuliz, erran zuen : Dohatsu begiak, zuek ikhusten dituzuen gauzak dakhiskitzatenak. Ezen nik derratzuet, profeta eta errege hainitzek nahi izan dituztela ikhusi zuek dakhiskitzuenak, eta ez baitituzte ikhusi ; eta entzun zuek entzuten dituzuenak, eta ez baitituzte entzun.

Eta hara legearen irakhasle bat jaiki zela, hura zertan kausi, erranez : Nausia, zer eginez ardietsiren dut bethiereko bizitzea? Jesusek berriz, erran zioen : Legean zer da iskribatua? zer irakurtzen duzu? Harek ihardetsiz erran zuen : Zure Jainko Jauna duzu maithaturen zure bihotz oroz, zure arima guziaz, zure indar osoaz, zure gogo bethiaz ; eta zure laguna zure burua bezala. Eta Jesusek erran zioen : Ederki duzu ihardetsi ; hori egizu, eta biziko zare. Harek ordean, bere burua edertu beharrez, erran zioen Jesusi : Eta nor da ene laguna? Horren gainean aldiz, Jesusek erran zuen : Gizon bat Jerusalemetik jausten zen Jerikora, eta erori zen ohoinen eskuetara ; haukiek biluzi zuten, sakiz estali, eta erdi-bizi utzirik goan ziren. Aphez bat gerthatu zen bada bide beraz jaustera ; eta hura ikhusirik, jo zuen aitzina. Lebitar bat ere, ondo hartan zelarik, eta hura ikhusi zuen arren, iragan zen orobat. Samariar

bat aldiz, bidean zihoalarik, ethorri zen harat ; eta gizonari oharturik, urrikalmenduak eragin zionen. Eta hurbildurik, olio eta arno ichuriz, lothu ziozkan bere sarraskiak, ezarri zuen bere aberearen gainean, ostatu batera eramanean, eta han arthatu. Biharamunean atheratu zituen bi denario, ostalerari eman ziozkan, eta erran zaroen : Huntaz izan zazu artha ; eta zer-ere gehiagorik chahuturen baituzu, gibeleratekoan nik bihurturen darotzut. Hirur horietarik, zure ustez, zein izatu da ohoinen artera erori gizonaren laguna? Eta harek ihardetsi zuen : Urrikaldu izan zayoena. Jesusek berriz, erran zioen : Zoaz, eta zuk ere orobat egizu.

MENDEKOSTETIK HAMAHIRUGARREN IGANDEA

HAMAR LEGENTSUEN EDO LEPRATSUEN SENDATZEA
(S. Luc. XVII, 11-20.)

Orduan Jesus Jerusalemera zihoalarik, gerthatu zen Samariaren eta Galilearen erditik iragaitera. Eta nola herrichka batean sartzera baitzihoan, bidera atheratu zitzaizkon hamar lepratsu zeinak urrundik gelditu baitziren ; eta oihu egin zuten, ziotelarik : Jesus, gure nausia, urrikal guri. Ikhusi zitueneko, erran zuen : Zoazte, aphezzen aitzinera ager zaitezte. Eta zihoazelarikan, garbituak aurkhitu ziren. Bada, hekietarik, ikhusi zuenean bere burua garbitua, gibelerat egin zuen, goraki handietsiz Jainkoa, eta ahuspez erori zen Jesusen oinetara, eskerak bihurtzen ziozkielarik ; eta hura Samariarra zen. Aldiz, Jesusek ihardetsiz erran zioen : Ez dire hamar sendatu? eta non dire bertze bederatziak? Arrotz hau baizen ez da aurkhitu, itzuli eta Jainkoari ospe eman dioenik. Eta erraten dio : Jaiki zaite eta zoaz ; zure sinhesteak salbatu baitzaitu.

MENDEKOSTETIK HAMALAU GARREN IGANDEA
JAINKOAREN ZERBITZUA (S. Matth. VI, 24-34.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipuluari : Nihork ezin detzazke bi nausi zerbitza : alabainan edo bat izanen du higuin, eta bertzea maite ; edo jasanen du bat, eta bertzea arbuyatuko. Ezin zerbitza detzazketzue Jainkoa eta dirua.

Hargatik nik derratzuet : bizitzeko zer janen, ez-eta larrua zertaz estaliko duzuen ez izan griñatsu. Alabainan ez othe da bizia jana baino gehiago, eta gorphutza jauntzia baino? Ikhusatzue zeruko hegastinak, ez baitute eraiten, ez uztatzen, ez-etare selharuetara biltzen ; eta zuen Aita zerukoak hazten ditu. Zuek ez othe zarete hainitzez hekiek baino gehiago? Zuetarik berriz zein da bere asmu guziekin bere gorphutzari beso bat iratchik diozokeenik?

Eta zuen jauntziaz zeren zarete grinatisu? Bazterretako liliei zaudezkiote begira, nola diren handitzen : ez dire bada ez lanean, ez iruten hari. Eta nik derratzuet, Salomon ere etzela bere ospe guziaren erdian horietarik bat bezala jauntzia. Baldin beraz Jainkoak horrela jaunzten badu bazterretako belhar bat egun dena, eta bihar labera arthikia izanen dena, zembatenaz hobeki eginen zaituzte zuek, oi sinheste aphurreko umeak ! Ez beraz grinarik har, derrazuelarik : Zer janen dugu, edo zer edanen, edo zer jauntziko? Paganoak dire ezen horien ondoan dabiltzanak. Alabainan zuen Aitak bada ki horien ororen beharretan zaretala. Bilha zazue barez lehembizikorik Jainkoaren erresuma eta haren alderako zintasuna, eta bertze horiek oro iratchikiren zarozkitzuete populu.

MENDEKOSTETIK HAMABORTZ GARREN IGANDEA
NAIMEKO ALHARGUNTSAREN SEMEAREN PHIZTEA
(S. Luc. VII, 11-17.)

Orduan Jesus bazihoan Naim deitzen den hirira, eta harekin zihoazen haren dizipuluak, eta jendetze handi

bat. Bada, hiriko athera hurbildu zenean, hara hil bat ekhartzen zutela, bere amaren ume bakharra ; eta alharguna zen ama ; eta harekin bazen hiriko jende hainitz. Jaunak ikhusi zuenean emaztekoa, urrikalmenduak harturik, erran zioen : Nigarrik ez egin. Eta hurbildu, eta ukitu zuen khutcha. Bada, ekharleak gelditu ziren. Eta erran zuen : Gizon gaztea, nik derratzut, jaiki zaite. Eta hila zena jarri zen, eta mintzatzan hasi. Eta Jesusek eman zioen bere amari. Lazturak berriz, hartu zituen han ziren guziak ; eta handiesten zuten Jainkoa, erranez : Ala profeta handia jaiki baita guthartean ! Jainkoak ikhusi du bere populua.

MENDEKOSTETIK HAMASEIGARREN IGANDEA

GIZON UHERIAREN SENDATZEA

APHAL- TASUNAREN AMODIAZ (S. Luc. XIV, 1-12.)

Orduan, larumbat egun batez, Jesus gerthatu zen ogiaren jatera goan zela Farisauetarikako buruzagi baten etchera, eta idukitzen zioten begia. Eta hara aitzinean zuela gizon bat uheri zena. Eta hitza harturik, Jesusek erran zioten lege irakhasleei eta Farisauei : Haizu othe da larumbat egunean sendatzea ? Bainan heiek ichilik gelditu ziren. Jesusek aldiz hartu zuen gizona, sendatu, eta igorri zuen. Eta hekiei mintzatzuz, erran zioten : Zein da zuetarik, astoa edo idia erortzen zaionean putzura, berehala atheratuko ez duena, nahiz larumbat egunean ? Eta horren gainean etziozoketen ihardets.

Bada, ikhusiz bazkaltiarak lehembiziko tokien hautatzen zabilzala, parabola bat atheratu zioten, erraten zaroetelarik : Ezteietara deithua izanen zarenean, ez jar mahain buruan, beldurrez-eta zu baino ikhusiagoa den bat gertha dadien jaun esposaz deithua ; eta hura eta zu deithu zaituztena ethor dadien, eta erran dezazun : Huni utzozu tokia ; eta orduan, ahalke gorritan goan zadien azken tokiaren hartzea. Bainan deithua izanen zarenean,

zoaz, jar zaite azken lerroan, deithu zaituenak, dathorrenean, erran diezazun : Adiskidea, zato gorago. Orduan ohore izanen duzu zurekin mahainean diren guzien aitzi-
nean ; ezik goratzen dena izanen da aphaudia, eta apha-
tzen dena goratua.

MENDEKOSTETIK HAMAZAZPIGARREN IGANDEA

MANAMENDUETARIK HANDIENA. MESIAS DABIDEN
SEMEA (S. Matth. XXII, 34-46.)

Orduan Farisauak hurbildu ziren Jesusen ondorat eta hekietarik legearen irakhasle zen batek, makhurrean atzeman beharrez, egin zioen galde hau : Nausia, legean manamendu handia zein da? Jesusek erran zioen : Zure Jainko Jauna duzu maithaturen zure bihotz oroz, eta arima guziaz, eta gogo osoaz. Hori da manamenduetan handiena eta lehena. Bigarrena berriz, horren idurikoa da : Zure laguna duzu maithaturen zure burua bezala. Lege guzia eta profetak bi manamendu horietan dauntza.

Bada Farisauak bilduak zaudelarik, Jesusek egin zaroe-
ten galde bat, zerralarik : Zer zaitzue Kristoz? noren semea
dela? Dabidena, derrate. Jesusek erran zioten : Nola
beraz Dabidek, izpirituak zerabilkalarik, deitzen du bere
Jauna, erraten duenan : Jaunak dio ene Jaunari : Ene
eskuinean jar zaite, zure etsaiak zure oin alkhi ezar det-
zadan artio? Baldin beraz Dabidek Jaunetan deitzen
badu, nolaz da haren seme? Eta nihork ezin ihardets zio-
zokeen hitz bat ; eta egun hartaz geroz, etzen izan hari
galdeka haritzera ausartatu zenik.

MENDEKOSTETIK HEMEZORTZIGARREN IGANDEA

PARALITIKOAREN SENDATZEA (S. Matth. IX, 1-9.)

Orduan Jesus untzichkara iganik, iragan zuen itsasoa,
eta ethorri zen bere hirira. Eta hara aitzinera ematen

ziotela paralitiko bat ohean etzana. Jesusek ikhusirik hekien sinhestea, eriari erran zioen : Ene haurra, egizu bihotzari edo ez izan beldurti, ezen barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak. Eta hara, Iskribauetarik zembaitek beren baithan erran zutela : Burhoa edo blasfemia dio horrek. Bainan Jesusek ezagutu baitzituen hekien gogoetak, erran zuen : Zergatik asmatzen duzue gaizkia zuen bihotzetan? Zer da errechago, ala erratea : Barkhatuak zaizkitzu zure bekhatuak, ala erratea : Jaiki, eta ibil zaite? Bada, jakin dezazuen gizonaren Semeak baduela lurraren gainean bekhatuen barkhatzeko ahala, orduan erran zioen paralitikoari : Jaiki zaite, har zazu zure ohea, eta zoaz etcherat. Eta jaiki zen, eta goan zen bere etcherat. Hori ikhusirik, osteak beldurtasunean sarthu ziren, eta ospe bihurtzen zioten Jainkoari, holako indarra gizonari eman ziotenari.

MENDEKOSTETIK HEMERETZIGARREN IGANDEA

ERREGEREN EZTEIETAKO PARABOLA

(S. Matth. XXII, 1-15.)

Orduan Jesusek, oraino ere paraboletan mintzatuz, hau erran zaroeten : Zeruetako erresumak iduri du errege bat, zeinak egin baitzituen bere semearen ezteiak. Eta bere muthilak igorri zituen ezteiliarren deitzera, eta etziren ethorri nahi izan. Berriz igorri zituen bertze sehi batzu, zerralarik : Ezteiliarrei errozute : Huna non aphaindu dudan ene bazkaria, ene idi eta azienda gizenduak hilak ditut ; gauza guziak chuchenduak daude ; zatozte ezteietera. Hekiek ordean etzuten acholarik izan, eta goan ziren, hau bere bazterretchera, hura bere tratuetara ; bertzeek berriz, hartu zituzten erregeren muthilak, eta zer-nahi hidoi jasanarazirik, hil izan zituzten.

Bada, erregek aditu zuenean, hasarreak hartu zuen ; eta bere armadak igorririk, chahutu zituen gizon hiltzajle hekiek, eta erre zuen hekien hiria. Orduan erran zioten bere muthilei : Ezteiak bada aphainduak daude ; bainan

othoiztuak zirenak etziren gai. Zoazte beraz bide buruetara, eta ezteietara deith zatzue atzemanen ditutzuen guziak. Eta sehiak bideetara ilkhi ziren, eta atzemanak oro, on eta gaichto, bildu zituzten guziak; eta bazkaltiarrez bethe zen ezteietako mahaina. Gero errege sarthu zen mahainean zirenen ikhustera, eta han ohartu zen batek etzuela ezteietako aldagarria jauntzi, eta erran zioen : Adiskidea, nola sarthu zare hunat, ezteietako soinik gabe? Eta hura hitzik gabe gelditu zen. Orduan erregek erran zioten bere gizoni : Zango-besoak este-katurik, arthikazue kampoko ilhumbeetara; han izanen baita marraska eta hortz karraska. Ezen hainitzak dire deithuak, gutiak ordean hautatuak.

MENDEKOSTETIK HOGOIGARREN IGANDEA

AITZINDARIAREN SEMEAREN SENDATZEA

(S. Joann. IV, 46-54.)

Orduan aintzindari bat, zeinaren semea eri baitzen Kapharnaumen, aditu zuenean Jesus heldu zela Judeatik Galileara, goan zitzaioen, eta othoiztu zuen jauts zadien eta senda zezon bere semea; ezen hiltzera zihoakon. Jesusek erran zioen beraz : Ez duzue sinhesten, non ez duzuen sendagailarik eta mirakuilurik ikhusten. Aitzindariak erraten dio : Jauna, zato ene semea hil baino lehen. Jesusek ihardesten dio : Zoaz, zure semea ongi da. Gizonak sinhetsi zuen Jesusek erran hitza, eta bazihoan. Bada, hura orduko jausten hari zelarik, buruz buru egin zuten bere sehiak, eta berria eman zioten osagarritan zuela semea. Galdegin zuen hekien ganik zer mugaz hobekitu zen haurra. Eta ihardetsi zioten : Atzo, zazpi orenetan, sukharra utzi du. Aitak ezagutu zuen beraz, hura zela ordua non erran baitzioen Jesusek : Ongi da zure semea; eta sinheste hartu zuten, harek eta haren etche guziak.

MENDEKOSTETIK HOGOI ETA BATGARREN IGANDEA

BIDEGABEEN BARKHATZEAZ (S. Matth. XVIII, 23-35.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipuluari : Aria hortaz zeruetako erresuma ezarria da errege baten pare, zeinak nahi izan baitzituen bere sehiakin ikhustekoak churitu. Eta egitekoen garbitzen hasi zenean, ekharri zioten sehi bat, hamar mila talendu zor ziozkana. Ez baitzuen ordean nondik bihur, manatu zuen nausiak sal zetzazten hura, eta haren emazte, haur, eta zituenak oro, eta hala garbi zezan zorra. Sehi harek berriz, ahuspeka eroririk, othoizten zuen, erranez : Igurik nezazu eta bihurturen darozkitzut oro. Bada, sehi haren nausia urrikaldu zen ; utzi zuen, eta barkhatu zioen zorra.

Sehi harek berriz, ilkitzean atzeman zuen bere sehi lagunetarik bat, ehun denario zor ziozkana ; eta lephotik lothurik, ithotzen zuen, erraten zioelarik : Bihur zak zor dukana. Aldiz, lurrerat eroririk, sehi lagunak othoizten zuen erranez : Igurik nezazu, eta bihurturen darozkitzut oro. Bainan harek etzioen onhartu ; aitzitik, goan zen, eta preso altcharazi zuen, zorra bihur zezan artio. Bertze sehi lagunek berriz, ikhusirik zer zen gerthatzen, damu min hartu zuten ; eta ethorri ziren, eta beren nausiari erran ziozkaten iragan zirenak oro.

Orduan nausiak deithu zuen hura, eta erran zioen : Sehi tzarra, hire zor guzia barkhatu daroat, zeren naukan othoiztu ; ez othe hintzen beraz hi ere urrikaldu behar hire sehi lagunaren alderat, ni hire alderat naizen bezala urrikaldu? Eta bere hasarrean nausiak eman zuen estiratzaileen edo burregoen eskuetara, bihur zezan artio zor zuen guzia. Ene Aita zerukoak ere halaber darotzute eginen, baldin batbederak zuen anayari ez badiozue bihotz oroz barkhatzen.

MENDEKOSTETIK HOGOI ETA BIGARREN IGANDEA

FARISAUAK ICHILARAZIAK : ZESARREN ZERGA
(S. Matth. XXII, 15-22.)

Orduan Farisauak ganik, batzarre egin zuten Jesus bere ahotik atzeman behar zutela. Eta beren dizipuluak Herodestarrekin igortzen diozkate, erratera : Nausia, badakigu egiatia erraiten duzula eta zintasunean irakhasten duzula Jainkoaren bidea, eta nihortaz ez dadukazula lotsarik ; etzarelakoz nor-nor-den begiratzen. Erraguzu beraz zer zaitzun : Zesarri zergaren ematea haizu da, ala ez? Jesusek ordean ezagutzen baitzuen hekien maltzurkeria, erran zioten : Itchura eder egileak, zergatik nauzue gaizkitan bilhatzen? Erakhuts dizadazuet zergako dirua. Eta hekiek erakhutsi zioten denario bat. Jesusek erran zioten : Norenak dire gaineko itchura, eta iskribu hau? Zesarrenak, diote. Orduan Jesusek erran zaroeten : Bihurrotzue beraz Zesarri Zesarren direnak; eta Jainkoari Jainkoaren direnak.

MENDEKOSTETIK HOGOI ETA HIRUGARREN IGANDEA

JAIREN ALABAREN ETA EMAZTE ODOL GALTZEZ HERSTUAREN
SENDATZEA (S. Matth. IX, 18-27.)

Orduan Jesus mintzo zelarik Joanesen dizipulueri hurbildu zen aitzindari bat, eta adoratzan zuen, zioelarik : Jauna, ene alaba oraichetan hil da ; bainan zato, gainean ezarrozu eskua, eta biziko da. Eta chutiturik Jesus, jarraiki zitzayoen, eta dizipuluak ere batean. Eta hara emazteki bat, hamabi urthe hartan odol galtze batek herstutzen zuena, hurbildu zitzayoen gibeletik, eta ukitu zioen soinekoaren litsa. Ezen bere baithan egiten zuen : Uki badezaket hunen soinekoa bederen, sendatua naiteke. Eta itzulirik,

Jesusek ikhusi eta erran zioen : Haurra, duzula bihotz on, zure sinhesteak sendatu zaitu. Eta ordu beretik emaztekoa sendatua gelditu zen. Bada, heldu zenean Jesus aitzindariaren etchera, eta ikhusi zituenean chirulariak eta oste bat harramantz handitan, erran zuen : Zoazte gibelerat ; ezen neskatcha ez da hila, bainan lo dago. Eta irri egiten zioten. Eta ilkhiazi zutenean jendea, sarthu zen, hartu zuen nechkaren eskua. Eta jaiki zen haurra. Eta horren haroak jo zuen herrialde hura guzia.

MENDEKOSTETIK HOGOI ETA LAUGARREN ETA AZKEN IGANDEA

JERUSALEMAREN EZEZTATZEA ETA MUNDUAREN
AKHABANTZA (S. Matth. XXIV, 15-36.)

Orduan Jesusek erran zuen bere dizipulueri : Ikhusiko duzuenean beraz desmasiako hasgarrikeria, Daniel profetak aiphatua, lekhu sainduan jarria, irakurtzen duenak adi beza. Orduan Judean direnak, ihes mendietara egin eta hegaztegian dena, ez bedi jauts, etchetik zerbaiten hartzeko ; eta landan dena, ez bedi bihur soinekoaren bilha. Zorigaitz aldiz, egun hekietan haur beharretan eta haurrak bulharrean direnei ! Othoitz egizue bada, zuen ihesia neguan, edo larumbat egunean ez dadien gertha. Alabainan izanen da orduan herstura handia, nolakorik munduaren hastapenetik orai arito izan ez baita, ez-etare izanen.

Eta baldin egun hekiek laburtuak izan ez balire, gizonik etzen salbaturen ; hautetsien gatik ordean laburtuak izanen dire egun hekiek.

Orduan norbaitek erran balezazue : Huna hemen da Kristo, edo hantche da, ez sinhets. Ezen jaikiko dire kristo-aizunak eta profeta-aizunak, eta eginen dituzte sendagaila handiak eta harritzeko gauzak, haletan non hautetsiak ere, ahal balitz, enganiotara erorraraz bailetzazkete. Horra, erran darotzuedala aitzinetik. Erran balezazuete beraz : Hara non den mortuan, ez ilkhi ; Huna

etche zokhoetan, ez sinhets. Ezen nola chimista iguzkialdetik ilkhitzen, eta mendebalèraino agertzen baita, hala izanen da gizonaren Semearen ethortzea ere. Non baititake hilikia, harako dire arranoak ere. Bada, egun hekie-tako hersturaren ondotik berehala, ilhunduren da iguzkia, eta ilhargiak bere argia ez du emanen, eta izarrak eroriko dire zerutik, eta zeruetako ahalak khordokaturen dire ; eta orduan zeru gainetik agerturen da gizonaren Semearen ezagutkaria ; eta orduan marrasketan dire egonen lurreko jendaki guziak, eta ikhusiren dute gizonaren Semea zeruko hedoyen gainean dathorla indar eta mayestate handirekin. Eta igorriko ditu bere aingeruak turrutarekin, eta harra-bots handitan ; eta bilduko dituzte haren hautetsiak lau haizeetarik, zeruen bazter batzuetarik bertze buruetaraino.

Bada, piko ondotik har zazue iduripen bat : haren adarra guritu, eta hostoak sorthu direneko, badakizue uda hurbil dela ; hala zuek ere ikhusiko ditutzuenean horiek oro, jakizue gizonaren Semea hurbil dela athean. Egiaz derratzuet, gizate hau ez dela goanen, non horiek oro ez diren gerthatzen. Iraganen dire zeru-lurrak, bainan ene hitzak ez dire iraganen.

ANDREDENA MARIA PHESTA EGUNEAN

MARTHA ETA MARIA (S. Luc, x, 38-42.)

Orduan Jesus gerthatu zen herri batean sartzera eta Martha deitzen zen emazteki batek hartu zuen bere etcherat. Eta hunek bazuen ahizpa bat, Maria deitzen zena, zeina Jaunaren oinetan jarririk, baitzagoen haren hitzaren entzuten. Martha berriz, lehiatuki zabilan bere lan handien erdian ; eta Jesusen aintzinean gelditurik, erran zioen : Jauna, etzaitzu densere, ene ahizpak bakharrlk uzten bainan lan guzieri buruz? errozu bada lagunt nezan. Eta ihardestean Jaunak erran zioen : Martha, Martha, gri-ñatsu zare, eta hainitz gauzaz khechatzen. Bada, bat da bakharrik premiazkoa. Mariak hautatu du eskualderik hoberena, eta etzaio khendua izanen.

KRISTAU-ERREGEAREN PHESTA EGUNEAN

JESUS PILATUSEN AINTZINEAN MINTZO
(S. Joann. XVIII, 33-38.)

Orduan Pilatusek erran zuen Jesusi : Zu zare Juduen errege? Jesusek ihardetsi zioen : Zure baitharik diozu hori, ala bertzeek erran darotzute nitaz? Pilatusek ihardetsi zuen : Judua othe naiz ni? Zure jendakiak eta aphez handiek ezarri zaituzte ene eskuetan ; zer egin duzu? Jesusek ihardetsi zuen : Ene erresuma ez da mundu huntarikakoa ; baldin mundu huntarikakoa izan balitz ene erresuma, ene azpikoak gudukatu zitezkeen segurki, ni Juduen eskuetara ez uzteko ; bainan ene erresuma ez da hemendikakoa. Hargatik Pilatusek erran zioen : Beraz errege zare zu? Jesusek ihardetsi zuen : Zuk diozuna, hala naiz. Hortako naiz sorthu, eta hortara naiz mundurat ethorri, lekhukotasun bihur diozodan egiari; egiatik dathortzen guziek entzuten dute ene mintzoa.

UMIASAINDU EGUNEAN

ZORTZI DOHATSUTASUNAK (S. Matth. v, 1-13).

Orduan, Jesusek ikhusiz halako osteak, mendira igan zen, eta jarri zenean, hurbildu zitzaizkon bere dizipuluak. Eta ideki zuen ahoa, eta irakhasten zituen, zioelarik : Dohatsu izpirituz beharrak direnak, zeren hekiena baita zeruetako erresuma. Dohatsu eztiak, zeren lurraz baitire gozaturen. Dohatsu nigar egiten dutenak, emanen baitzaiote gozakari. Dohatsu zuzembidearen gosez eta egarriz daudezenak, aseak izanen baitire. Dohatsu urrikalkor direnak, zeren berek ere ardietsiren baitute urrikalmendu. Dohatsu bihotzez direnak garbi, hekiek ikhusiren baitute Jainkoa. Dohatsu baketiarrak, zeren Jainkoaren ume izanen baitire deithuak. Dohatsu jazarpenak zuzenaren gatik egartzen dituztenak, zeren hekiena

baita zeruetako erresuma. Dohatsu zarete izanen, aha-paldika hariko zarozkitzuetenean, eta jazarrika erabilten zaituztenean, eta ene gatik zernahi gaizki gezurrez eraunt-siko dutenean zuen kontra : boz zaitezte, eta jauz zaitezte, zeren nasaya baitago zuen saria zeruetan :

DEDIKAZIONEKO PHESTA

JESUS ZAKEOREN ETCHEN (S. Luc. XIX, 1-11.)

Orduan, Jerikon sarthurik, Jesus hiria gaindi zihoan. Eta han bazen Zakeo deitzen zen gizon bat, eta hura publikanoen aitzindaria zen, eta aberatsa ; eta zabilan, Jesus ikhusi beharrez, nor othe zen ; eta etziron jende ostearen gatik, bere heinean ttipia zelakoz. Eta aitzinerat laster eginik, igan zen sikomora ondo baten gainera, Jesusen ikhusteko, zeren handik iragaitekoa baitzen. Eta harat heldu zenean Jesus, begiak goititu eta ikhusi zuen, eta erran zaroen : Zakeo, jauts zaite laster, egun zure etchean egon behar bainaiz. Eta berchala jautsirik, Zakeok bozkarioz hartu zuen bere etcherat.

Eta hori ikhusi zutenean, guziak erasiaka hari ziren, ziotelarik gizon tzar baten gana aldaratu zela. Zakeok berriz, Jaunaren aitzinean galditurik, erran zioen : Jauna, huna non emaiten dutan ene onthasunen erdia jende beharrei ; eta norbaiti egin izan badiot zerbait bidegabe, laurkun bihurtzen diot. Jesusek erran zioen : Salbamen-dua etche huntan sarthu da egun, zeren gizon hau ere Abrahamen umea baita. Alabainan gizonaren Semea, galdua zenaren bilhatzera eta salbatzera da ethorria.

HILEN MEZAN

JESUS DA PHIZTEA ETA BIZITZEA (S. Joann. XI, 21-28.)

Orduan Marthak erran zuen Jesusi : Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaya. Bainan oraino ere

badakit Jainkoari galdaturen diozkatzun guziak, Jainkoak emanen darozkitzula. Jesusek ihardesten dio : Phiztuko da zure anaya. Bai, dio Marthak, badakit phiztuko dela azken eguneko phiztean. Jesusek erran zioen : Ni naiz phiztea eta bizitzea : ene baithan sinhesten duena, hila balitz ere, biziko da ; eta bizi den eta ene baithan sinhesten duen edozein, ez da hilen behinere. Sinhesten duzu hori? Ihardetsi zioen : Bai, Jauna, sinhesten dut nik Kristo zarela, Jainko biziaren Semea, mundu huntara ethorri zarena.

SEIGARREN ZATHIA

ELIZAKO-PHESTAK

Haurrak, gogo-bihotzetan barna ezarri behar ditu bi elizako-phesta : *la Sainte Enfance* eta *Komunoine handia*.

I. SAINTE ENFANCE

Obra hori moldatua izan da Frantzian joanden mendean, 1844 urthean. Moldatzaile lehenak : Mgr Forbin-Janson eta Pauline Jaricot.

Zer da obra horren chēdea?

Nahi du obra horrek haurreri irakatsi, behar dutela zerbeit egin, paganoen konbertitzeko eta bereziki Chinako fededunnen, oroz gonetik Chinako haurren Jainkoari buruz itzularazteko.

Haurrek, bihotz ona dute. Aise komprenitzen dute laguntza eman behar dutela Chinako haur paganoeri. Hilabethean, hogoi sos emanaraziz haur bakotchari, obrak biltzen du diru ederra. Diru horrekin, Chinako misionestek egiten dute, urrungo lurretan, lan baliosa arimen salbatzeko.

Urthe guziez, obra horri esker, badira bataiatuak, bortz ehun mila haur baino gehiago. Hetarik ainhitz zerurat badoazi, aingeru eder, bataiatu orduko.

Ehun mila haurrez goiti biltzen du obra horrek, moldategietarat eta eritegiatarat. Haur horietarik asko, egiten dira edo apez edo serora.

Aita Sainduak gain gaineretik goretsi du obra hori. Leon hamahirugarrenak erraiten zituen solas hok : obra hortan behar litazke sarthu munduko haur guziak.

Pio hamekagarrenak oraiko Aita Sainduak solas bertsuak adiarazten dauzkigu : Nahi nuke parropia guzietan phesta hori izan dadin zelebratua. Egun hortan predikaria mintzatuko da misionez, misionesten obra ederraz. Girichtino guziek behar dute komprenitu egimbide dutela misionesten laguntzea, beren othoitzez eta beren emaitzez.

Obra horrek emaiten du haur paganoeri arimako grazia eta haur girichtinoek bihotzean sendi dute arimen amodioa eta heien laguntzeko lehia bizia.

Sainte Enfance obra horrek badu bere hilabethekaria. Aski da galdatzea adreza huntan : 44, Rue du Cherche-Midi, Paris, VI^e.

Nola zelebra phesta hori?

Igande batez, othoitz guziak egin eta eginaraz chede hortara. Predikua ere misionez, misionestez, arimen salbatzeaz.

Bezperak ondoan, haurrak joanaraz aldare aintzina eta han, belhaunikaturik daudela, eginaraz othoitz hau :

Denek betan : O Jesus Haurra, benedika gitzatzu.

Batek : O Jesus maitea, hur huntan zinelarik, haurrak heldu ziren zure ganat. Eta zuk, besarkatzen zinituen eta benedikatzen.

Denek : O Jesus Haurra, benedika gaitzatzu.

Batek : Leku salbaietan bezala badira gure Frantzia maitean ere, zu ezagutzen ez zaituztenak. Egun, gu ikustearekin, segur niz kontent zirela.

Denek : O Jesus Haurra, benedika gaitzatzu.

Batek : O Jesus maitea, gu ere bekatorosak gira eta jadanik gaichtoak. Bainan badakigu, hor zaudela Tabernakle sainduan Iguzki saindutik eta Tabernakle barnetik, guri so zaude amodiorekin. Lagun gaitzatzu bekatuari uko egiten eta hobeak bilhakatzen.

Denak : O Jesus Haurra, benedika gaitzatzu.

Batek : Benedika gaitzatzu, Salbatzaile maitea, eta gu benedikatzean, ez ahantz gu maite gaituztenak eta guri ongi egiten ari duenak. Gure ait ama maite maiteak, gure eskol emaileak, eta gure ongi-egile guziak.

Benedikazkitzu denak. Denek maita zaitzaten, denak on izan ditzen.

Zure grazien ordainez, guk, eskaintzen dauzkitzugu gure bihotzak. Harkitzu gure bihotzak, begira eta santifika gure bihotzak. Izan gaiten beti zure haur maite eta zure adichkide min.

Hori dautzuegu galdegiten, Jauna, azken aldikotz, Andredena Maria, gure amaren izenean.

Denek betan : O Jesus Haurra, benedika gaitzatzu guziak.

II. KOMUNIONE HANDIA

Egun hortako zeremoniak, herri bakotchak baditu bereziak. Atchik zeremonia horiek, egin ahala arthoski.

Meza demboran.

Asko lekutan, komuniant batek, argia eskuan harturik, denen izenean barkamendu galdegiten du. Huna nola eman ditakeen galde hori.

Ait'ama maiteak,

Egun handia, egun hau, zuentzat eta guretzat. Zuen aintzinean, eginen dugu egun, girichtinoaren urhats handienetarik bat, gure komunionea. Zuen aintzinean gira aratsaldean, aldere gainera iganen eta gure eskua Ebanjelioaren gainean pausaturik, hitzemanen dugu beti Jesukrichtori jarraikitzea.

Zuen begiak guri beha egonen dira landatuak. Zuen

gogoak bat eginen du gure gogoarekin. Zuen bihotza eta gurea elgarri josiak egonen dira.

Ait'ama maiteak, zuek zirezte, guri, Jainkoak eman ongi-egile handiak. Gure sortzeko egunetik hunat, ez daukuzue ongirik baizik egin. Ait'ama maiteak, onharkitzue egun gure esker onak.

Zorigaitzez, ez ditugu behar bezala bethe gure egimbideak. Orai dugu komprenitzen, orai bakarrik, zombat griña ukan duzuen gutaz, zombat artha, zombat maina. Ontsalaz, zuen lana behar ginuen errechtu. Dorpheago dugu egin, gure faltaz.

Askotan, ez dugu onhartu, zuen larderia; arrapostu tcharrak eman daukitzuegu. Atsegabetan ezarri zaituztegu gure jite gaichtoaz eta gure alferkeriaz.

Ait'ama maiteak, barka gure hutsak.

Oraidanik eta betikotz, uko egiten dugu gure estakuru gaichtoeri. Haimbertzetaraino pairaazi dautzute. Hemendik goiti, zuek erran guziak nahi ditugu egin eta zure grazia lagun, uste dugu hitza atchikitzea.

Meza demboram, apezak eskainio du, ostiarekin betan, gure borondate ona eta gure chedeak. Ait'ama maiteak, dembora berean, egizue, zuek ere, zuen eskaintza, gurekin batean. Jainkoari eskaintkutzue gure izaiteak. Hitze-man Jainkoari arthoski begiratuko gaituzuela beti ondoko urthetan.

Oraidanik sartzen gira gaztetasunean. Molda gure bihotzak, Jesusen idurira. Gure bizi guzian egin gaiten zuen haur maite maiteak. Agian, denak. Halabiz.

*Bezperak Demboran
Bataioko agintzen arraberritzea.*

Eskerrak, ene Jainkoa, zeren deithu bainuzu erlisione girichtinora eta, bataioari esker, zure haurren lerroan ezarri. Ez nuen orduan fagore handi hori komprenitzen ahal. Aitabitchi amabitchiak, ene izenenan, uko egin zuten Satani, haren obreri, haren pomperi.

Bainan, zorigaitzez, zoin gaizki ez ditut atchiki ene

agintzak ! Zombat aldi ez ditut ostikatu bataioko egimbideak ! Ene urhatsez, desohoratu dut ene girichtino izena ! Bekatu egin dut zure kontra, ene Jainkoa eta ene Aita, bainan egun, heldu nitzautzu bataioko agintzen erreberritzera. Elizaren aintzinean hartzen dut chedea, bataioko agintzen arabera ibiltzea.

Bai, bihotzaren erditik uko egiten dut Satani eta Jainkoaren kontra agertzen diren guzieri, ostikatuz elizaren erakaspina.

Bai, uko egiten dut, Satanen obra guzieri, bekatuari, bekatuzko okasione guzieri.

Uko egiten dut haren pompa guzieri, munduari, arinkerieri, haren sinheste makur guzieri.

Sinhesten dut Jainkoa bakarra, hiru presuna baithan. Aitak kreatu nau haren zerbitzatzeko eta maitatzeko. Semeak eman izan du bere odola ene salbatzeko.

Izpiritu sainduak bere dohainez aberastu nu, zerurat heltzeko.

Nahi naiz bizi eta hil, sinheste osoarekin eta Eliza katolikoan.

Benedika, Jauna, agintza horiek.

Zu, Andredena Maria, ene ama, har nezazu zure gerizan.

Zu, ene Aingeru begiralea eta zu ene Patroin saindua, ardietsadazue Jainkoaren ganik, beti girichtino on eta kartsu egoitea. Halabiz.

Ama Birjinari konsekrazioneko akta.

Aingeruen eta gizonen erregina, Andredena Maria, egun zure Seme maitea jeutsi da ene bihotzera. Heldu gitzautzu gure bihotzen eskaintzera eta zure gerizaren galdegitera.

Izan zaite, ama Birjina, gure erregina, gure arartekoa, gure ama eta onhar gaitzatzu zure haurren lerroan.

Urrun zazu gutarik, bekatuaren hats pozoindatua. Zure geriza lagun, ez dezagun sekulan zikint gure arima, zure semeak bere odolaz garbitua, egun garbi, mahain saindurat ekarri duguna.

Ikas dezadan, zuk bezala hastiatzen bekatua, mundua eta munduko arinkeriak. Zuk bezala maita dezadan Jesus.

Zure benedizioneak ichurkitzu, nitaz artha hartu duten guzien gainerat, oroz gainetik ene ait'ama maiteen gainera. Heien salbamenduaz dugu griña handia. Nola izan gitazke doatsu, gu, hek ez badute gure dohatsutasunean parte hartzen !

Eta zuk, ama maitea, guk galdegin guziak ardiesten ahal dituzu, sekulan ez da zuri oihu egiten debaldetan.

Gure ait'amak, santifika eta salbazkitzu eta gu ere salba heiekin betan.

Agian egun batez, denak elgarretaratuko gira, haurrak bere ait'amekin eta ait'amak bere hurrekin, zure oinetan zeruan, zu benedikatzeko eternitate guzian. Halabiz.

Jesukrichtori konsekratzeko akta.

Salbatzaile maitea, Jesukrichto, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona, huna nun gaituzun zure aintzinean behauniko.

Guri eman zira ziren guzia. Zuzen da gu ere zuri eman gaiten oso osoa, sakrifizio osoa eginez.

Eskaintzen dautzugu beraz, gure gorphutza, gure arima, gure libertatea, gure osagarria, gure bizia, gure izaitza, eta munduan ditugun guziak. Denak, zure eskuko eta gure salbamenduaren egiteko. Denak, eskaintzen dauzkitzugu. Izan zaite gure erregea eta gure nagusia, orai eta eternitate guzian.

Jainko handia, zure laguntzarekin, gure egungo emaitza egon dadila oso osoa ; ez gaitzatzula utz sekulan zutarik bekatuaz urruntzera.

Lagungaitzatzu bizitzen beti, zure sakramendu sailduaren errezebitzeko gai. Zurekin bat egin dezagun fedeaz, esperantchaz eta karitateaz. Gure bizi guzian egon gaiten zure manamendueri atchikiak. Mundu huntan zu zerbitzatu ondoan, ukan dezagun fagorea dohatsu izaiteko, eternitate guzian, zeruan. Halabiz.

ZAZPIZARREN ZATHIA

KANTIKAK

Zato, izpiritua

ERREPIKA

*Zato, Izpiritua
Kreatzaile saindua,
Bisita zazu hotzak,
Othoi gure bihotzak.*

1

Bethe zazu graziez,
Zerutik egorriez,
Gure adimenduak
Zeronek moldatuak.

2

Kontsolatzaile ona
Izendatzen zarena,
Dohain baliosena
Jaun zerukoarena.

3

Ithurburu bizia,
Amodio garbia,
Karitate khartsua,
Gantzukari saindua.

Abendoko

I. — Zato, Jaun.

Zato, Jaun amultsua, biziaren ithurria,
Mesias dibinoa, zato, zato, zato.

1. Ah ! lehia ethortzera,
Zato laster gutartera
Ifernutik libratzera...
2. Duela bi mila urthe
Guri agindua zare ;
Zato beraz, ager zaite.

3. Iguzkia, noiz ilkhiko
Zare gu argitzeko,
Ilhumbetarik khentzelo?
4. Satan beltzak hersten gaitu.
Zuk libraturen gaitutzu,
Esperantza zutan dugu.
5. Beha gure miseriak,
Ah ! ez adi justizia,
Bainan miserikordia.
6. Entzun zatu auhen minak,
Bai othoitzak, bai nigarrak,
Hambat demboraz eginak.
7. Zuk gaitutzu salbatuko,
Ifernutik urrunduko,
Zeruan sarraraziko.
8. Zato beraz Jainko ona,
Zato gure ontasuna,
Eta gure zoriona.

II. — Jesusen ama saindua.

1

Kanta zagun guziek
Ahalik gorena ;
Lauda zagun Maria
Andre handiena.
Jakín zuen zerutik
Zer zen gerthaturen,
Birjina gelditurik
Zela amaturen.

2

Gure salbamenduaz
Errazu, Maria
Nork ekharri zarotzun

Zerutuk berria?
Gabriel Aingeruak
Etchean sarthurik,
Jainkoari zeruan
Gu urrikaldurik

3

Zer Aita eternalak
Zuen gaztiatu?
Gabriel Aingerua
Nola zen mintzatu?
Salutatzen zaitugu,
Birjina Maria,
Grazia da zurekin
Eta Jaun handia.

4

Zein lekhatua zinauden
Hitz hauk aditzean
Gabriel Aingeruak
Zu salutatzean?
Galilean nindagon,
Herri ederrean,
Ene gelan baxharrik
Debozionatean.

5

Gabriel Aingeruak,
Zu salutaturik,
Eman izan zarotzun
Deus bertze berririk?
Kontzebituko duzu,
Zioen, sainduki ;
Seme izanen duzu
Jainko bat segurki.

6

Maria othe zinen
Zure baithan laztu
Hitz horiez zenean
Gabriel mintzatu?
Bai, ez bainuen nahi
Sekulan ezkondu,
Ez eta Birjinaren
Ohorea galdu.

7

Aingeruak zer erran
Zarotzun Maria,
Iklusirik zinela,
Trublatsu guzia?
Izpiritu Saindua
Da seinalatuko ;
Mirakuilu hori du
Berak obratuko.

Eguberriko

I. — Oi Eguberri gaua.

1

Oi ! Eguberri gaua
Bozkariozko gaua,
Alegeratzen duzu
Bihotzean Kristaua,

2

Mundu guzia duzu
Zorionez bethetzen.
Zeren zuk baitiozu
Mesias dela sortzen.

3

Gau ilhunean ez da
Ikhusten iguzkirik ;
Huntan agertzen zaiku
Mirakuiluz ilkirik.

4

O ! gau desiratua,
Argia duzu phiztu,
Zeinak mundu guzia
Behar baitu berritu.

5

Argizagiak dire
Bozkarioz dantzatzen
Dutela ohi baino
Gehiago argitzen.

6

Aingeru onak berriz
Hasi dire kantatzen
Bozterat dituztela
Tristeak gombidatzen.

7

Errepikatzen dute
Maniuterez artzainek
Hekieri diote
Ihardesten larrainek.

8

Arrainak hari dire
Jauzika ur barnean,
Abreak mendietan,
Hegastinak airean.

9

Gauza guziak dire
Orai alegeratzen ;

Orobat egiterat
Gaituzte arkhartzen.

10

Ifernuko ostea
Gau huntan da tristatzen
Haren zentzatzalea
Zeren den orai sortzen

11

Idolak aldaretan
Betan dire muthutu ;
Aztiak arrazoina
Laster dute galdetu

12

Bertzerik ez dirote
Deusere ihardetsi,
Haur batek dituela,
Baizik ichil-arazi.

13

Ichildu behar zuten,
Guk ordainez kantatu.
Zorionean dela
Jainko Semea sorthu.

II. — Atzar gaiten.

ERREPIKA

Atzar gaiten, atzar lotarik,
Gau huntan da Jesus sortzen ;
Amodiak garhaiturik,
Gure gatik da ethortzen... (*bis*)

1. Gu zerurat nahiz altchatu
Jesus jausten da lurreat ;

Heldu da, gu nahiz salbatu,
Gorphutz hilkor bat hartzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

2. Ala haren laudorioak
Behar baititugu kantatu !
Ala gure bozkarioak
Behar baitu seinalatu !
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.
3. Bekhatua, munstro tristea,
Hoa hire leze beltzerat ;
Ethorri duk Jesus maitea
Hire obren urratzerat.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.
4. Zerk gaitu bada gibelatzen
Hel gaiten hel Jesus gana ;
Bekhatoren gatik da sortzen
Saindutasuna bera dena.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.
5. Ikhusgarri mirestekoa !
Oi hau da humiltasuna !
Zeru beraz goragokoa
Maniateran da emana.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.
6. Erregen errege delarik,
Ez du nahi distiratu ;
Ez du nahi palaziorik,
Heia tchar bat du hautatu.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.
7. Hotzaz ere da penatua
Sasoinen manatzailea ;
Guziez daza gabetua
Guzien kreatzailea.
Atzar gaiten, atzar lotarik, etc.

III. — Gau erdi da.

1. Gau erdi da ; orok, giristinoak,
Jesus Haurra dezagun adora ;
Gau erdi da, eta gure Jainkoak
Du igortzen Berboa lurrera.
Mundua da bozkariotan sartzen,
Ikhusirik Jesus gaur sortua ;
Eguberriz du gizona salbatzen :
Kanta, kanta besta dohatsua (*bis*).
2. Oro ginen etsaiaren azpian
Lehertuak, oi zorte tristea !
Ifernuak bai bere malezian
Zaukun khendu zeruko gorthea.
Bainan egun gure gathe dorphea.
Haurtto batek da porroskatua ;
Eguberrik du salbatu mundua
Kanta, kanta Jesusen sortzea (*bis*).
3. Lasto pean hanche dago etzana ;
Begiak tu nigarrez bustiak ;
Gure gatik doloretan emana,
Gu nahirik salbatu guziak.
Bekhatoros, baita arima justuak,
Bere ganat gaitu deitzen betan ;
Oroz beraz bihotzak juntatuak,
Kanta kanta besta handi huntan (*bis*).
4. Zerutikan gure gatik jautsia,
Pobrezian Jesus da aurkhitzen.
Horrela du eremanen bizia,
Urguilua duela zapatzen.
Aingeruek, gu lagun gaitzatzue
Jainkoari eskerren bihurtzen.
Orok betan, orok kanta zazue,
Kanta, kanta Jesus dela sortzen (*bis*).

IV. — Oi Bethleem.

1. Oi ! Bethleem !
Ala egun zure loriak,
Oi ! Bethleem !
Ongi baitu distiratzan !
Zu ganik heldu den argiak
Bethetzen tu bazter guziak
Oi ! Bethleem !
2. Gure gatik
Jainko bat botherez bethea,
Gure gatik
Jausten da zeru goratik ;
Bai, sortzen da Jesus maitea,
Biktima notharik gabea,
Gure gatik.
3. Artzainekin
Heldu naiz zu gana lehiaz,
Artzainekin,
Hek bezala nahiz egin,
Adoratzen zaitut, Mesiaz,
Eta maite bihotz guziaz,
Artzainekin.

V. — Gloria in excelsis.

1. Gau erditan aingeruek
Betbetan dute kantatzen
Eta aldeko mendiek
Baltsan dute ihardesten :
Gloria in excelsis Deo (bis).
2. Errazue, artzain onak,
Norentzat besta horiek?

Nork tu merezitu kandak,
Zertako kantu horiek?
Gloria in excelsis Deo (bis).

3. Horiek dute erraiten
Jesus Haurra dela sortu.
Behar garela erraiten
Alegrantzietan egun sartu.
Gloria in excelsis Deo. (bis).

4. O Jesus, Salbatzailea,
Orok zaitugu laudatzen !
Jesus, gure erregea
Guziek zaitugu deitzen.
Gloria in excelsis Deo. (bis)

VI. — Airerik ederrenetan.

1. Airerik ederrenetan } (bis)
Dugun orok betan }
Kanta Jesusen sortzea,
Haren zerutik jaustea ;
Ethorri da gure gana, } (bis)
Oi zer zoriona ! }

2. Zeruko aingerueri } (bis)
Eta saindueri }
Junta tzagun gure bozak
Orok arima bihotzak ;
Jesusen adoratzerat } (bis)
Goazen Betlemerat ! }

3. Utzkitzue, utz artzainak, } (bis)
Zuen arthaldeak ; }
Zuek zaituzte galdetzen,
Pobreak tu gombidatzen
Errege sortu berriak, } (bis)
Mesias maiteak. }

VII. — Gaur sortu da.

ERREPIKA

Gaur sortu da Jesus haurra,
Oi ! hau zeruaren presenta !
Gaur sortu da Jesus haurra,
Dugun bozkarioz kanta !

1. Aingeruek gau erditan
Alegrantziaz derasate.
Jainko bat zaikula sortu,
Kanta errepikaz diote.
2. Izarretako Jainkoak
Ohetzat du bere aska ;
Amak hazi beharra da
Zeru lurren bazka dena !
3. Zu Jainkoaren Semea,
Zu Aitaren distiradura,
Zu othe zare mundua
Ahurrean daukan hura !

VIII. — Dugun alegrantzietan.

ERREPIKA

O ! Jesus, zure graziak }
Kanbia gaitzan guziak ! } (bis)

1. Dugun alegrantzietan
Kanta Jesusen sortzea.
Gure ahal guzietan
Ohora Jainko Semea.
2. Errepikaz aingeruak
Entzuten dire kantatzen ;
Gu ere, loriatuak,
Has gaiten Jauna laudatzen.

3. Jesus erregez, artzainez
Izan da adoratua ;
Ah ! gutarik gehienez
Nola da ezagutua?

Trufania

Kristo guziek dezagun egun adora (*bis*)

1. Hauche da izarra agertzen dena !
Berri bat dakharke den handiena,
Jesus maitearen sortzearena.
Kristo guziek, etc.
2. Hirur erregeak ditu gidatzen,
Jesus haurra gana dire hedatzen ;
Presentekin dute han adoratzen.
Kristo guziek, etc.
3. Mirra, isentsua eta urhea
Ekhartzen dautzute, Salbatzailea,
Zuri eskaintzeko present bedera.
Kristo guziek, etc.
4. Gaspar Erregeak, Jainko handia,
Adiarazten du mirraz egia,
Gizona zarela larruz beztia.
Kristo guziek, etc.
5. Baltazarrek emaitan urhea,
Bai, dio zarela, Jesus maitea,
Errege guzien lehen printzea.
Kristo guziek, etc.
6. Melkhiorek ere du sinhestea,
Dauku isentzuaz eman fedea
Egiaz zarela Jainko Semea.
Kristo guziek, etc.
7. Hitz batez hirurek fede osoa
Badute zarela Jaun zerukoa,
Gizona, Monarka eta Jainkoa.
Kristo guziek, etc.

Kurutzea

I. — Jesus kurutzera.

1. O Jesus Kurutzera
Ni gatik igan zarena !
Ene gaztigatzera
Maiz behartzen zaitudana !
Orai zure aldera
Bihurtzen naiz Jainko ona !

ERREPIKA

Ah ! orhoit zaite odola
Enetzat eman duzula !

2. Zure amodiak
Ez banau, Jauna, salbatzen.
Ene bihotz gaichtoak
Sutara nau kondenatzen :
Zure jujamenduak
Borthizki nau ikharatzen.
Ah ! orhoit, etc.

3. Deithu nauzu eztiki
Zure grazia sainduaz ;
Egotu naiz lazoki,
Enganatua munduaz.
Orai dolu dut finki
Ene zoramenduaz.
Ah ! orhoit, etc.

II. — Kurutzearen bidea.

1. Kurutzearen bidea
Dugun egin, Kristau maiteak.
Salbamenduko bidea
Ideki dauku Kurutzeak. (*bis*)

ERREPIKA

Kurutzea beraz bethi }
Dezagun lauda goraki. } (*bis*)

2. Aldare haren gainean
Ofreitu da gure biktima,
Bai, Jesusen odolean
Han garbitu gure arima,
Kurutzea beraz...

3. Kurutzeari itzatua
Jesus maiteak gure gatik
Garhaitu du ifernua,
Bizia emanik gogotik.
Kurutzea beraz...

4. Arbola baten fruituaz
Dohakabeak ginen galdu.
Hunek ekharri daukunaz
Giren guziak gare salbatu.
Kurutzea beraz...

5. Orotarik ilumbeak
Gu ginituen inguratu ;
Bainan Jesus iguzkiak
Gaitu kurutzetik argitu.
Kurutzea beraz...

III. — Oi Kurutzea !

ERREPIKA

Oi kurutzea ! Oi kurutzea ! }
Kurutze saindu maitea ! } (*bis*)

1. Zure besotan, oi kurutzea,
Hil zaiku Jesus Maitea :
Haren kurutzefikatzaila
Ni naiz ni bekhatorea ! (*bis*)

2. Jesu Krichtoren odolak zaitu
Galbarioan gorritu !
Deusek geroztik munduan ez du } (bis)
Zuk bezembat dirdiratu !
3. Bertzorduz hemen etsai gaichtoa
Zutaz izan zen ehoa :
Zure indarra da Jainkozkoa, } (bis)
Deusek ezin hautzizkoa !

Bazko

I. — Phiztu da lorios.

1. Phiztu da lorios
Jesus hilen artetik
Igan bitorios
Zerura gure gatik ;
Eta ni munduan
Hila bekhatuan :
O heriotze trichtea
Bekhatuan bizitzea !
2. Nik ere nahi dut,
Jauna, zurekin phiztu :
Bethi nahi zaitut
Orai danik maitatu,
Uzten dut mundua,
Arras bekhatua,
Ez, ez dut nahi bizirik
Zu zerbitzatzeko baizik.
3. Urtchoa bezala
Noiz naiz hegaldaturen?
Noiz naiz berehala
Zu ganat hedaturen?
Gaizkia uzteko,
Zurekin, phizteko,
O Jesus ! ene guzia,
Othoi, indazu grazia.

II. — Jesus hilik phiztu.

1. Jesus hilik phiztu, oi zer bozkario !
Ni ere berekin phiztu nau grazian.

ERREPIKA

Agur, agur, agur Maria ! (bis)

2. Oi zer ezagutza, oi zer amodio
Bihurturen diot bizitze berrian !

Bihotz sakratua.

I. — Bihotz Jesus maitearena.

1. Bihotz Jesus maitearena,
Graziaren ithurria,
Hemen naiz, Bihotz samurrena,
Zure ganat ethorria.

ERREPIKA

- O ezin aski laudatuzko
Bihotz garbi sakratua,
Noiz zaitut bada maithatuko?
Zerk nauka sorhaitua? (1)
2. Bihotz enetzat sustatua.
Berant zaitut ezagutu ;
Bihotz ezti, preziatua ;
Helas ! ez zaitut maitatu.

(1) BESTE ERREPIKA

Ohora, adora dezagun orok egun
Jesus gure Jainko Jauna.
Helaraz, helaraz gaitzazu
Zezurat, zu ganat, } (bis)
Zure loriarat.

3. O bihotz nahikarazkoa,
Munduak nau enganatu ;
Tresor guzien gainekoa,
Ez zaitut aski prezatu.
4. Bihotz, ihesleku segura
Kreatura guzientzat :
Amodiozko gaindidura,
Zer egiten dut zuretzat?

II. — O Jesusen bihotz samur.

ERREPIKA

O Jesusen bihotz samur,
Enetzat idekia,
Othoi, emazu neurean
Zu ganako lehia.

1. Ikusiz zure burua
Elhorriez bethea
Niholere ez dut nahi
Lore pean neurea.
2. Jasanen dut kurutzea
Gogotik, zuk bezala ;
Sekulan salbamendurik
Ezin duket bertzela.
3. Egizu onhets dezadan
Zuk onhesten duzuna ;
Dezadan higuin osoki
Higuingarri zaitzuna.

III. — Dugun bethi lauda.

ERREPIKA

Dugun bethi lauda }
Jaunaren ontasuna. } (*bis*)

1. Ohore, aingeruak,
Zuen Jainkoari,
Esker handienak
Nausi guzizkoari.
2. Artzain on bat bezala,
Gal gaiten beldurrez,
Ondotik dabila
Bere ahal guziez.
3. Jainkoa da izanen
Ene min guzia
Eta arimaren
Graziasko bizia.

IV. — Kristo erregeri agur.

ERREPIKA

Kristo Erregeri, Eskualdunek agur,
Kristo Erregeri, agur, agur (*biz*).

1. Itsaso, mendiak, ibai zelaiak,
Zuretzat eginak, dira zureak.
Ureko uhainek, Mendiko oihanek,
Kristo, Agur !
2. Airean doatzen chori ederrek
Lurreko ihizi handi hazkarrek,
Pentzeko loreak, Zeruko izarrak,
Kristo, Agur !
3. Aingeru guzien Errege Jauna,
Errege' re zira Gizonarena :
Nun da Erregerik zu bezalakorik?
Kristo, Agur !
4. Erregen Errege hola zirena,
Nola othe zira atze egina,

Zuhauren etchean, Zure erresuman?
Kristo, Agur !

5. Tokiz toki zira herrestatua,
Mihi guzietan laidostatua !
Ororen Errege, Trufatzen zaituzte !
Kristo, Agur !
6. Orotarik kampo emana zira...
Zato gurekila Eskual-Herrira :
Zure gira oro, orai eta gero,
Kristo, Agur !
7. Lur hau oro zuri kendurik ere,
Zerua gelditzen zauzu halere.
Zeru hortarat gu, helaraz gaitzazu !
Kristo, Agur !

Sakramendu Sainduari

I. — Jesusen azken afaria.

ERREPIKA

Adora dezagun menderen mendetan
Jesus Jainko Jauna Sakramendu huntan.

1. Jesus amodioz bihotza gaindian,
Zein miragarri zen azken afarian !
Guretzat zelarik hiltzerat abian,
Gerokotz ere zen gurekin nahian.
2. Apostolueri erraten diote :
« Ni gaur saldua naiz ; bihar hilen naute.
Aitaren ganako dembora zait bethe.
Huna orai zembat zaituztedan maite. »

3. Ogia harturik mintzo da Jainkoa ;
« Hau da ene Gorphutz gurutzerakoa. »
Gero kambiatuz orobat arnoa :
« Hau dut ene odol ichuri gogoa. »
4. « Ene gorphutz hau da zuen janaria ;
Ene odol hau da zuen edaria.
Hautan dut finkatzen Testament berria,
Zuenkin neraukan bihotz-lokharria ».
5. Sakrifizio'ta Sakramendu Saindu,
Jesusek egoitza gurekin hemen du.
Gu nahiz altchatu bera da aphanu ;
Oro nahi gaitu bere gana bildu.
6. Ogi eta arno itchurez iduri,
Itchuretan Jesus itzaltzen da guri ;
Izatez hargatik ez arno ez ogi :
Jesus ber-bera da sakramendu hori.
7. Aldare sainduko sakrifizioa
Ber-bera da nola Galbariokoa ;
Berdin-berdina da bien balioa,
Bietan bera da Bitima Jainkoa.
8. Gurutzean Jesus odolez hustu zen :
Odol bera dugu Mezan ezagutzen.
Bainan Mezan ez du odolik ichurtzen.
Phizturik ez baita gehiago hiltzen.
9. Iduri bakhotcha zathitzen denean,
Jesus osorik da zathi bakhotchuan :
Jesus ez da hausten, ostia haustean,
Ez eta mendratzen, hura gutitzean.
10. Michterio huni, o Kristau maitea,
Gorphutzeko begiz bakharririk ez beha :
Huntako begia da guziz Fedea.
Bihotz garbiak du bichta hoi hobe.

II. — Huna bildots eztia.

ERREPIKA

*Huna bildots eztia,
Egiazko ogia,
Zerutik da jautsia ;
Dugun adora.*

1
Da gur'Artzain ona,
Kreatzailea,
Aita hoberena,
Salbatzailea.

2
Ostian zarela
Dugu sinhesten ;
Zeruan bezala
Hor zu kausitzen.

3
Adoratzen zaitut
Jesus eztia,
Othoi emadazut
Fede bizia.

4
O Bihotz maitea
Deitzen gaitutzu
Gutan egoitea
Bilhatzen duzu.

5
Eskaintzen derautzut
Ene bihotza.
Othoi bero zazu.
Ezen da hotza !

6
Ene nahia da
Zu maithatzea,
Maithatzean baita.
Choilki bethea.

7
Bethe, zazu, Jauna,
Ene desira !
Nik nahi dudana.
Jesus, zu zira !

8
Zaitut maitatuko
Orai lurrean.
Gero maithatzeko
Zure gorthean !

9
Zoin naizen flakoa
Ikhusten duzu !
Mana zerukoa,
Azkar nezazu !

10
Horra non heldu den,
Gaitezen ichil !
Prest egin gaitezen,
Hemen da hurbil !

III. — Oi ! mirakuilu guziz.

1. Oi ! mirakuilu guziz espantagarria !
Ogiaren iduriz Jesus estalia !
Hura dut adoratzeko aldare gainean,
Hura bera dut jaten komunioan.
2. Ene begiek Jesus ez dute ikhusten,
Gorphutzeko sentzuek ez dute sentitzen ;
Bainan duda gabe dut han dela sinhesten ;
Fedeak argiturik, han dut ezagutzen.
3. Jesusek-egin zuen azken afaria,
Janharitzat emanik bere haragia ;
Haragi saindu hura jaten dut nik ere ;
Hura janik uste dut bizi bethiere.
4. Kurutzefikaturik, enetzat hil dena,
Lorioski phizturik, zerurat igana ;
Hura da sakramendu hortan ezarria,
Hura bera lurrean ene janharia.
5. Biziaren arbola guziz aiphatua,
Baratze dohatsuan jaunak landatua.
Aurkhitzen da neuretzat komunioea ;
Nik han dut edireiten ene bizitzea.
6. Israelek jan zuen desertuan mana,
Gostu guziak bere baithan zituena ;
Jesusen gorphutza da neure janharia,
Desertu huntan ene kontsolagarria.
7. Jainkoaren mendirat izan zen Eliaz,
Sainduki borthizturik jan zuen ogiaz ;
Jaten dut aldareko ogi sakratua ;
Hartaz nik ardietsi uste dut zerua.
8. Urerat du lehia orkhaitz nekhatuak,
Beroz ta ihiztariz betan penatuak ;
Hala dut desiratzen, nik zure ogia :
8. Othoi sosega zazu ene gutizia.

9. Choriek badituzte beren ohantzeak.
Urzo ttorttoilek ere non eman umeak ;
Nik zure aldaretan dut iheslekha,
Han baitut edireiten ene sosegua.

IV. — Zer zorion.

1. Zer zorion, oi hau da fagorea !
Horra, horra zeruko Jainkoa.
Jautsia da gure aldaretarat
Gure gatik sakrifikatzerat

ERREPIKA

*Zato, zato, ene Jesus maitea,
Zu zare, zu, ene ontasuna!
Oi zer dohain ezin prezatuzkoa
Huna, Jesus, ene zoriona (bis).*

2. Sinhesten dut, ene Salbatzailea,
Zu zarela ostian emana,
Zeruetan nausi zaren bezala
Majestateguzia bethea.

3. Jesus ona, saindutasuna bera,
Nola izan ni zure egoitza,
Nola beraz bekhatore tristea,
Errezebi ene Jaun handia.

Jesus ona noiz zaitut pagatuko,
Ez dut deusik zuri bihurtzeko,
Nitan balitz zure gogorakorik
Ah! zuretzat litazke gogotik.

V. — Oi ! zer ogi dut ikusten.

1. Oi ! zer ogi dut ikhusten
Gure aldaretara
Zeru gorenetik jausten
Arimen bazkatzera.

ERREPIKA

Bihotz kartsua,
Amultsua,
Ene janhari zare bilhakatzen :
Ordainez nola zaitut maitatzen ?

2. Jaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen.
Oi ! hau da misterioa !
Gizona Jainkoztatzen !
Bihotz khartsua, etc.
3. Enekin bat egitea
Duzu bada bilhatzen.
Zer duzu, Jesus maitea,
Ene baithan aurkhitzen ?
Bihotz khartsua, etc.
4. Hau da nere zoriona !
Zembat ontasun betan !
Salbatzaile guziz ona,
Nola, zu ene baithan !
Bihotz khartsua, etc.

VI. — Sinhesten dut.

ERREPIKA

Sinhesten dut, sakramendu sainduan.
Jesus ona, zu zarela ostian,
Sinhesten dut, sinhesten dut.

1. Jesus Jauna, oi ! ene Nausia,
Amodioak zaitu hola ezeztatu.
Ni ere ordainez zurea naiz guzia :
Nahi zaitut bethi ere maithatu.
2. Jainko guziz puchant eta handia,
Ene bekhatuek naute ahalgetzen.
Errezebi zazu nik dudan urrikia,
Bihotzetik ditut oro higuintzen.

3. Jauna, zure hitz bakhar bat aski da,
Bekhatutik arras gurè garbitzeko,
Errazu hitz hura, mediku dibinoa,
Aski daita gure gaitzen ontzeko.

VII. — O Jesus ona.

1. O Jesus ona, zu zaitut nik galdatzen
Nere arima zu gabe da flakatzen.

ERREPIKA

Zato, o Jesus, nere ontasuna,
Zato, egizu ene zoriona.

2. Kolpatu nauzu zure amodioaz,
Gozatu nauzu zure bozkarioaz.
3. Ene begiez, Jesus, ez dut ikusten,
Bainan fedez hor dela dut sinhesten.
4. Adoratzen dut ostia saindu hortan
Zu estalia, Jauna, nere onetan.
5. Ez naiz ez ni gai zu errezebitzeko
Hitz bat errazu, ai ! nere sendatzeko.
6. Nere arima zuk duzu hazkarturen,
Haren bizia guziz bertzelaturen.

VIII. — Zeru gorenetarik.

1. Zeru gorenetarik, mirakulu handia,
Aitaren eskuinetik hemen da jautsia
Jesus, Jesus.
2. Zeruko aingeruak, lurrerat jauts zaitezte,
Hegalez estaliak, adora zazue
Jesus, Jesus.

3. Zeruko erregea, ogiaren itchuran,
Guretzat estalia, dago aldarean,
Jesus, Jesus.

IX. — Nahi duzue jakin.

1. Nahi duzue jakin nere gutizia?
Jainko onarentzat da ene min guzia.
Ene baithan nago pentsatzen
Noiz ikusiko dudan ene Jainkoa :

ERREPIKA

Ezin bertzela biziz, ah ! hiltzerat noha.

2. Hura dut bethikotzat ene bihotzean ;
Hartaz landa ez duket phausurik lurrean,
Haren gana noha lasterrez,
Harentzat da osoki ene gogoa :
Ezin bertzela, etc.

X. — Zerutik jautsi zare.

1. Zerutik jautsi zare biktima garbia,
Zu zare sakramendu, zu zare ostia,
Arimen janharia, sakrifizioa,
Bata nola bertzea, *Jesus bibinoa* (bis).
2. Ogia da itzultzen zure gorphutzera,
Arnoa kanbiatzen zure odolera ;
Kontsekrazioea han duzu obratzen ;
Zure botherea da *guziz han agertzen* (bis).
3. Oi ! Jesus aldarean enetzat emana,
Ene janhari gozo, ostia zarena,
Eman duzu bizia arimen onetan ;
Oi ! noiz naiz gozatuko *zutaz zeruetan* ? (bis).

XI. — Ohore, amodio.

ERREPIKA

Ohore, amodio
Sakramendu Sainduan
Jesus Jaunari, ohore, amodio
Orai eta bethi.

1. Jesus handia, hor goibeldua
Fedeaz zaitut hemen ikusten,
Maitatzen zaitut eta adoratzen
Aldare hortan, Jaun amultsua.
2. Zerutikako ogi saindua
Zu zare flakoen indar handia,
Senda nezazu, azkar nezazu,
Ereman dezadan bitoria.

XII. — Jesus ona.

ERREPIKA

Jesus ona, oi gure zoriona,
Aldarean zare gure gatik bethi ere.

1. Jainko handia, zer grazia,
Michterio espantagarria!
Ostia huntan, Jesus ogiaren idurian.
2. Zeruetarik, gure gatik,
Jautsi zare Aitaren aldetik,
Gu laguntzeko, amultsuki benedikatzeko.
3. Dezagun maita, eta lauda
Jesus salbatzaile amultsua ;
Kanta, Krichtauak, gure Jainkoaren ontasunak.

XIII. — Oi zer zoriona.

ERREPIKA

Oi zer zoriona ene bihotzean dagoena,
Oi zer zoriona, zuk emanik, ene Jesus Jauna :
Zoriona, Zuk emana, Jesus Jauna (*bis*).

1. Jesus nitan eta ni Jesusekin,
Biek bat dugu orai egiten.
Zer zoriona ! nahi nuke jakin
Jesusentzat amodioz urtzen.
2. Jesus gu baithan delarik egoiten
Zer graziak deraizkun emaiten :
Gu ere hil eta lorios pitz gaiten
Bera zauku jauhari emaiten.

XIV. — Latinez

Benedictus qui venit (*ter*) in nomine Domini.
Hosannah, hosannah, hosannah in excelsis !

Lauda Jerusalem Dominum, lauda Deum tuum, Sion.
Hosannah, hosannah, hosannah Filio David !

Adoremus in æternum sanctissimum sacramentum.

Christus vincit, Christus regnat, Christus, Christus imperat
(*bis*).

Panis angelicus fit panis hominum,
Dat panis coelicus figuris terminum.
O res mirabilis ! manducat Dominum
Pauper, servus et humilis.

Te, trina Deitas unaque, poscimus
Sic nos tu visita sicut te colimus
Per tuas semitas duc nos quo tendimus,
Ad lucem quam inhabitas.

O sanctissima,
O piissima,
Dulcis Virgo Maria,
Mater amata,
Intemerata,
Ora , ora pro nobis.

Salve Mater misericordiæ
Mater Dei et mater veniæ,
Mater spei et mater gratiæ,
Mater plena sanctæ lætitiæ,
O Maria !

Salve decus humani generis,
Salve Virgo dignior ceteris,
Quæ virgines omnes transgredieris
Et altius sedes in superis,
O Maria !

Lehen Komunioneke

I. — Besta eder huntara.

ERREPIKA

Besta eder huntara }
Goazen oro betan } (bis).
Sar bedi bat bedera }
Alegrantzietan }

1

Iratzar haur maiteak,
Bihotzak prepara,
Zuen Jainko Jaunaren
Errezebitzera.

2

Hau da egun ederra
Argitu zaukuna,
Gure ganat jiten da
Salbatzaile jauna.

3

Eskerrak deraitzugu
O gure Jainkoa,
Maithatuko zaitugu,
Jesus bidinoa.

4

Zato, bai har gaitzatzu
Zureak gitutzu,
Egoitza zurekilan
Egin nahi dugu.

II. — Lehen komunionekeo egunean.

1º Deia.

1. Haurrak altcha bihotzak zuen Jainkoari ;
Humilia zaitezte Jesus maiteari.
2. Ahuspez suspiretan eta nigarretan
Gaude hemen guziak Jesusen oinetan.
3. Huna non ethorri den Jaunaren eguna ;
Zuen ganat heldu da Salbatzaile ona.
4. Oi ! egun dohatsua ethorri zukuna !
Nork dezake kompreni gure zoriona !
5. Othoitz zaitzue, haurrak, egun handi huntan
Zeruko dohatsuak zuen fagoretan.
6. O Birjina Maria, gure Ama ona,
Guretzat othoitz zazu zure Seme Jauna.
7. Ofentsatu tutzue zuen burhasoak,
Umilia zaitezte egun, haur maiteak.
8. Ah ! othoi, barkhamendu, aita eta ama !
Baketurik gohazen Jainkoaren gana !

2º Komunione aintzinean.

1. Urrun zaitezte, haurrak, bekhatu gaichtotik
Begiak apartatuz haren charmetarik.
2. Adio, bekhatua, adio bethikotz !
Jesus gana gohazik orai sekulakotz.

3. Huna Jesus maitea mahain saindu huntan
Non tutzun haur gazte hauk kharra bihotzetan.
4. Zato, Jesus maitea, zato, zato, zato !
Ez gure zoriona luza gehiago !
5. Jesusen gorphutz eta odol sakratuak
Begira zaitzatela, gure haur maiteak !

3º Komunione ondoan.

1. Haurrak, zuen bihotzek zer othe diote?
Guzien aintzinean erran zaguzue.
2. Bozkario handitan orai gare sarthu,
Zeren Jaunak gaituen egun bisitatu.
3. Zer grazia handia zuen arimetan
Ukhan duzuen, haurrak, orai mement huntan !
4. Nola edo zer gisaz gare mintzatuko
Jesusi esker onen ongi bihurtzeko !
- 5 Hor da orai gurekin altcha orok bozak,
Eta Jesusi eman bethikotz bihotzak.

III. — Arnegatzen dut.

ERREPIKA

Arnegatzen dut,
Bihotzez dut

Satani behin bethikotz ukatzen,
Zerua, lurra, lekuko hartzen.

1

Altcha, goazen bathaioko
Ithurri Sakraturat,
Krichtau egin gineneko
Botuen berritzera.

2

Ardiesteko bizia,
Bermez nautzun hitzeman
Nuela lege guzia
Idukiko demboran.

3. Munduak bere pompekin
Ez nau liluratuko,
Haragiak plazerrekin
Ez nau ez beretuko.

Andredena Mariari

I. — Anjelus.

1. Aingeru batek Mariari
Dio graziaz bethea,
Jaungoikoaren Semeari
Emanen diozu sortzea.

ERREPIKA

Agur, agur, agur Maria (*bis*).

2. Jainkoaren nahi Saindua
Ni baithan dadin egina,
Izan nadien amatua,
Bainan geldituz Birjina.
3. Orduan Berbo Dibinoa
Gorphutz batez da beztitzen,
Oi, ontasun egiazkoa :
Jauna gurekin egoiten !
4. Othoitz azu zure Semea
Gure ama amultsua,
Izan dezagun lagorea
Ardiesteko zerua !

II. — Agur, aingeruen.

1. Agur, aingeruen
Eta zeru lurren
Erregina puchanta ;

Ederra zare Maria
Histen duzu iguzkia
Zein zaren distiranta ! } (*bis*)

2. Graziaren Ama,
Ama guziz ona.
Urrikalmendutsua !
Zure miserikordia
Zein den espantagarria } (*bis*)
Oi zer ihes lekua !

3. Bethi on, amultsu
Kausitzen zare zu
Bekhatorearentzat ;
Ez da hain gozo eztia } (*bis*)
Nola baitzare, Maria,
Ene gostuarentzat.

4. Penatuak diren
Haur dohakabeen
Kontzolazionea ;
Zu zare zu, oi Maria, } (*bis*)
Bekhatoreen bizia.
Loriako athea.

III. — Bozik kantatzen dugu.

ERREPIKA

Bozik kantatzen dugu gure sinhestean
Thona gabe zarela beti danik izan.
Salutatzen zaitugu graziaz bethea,
Thona gabe zarela Birjina Maria.

1

Lorea churi bezain
Zu garbi, Maria.
Garbitasunaz zare,
Birjinen lilia.

2

Adamek bere hutsaz
Ez zaitu kotsatu.
Zutara bekatua
Ezin da hedatu.

3. Zure haurrak garela
Ez ahantz, Maria.
Amatzat, bethi ona
Zaizkigu balia.

IV. — Maria bekhatuak gabe kontzebitua.

1

Amodio ohore,
Ama Birjinari,
Maria notha gabe
Kontzebituari.

Guziek

Agur, agur, agur Maria (bis).

2

Gure lehen aitamen
Bekhatuak ez du
Sekulan Mariaren
Arima goibeldu.

3

Bekhatu gabekorik
Adamen arrazan
Ez zu bezalakorik
Ez da nihoiz izan.

4

Maria zu hain garbi,
Hain saindu sorthua,
Zuk duzu sugeari
Lehertu burua.

5

Jaunak zu bethidanik
Zintuen beiratzen
Zure seme zu ganik
Sortzekoa baitzen.

6

Zutan gauza handiak
Jaunak egin ditu,
Eta haren graziak
Zaizkitzu gainditu.

7

Jaunaren baratzeko
Lore hautatua
Gizon da eta Jainko
Zure fruitua.

8

Emazte pare gabe
Jainkoak egina,
Amatuz geroz zare
Gelditu Birjina.

9

Oi zu, Birjina Saindu
Jainkoaren Ama!
Amatzat guri zaitu
Semeak emana.

10

Zure haurren othoitza
Othoi etzun zazu.
Ama, zure laguntza
Zerutik iguzu.

V. — Uholde baten pare.

1. Uholde baten pare orai bekhatuak
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak,
Nun dire fededunak? nun dire justuak?
Azken eguna hurbil othe du munduak?

ERREPIKA

Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
Hasarre baitugu.

2. Nor da gure artean erran dezakenik?
« Ez naiz ni deusen beldur, nik ez dut hobenik. »
Zuk dirozu, Maria, hain garbi izanik,
Barkamendu ardiets Jainkoaren ganik.

Zuri gaude Maria,
Oihu-ta nigarrez,
Jaunaren justizia
Eztitu beharrez.

3. Gizonen arbuioek aserik Jainkoa,
Bere azotearen higitzera doha.
Nork orai atchik liro Jaunaren besoa?
Zu zare zu, Maria, indar hartakoa.

Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu,
Jainko zure Semea
Hasarre baitugu.

4. Jaunaren justiziaz ikharetan gaude...
Othoi, Ama, jar zaite zure haurren alde.
Haren gana nor hurbil, nor ager zu gabe?
Zu zaitugu zu haren bihotzaren jabe.

Zuri gaude Maria
Oihu-ta nigarrez.
Jaunaren justizia
Eztitu beharrez.

5. Jauna, aithortzen dugu : gutarik hainitzi,
Zuri zer zor dautzugun zitzaikun ahantzi.
Gure Fedea dugu aphaltzerat utzi...
Eskualdunaren ganik ori zaitzu gaitzi !...
Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu ;
Jainko zure semea,
Hasarre baitugu.
6. Lehengo Fede hura berritz phitz-dakigun,
O fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun.
Bai ! Eskualdunek hemen hitzeman dezagun
Bethi zinez izanen garela fededun.
Bai ! Eskualdunek hemen
Hitz eman dezagun,
Bethi zinez izanen
Garela fededun.
7. Elizaren argia Erroman hain handi ;
Gaichtaginen nahia laite hil baladi...
Zuri gare, Maria, denak oihuz ari...
Emozu bitoria Aita Sainduari.
Zuri gare Maria
Denak oihuz ari :
Emozu bitoria
Aita Sainduari.

VI. — Amodioz bihotza.

1. Amodioz bihotza sustaturik,
Ama ona, huna zure haurrak.
Heda zatzu, othoi, zure tronutik
Amultsuki gu ganat begiak.

ERREPIKA

Ama ezta, Ama ona,
Zu zare zu, Maria, gure zoriona.

EDO

- Oi gure esperantza zu zare, Maria,
Salba zazu Eliza, bai eta Frantzia.
2. Iguzkiak zabaltzen tu loreak,
Oi Birjina, zure ohoretan,
Nola iduk detzazkegu bihotzak
Zerratuak zure aintzinean.
3. Alferretan suge amarrutsuak
Errabian bilhaturen gaitu ;
O Maria, zabaldurik besoak,
Amultsuki harturen gaitutzu.
4. Bihotz onez bethi-eginen dugu,
O Birjina, zuk nahi duzuna ;
Ditugunak kontsekratzen daitzugu
Amodioz, gure Ama ona.
5. Bere Ama Jesusek eman dauku
Ararteko, oi zer fagorea !
Ama hura ohoratzen badugu,
Maitatua daiteke Semea.
6. Ai ! ez dugu orai bertze nahirik
Baizen bethi zure maitatzea ;
Har gaitzatzu, eta iduk oraitik
Hiltzeraino, oi Ama maitea.

VII. — Ikhusiren zaitut.

Airea : J'irai la voir un jour.

ERREPIKA

Zeru gorenean }
Ikhusiren zaitut } *bis*

1. Ikhusiren zaitut. Andre dena Maria,
Jesusen aldean zeruan jarria.

2. Ikhusiren zaitut amultsuki onhesten,
Agur bat lurretik zaitzunean heltzen.
3. Ikhusiren zaitut fededunen artean
Bihotzak beiratzen garbitasunean.
4. Ikhusiren zaitut Birjina Lurdekoa
Frantziaren dako othoizten Jainkoa.
5. Ikhusiren zaitut zeruan ama ona,
Ikhusiren zaitut oi zer zoriona,

VIII. — Jainkoaren Ama.

ERREPIKA

Jainkoaren Ama, ama guziz ona,
Zaitzagun maitha, bethi, bethi (*bis*).

1. Guk gure amatzat hartzen zaitugu,
Bethi zu maithatuz bizi nahi dugu ;
Azken hatseraino kantatuko dugu
Bethi, bethi.
2. Hemengo hersturak ikhusten ditutzu,
Zoin den lotsagarri bizitzea dakigu ;
Beraz zure haurrak hemen beirazkitzu
Bethi, bethi.
3. Gure flakeziek zure bihotza
Dute erdiratzen, samurra baita,
Gutaz izan zazu, oi ! urrikalmendu
Bethi, bethi.

IX. — Maiatza da.

ERREPIKA

*Maiatza da urthekeo
Sasoin ederrena,
Amaren laudatzeko
Hautatzen duguna.*

1

Lore berezienak
Eman diotzogun,
Bihotz khartsuenak
Ofreiturik lagun.

2

Sasoin berrian oro
Dire maitagarri :
Bainan komparatzeko
Zer da Mariari?

3

Eder da iguzkia
Agertzen zeruan ;
Ederrago Maria
Jarria munduan.

4

Oihuz lili churia
Dago haranean ;
Ama zein den garbia
Guri nahiz erran.

5

Humilki brioleta,
Nahi da mintzatu.
Ama zein den modesta
Orori salhatu

6

Arrosa zabalduak
Dauku seinalatzen
Birjina amultsuak
Zein maite gaituen.

7

Bertuten iduria
Da lorea landan,
Bertuteak, Maria,
Ematzu gu baïthan.

X. — Korona hau.

ERREPIKA

Korona hau, egun huntan,
Ama, har zazu.
Hil ondoan, zeruetan,
Othoi eman behar dautazu (*bis*).

1

Maite zaitugu, Maria,
Ororen gidatzailia.

2

Egun handi eder hantan,
Gaude oro zure oinetan.

3

Munduan, zeru gaineratik,
Salba gaitzatzu gaizkitik.

4

Jesus dut hartzen lekuko
Zaitudala maitatuko.

5

Jiten nizanian hiltzerat,
Zauzkit, othoi, sahetserat.

6

Zure haurra entzun zazu
Ama ona, zuria duzu.

XI. — Ama ezitia.

ERREPIKA

Ama ezitia, othoi har nezazu,
Naizen guzia emaiten nitzauzu.

1. Jainkoaren ama guziz garbia,
Jesusek zuri eman nintuen.
Zure haurra naizen geroz, Maria,
Oro zuri naitzu kontsekratzen.
2. Har nezazu, beraz, Ama ezitia,
Bethikotzat zure gerizean,
Ikhus zazu Satanen malezia,
Hel zakizkit lanjeren artean.
3. Lekukotzat harturik Jaun handia,
Zinez dautzut egun hitzemaiten,
Mundu huntan nik bethi zaitudala
Ahal oroz, Ama, maitaturen.

XII. — O Maria Ama Maitea.

ERREPIKA

O Maria, Ama maitea,
Beira zazu Eskualdunen fedea :
Suhar eta kartsu, azkar egon bedi } (bis)
Hersturen erdian bethi,
Gauden gu Eskualdun bethi !

1

Salutatzen zaitut, Maria,
O Ama guziz ezitia !
Maite dut zurekilan Jesus,
Gure Errege handia !

2

Gu bethatore trichteentzat
Othoitz egizu zeruan,
Baitira lanjer handietan
Bizi direnak munduan.

Hiltzerakoan bereziki
Lagun gaitzatzu, Maria,
Zure bidez ardiesteko
Zeruetako loria !

XIII. — Oi Birjina.

1. Oi Birjina, Ama ona,
Entzun zatzu zure haurrak,
Senda zatzu, garbi zatzu
Bekatorosen bihotzak (*bis*).
2. Ifernutik, betkhatutik
Urrun gaitzatzu, oi Ama ;
Bethi garbi, khartsu bethi
Atchik zaguzu arima (*bis*).
3. Gur'othoitzak, oihu minak,
Baldin entzuten baitutzu,
Korona bat zure haurrentzat
Zeruan prepara zazu (*bis*).

XIV. — Agur Ama.

ERREPIKA

Birjina Maria, noiz bada } (*bis*)
Ni zure lorian, zeruan? }

1. Agur, Ama Jesus Maitearena,
Ametan zu zare eztienea ;
Zer zorion zure izaitea,
Zer loria zure maitatzea !
2. Izan zaite, Ama, ohoratua,
Zeru lurrez bethi laudatua,
Zarelakotz gure ihes lekua,
Bethidanik gure kontseilua.

3. Hel bada, hel, zu gure esperantza,
Hel bada, hel, oi gure laguntza :
Oi ! bertzenaz bai segur ifernua
Laster daite gutaz nausitua.

XV. — Garbi zare.

ERREPIKA

Garbi zare, Maria,
Nota bage guzia ;
Zure haurrak entzun zatzu
Zato, othoi, har gaitzatzu (*bis*).

1

Zu zare zeruko athea,
Zu gabe sekulan
Ez da nihor, Ama maitea,
Sartuko hango lorian.

2

Amultsuki gure gainerat
Othoi heda zazu
Othoi begi kolpe ezti bat
Eta gaitezke dohatsu.

3

Zeru lurren Erregina,
Esperantza dugu,
Zure haurrak, oi Ama ona,
Zeruan emanen tutzu.

XVI. — Agur Izar.

ERREPIKA

Onhets zazu, Maria,
Gure hitz garbia :
Jesus dugu nahi Aitatzat, } (*bis*)
Jesus gure Erregetzat. }

1. Agur, izar kontsolagarri
Krichtauen argitzailea,
Birjina bethi maitagarri,
Zeruetako athea.

2. Michterio espantagarri !
Jainko da zure semea :
Sabelean duzu ekharri
Ororen kreatzailea.
3. Gabriel Aingeruarekin
Agur dautzugu erraiten ;
Jaunen Jauna dela zurekin
Orok dugu ezagutzen.

San Joseperi

ERREPIKA

Ohore San Joseperi,
Patroin boteretsuari.

1
Oi hilabete huntan
Zaitugu laudatzen,
Bozak ditugu betan,
San Josep, altchatzen.

2
Josep zare Jesusen
Aita lekhukoa
Bai eta Mariaren
Espos hautatua.

3
Zeruan gora zare,
Oi saindu handia,
Eliza guziaren
Patroin berezia.

4
Zure garbitasuna
Gizonek balute,
Berthutetan maitena
Preza lezakete,

5
Zure humiltasuna
Zoin miragarria !
Zure ichiltasuna
Zoin laudagarria !

6
Zure urhatser bethi
Gare jarraikiko ;
Ongi zoinen den ezti
Dugu frogatuko.

7
Ah ! San Josep handia,
Urrikal zaizkigu !
Esperantza guzia
Zure baithan dugu.

8
Guziz gaitzatzu lagun
Azken orenean ;
Etsaiak zaitzu urrun
Gu ganik orduan.

Aphez Berri Batentzat

ERREPIKA

Aphez soberanoa,
O Jesus, zare zu,
Gure aphez huntarik
Saindu bat egizu.

1

Gure aphez gaztea
Horra aldarean,
Jesusek ezarria
Bere podorean :
Herritarrak hor gaitu
Oro bihotzean :
Guretzat ari zaiku
Orai othoitzean.

2

Horren aitamek dute
Ohore, atsegin,
Beren semea aphez
Baitzaiote egin.
Haur haurretik zioten
Jainkoak galdegin :
Dohainik ederrenez
Du orai berregin.

3

Oi zoin dohatsu zaren
Zu gure apheza !
Zein hunkigarri zaikun
Egun zure meza !
Zure bihotzak Jesus
Hor besarka beza :
Zorion handienaz
Orai zaite goza.

4

Zu behar zare izan
Arimen argia,
Zerurako bidean
Heien gidaria,
Ardi galdu direnen
Artzain bilharia,
Guziz berthutearen
Etsemplu garbia.

Misionetako

I. — Hau da gure itsumendua.

1. Hau da gure itsumendua !
Zerk gaitu bada zoratzen?
Ahantzirik salbamendua
Mundua dugu maitatzen.

ERREPIKA

Lurreko kargu, ohoreak
Dire ephe gutitako,
Hango, izaite, fagoreak
Zaizkit khearen pareko.

2. Arrosa elhorri gaberik
Ez ahal da nihon sortu ;
Ez eta munduko plazerik
Khiretsik gabe gerthatu.
3. Ontasun galkor batzuentzat
Ez gaitu Jaunak kreatu ;
Sainduki bizi direnentzat
Bertzerik du aldaratu.

II. — Mundu zoro.

ERREPIKA

Mundu zoro, enganioz bethea,
Atchiki nauk ondikotz saretan ;
Lausengarri, enganakor Atrichtea,
Atzeman nauk, eta zembatetan !

1. Nun zen bada neure adimendua
Bizitzean plazer galkorretan?
Hire baithan sobera fidatiruk
Errori nauk asko bekhatutan.
2. Itsumendu ezin ahantzizkoa
Salbatzeko izan naiz kreatu ;
Egiteko guzien gainekoa,
Nola bada nik zaitut baztertu?

III. — Gizona.

ERREPIKA

Gizona nun duk zuhurtzia?
Zer ! ez datik

Ez dela deusere bizia
Khe bat baizik?
Higuintzak bihotzez mun-
Orai danik, [dua]
Herioa duk hurbildua
Hire ganik.

1
Mundatar, plazer zoratuan
Hondatua,
Gauza bat bedi hire baitan
Finkatua ;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean ;
Bihar beretik haitekela
Lur barnean.

2
Laboraria, alferretan
Haiz nekhatzen ;
Maiz herion duk betbetan
Gu ganatzen.
Hazilen egitekolanak
Luk hiretzat,
Eta fruitu jinen direnak
Premuentzat.

IV. — Zer dire gure egunak.

1. Zer dire gure egunak? zer da gure bizia?
Itzalaren pare dira : Nun dugu zuhurtzia
Atsegin iragankorrei bihotza largatzeaz?
Akabo da laster gutaz, orhoit gaiten hiltzeas.
2. Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik ;
Herioak, gure bortcha, garamatza mundutik ;
Baratzetako loreak histen diren bezala,
Hola da gure bizia suntsitzen berehala.
3. Oi ! ez dugu zeren erran gazte, sendo garela,
Herioa gure ganik oraino urrun dela.
Sarri lur barnean daite bizi uste duena,
Nork daki noiz izanen den gure azken orena?
4. Ondikotz merezi tugu gaztigu garratzenak,
Othoi ahantz bekizkitzu, Jauna, gure hobenak,
Hel zakizkigu, Birjina, gure behar ordutan,
Guziz, o Ama maitea, hiltzeko orenean.

V. — Aditzen da.

ERREPIKA

Aditzen da trompeta lazgarria,
Ethorri da Jaunaren eguna,
Egun trichte, egun lotsagarria,
Bai egun guzien haudiena.

1. Ihurtzuri eta chimista pean
Lehenago Jauna mintzatu zen,
Bainan egun bere majestatean
Handiago guziei agertzen.
2. Aingeru onek emaiten dituzte
Merezitu duten arabera,
Gaichtaginak eta onak bi parte
Jesukrichtoren bi aldetara.
3. Hobendunak ezkerreko aldetik
Ikusten du Juje hasarrea ;
Eta onak Jaunaren eskuimetik
Bake osoaren beithartea.

VI. — Itzul hadi.

ERREPIKA

Itzul hadi, itzul bekhatorea,
Jainko Jaunak deitzen hau arraiki,
Estima zak hitaz duen galdea
Eta emok bihotza osoki (*bis*).

1. Bethiere, hire huts guzietan
Egin daiat bihotzetik oihu,
Ene ganat deithu haut hambatetan,
Bainan hago gogor eta mutu (*bis*).
2. Zer da, errak, nik egin eztudanik
Hi gaizkikik gibelarazteko?
Hambat argi izan duk ene ganik,
Hauk guziak, hi zeruratzeko (*bis*).

VII. — Jaun ona.

ERREPIKA

Jaun ona, Jaun ona, } (bis)
Ah ! ez ni abandona ! }

1

Zure kontra naiz altchatu
Zeru lurren nausia,
Zure kontra naiz harmatu,
Hau da atrebitzia !

2

Zer ez duzu, zuk, euetzat,
Egin Jesus maitea !
Noiz izanen naiz zuretzat
Ezagutzaz bethea?

3

Ene arima gaichoaz
Izan urrikalmendu :
Ene bizitze gaichtoaz
Oi ! othoi barkhamendu !

4

Zin zinez naiz kambiatzen,
Bai, memento beretik,
Zuretzat naiz deklaritzen
Bihotzaren erditik.

VIII. — Orai danik.

ERREPIKA

Orai danik, bihotzetik
Nahi naiz kambiatu ;
Salbatzerat, saindutzerat
Nahio naiz lehiatu (bis).

1

Uko bekhatuari,
Utz haren bidea,
Jarraik berthuteari
Hartan da bakea.

2

Orhoitu salbatzeaz :
Zer da presagorik ?
Bai eternitateaz :
Zer beharragorik ?

3

Zure salbamendua
Nahuzu obratu ?
Jainko-lege saindua
Behar da komplitu.

4

Hol'eginez, bizia
Duzu saindutuko,
Zeruetan Maria
Hola kausituko.

IX. — Huna, Jauna.

ERREPIKA

Zure ganat, oi ene Artzain ona, { (bis).
Graziak nau egun erakharri. }

1. Huna, Jauna, ardi bat galtzen zena,
Ez baziondu izan urrikari ;
Bainan orai zure eztitasuna
Agertzen da nere arimari.
2. Mundu pean ondikotz nintzen galtzen,
Eta bizi nintzen alegera ;
Bainan non da, oi Jauna, zutan baizen
Egiazko bihotzen plazerra?
3. Zure ganik ez penek, ez plazerrek
Ni ez naute nihoiz urrunduren ;
Ez hiltzeko kerstura hendienek
Zu laudatzetik gibelaturen.

X. — Barkha Jauna.

(Cf. messe avec chants, p. 44).

XI. — Zerua saritzat.

ERREPIKA

Zerua, zerua,
Zerua, saritzar (bis).

1
Zerua saritzat,
Har kuraje Kristauak,
Hemengo nigarrentzat
Derauka Jainkoak.

2
Zerua saritzat,
Salba beraz arimak ;

Utzi mundutarrentzat
Atsegin galkhorrak.

3
Zerua saritzat,
Hots bada, o gaztea,
Dezazu bethikotzat
Maita berthutea.

4

Zerua saritzat,
Hots bada aita amak,
Egin zuen haurrentzat.
Othoitz karsuenak.

5

Zerua saritzat,
Ikhus zuen adinak,

Iragan demborentzat
Egin nigar minak.

6

Zerua saritzat,
Nola ez bozkaria?
Dugu sarri guretzat
Bethiko gloria.

XII. — Eskerren bihurtzeko.

1. Dezagun kanta gogotik ;
Gaiten guziak bozkaria ;
Gure salbatzea gatik,
Jesus, eman duzu bizia.
Bai, bihotzaren erditik,
Dezagun kanta gogotik.
2. Dezagun kanta gogotik :
Zure odol preziatua
Ichurri duzu gu gatik ;
Zaite, o Jesus, laudatua.
Bai bihotzaren, etc.
3. Dezagun kanta gogotik :
Nahiz arimak zeruratu,
Leze beltz ifernukotik,
Jesus, gaitutzu begiratu.
Bai bihotzaren, etc.
4. Dezagun kanta gogotik :
Jesus dela lorifikatu ;
Hark gaitu egundainotik
Amodio choilez maithatu.
Bai, bihotzaren, etc.
5. Dezagun kanta gogotik :
O Jesus zure ohoretan,
Bozak errepikatzetik
Ez beitez bara bazterretan.
Bai, bihotzaren, etc.

Kurutzedunen Kantika

Kurutzedun naiz

Aiera : *Je suis Chrétien*

ERREFIKA

Kurutzedun naiz, aurkhitze^{ko}
Zeruetan Koronadun,
Jesusekin gudukatzeko
Bai, zinez naiz Kurutzedum!

1. Kurutzedun egiazkoak
Maite du Gorphutz-Saindua
Hura Jésus Ostiakoak
Ongi derauka zaindua!
 - 2, Kurutzedun denak bibotzez
Du pairatzen Jesusekin,
Haur galdua, bere 6thoitzez,
Bakherazten Aitarekin!
 3. Kurutzedun agertzekotan
Huna hemen Kurutzea,
Hortan hil den Jainkoa baitan
Orok bilha bizitzea!
 4. Kurutzedunen Erregina
Zu zaitugu, O Maria!
Zu gidari' zer atsegina,
Gure daite bitoria!
-

AURKHI BIDEA

I. Othoitzak

	Pages.
I. — Goizeko othoitza. — Jesusen izenaren lethaniak. — Manamenduak. — Gloria Patri. — Egunaren eskaintza.	1
II. — Aratseko othoitza. — Andre-dena-Mariaren lethaniak. — Anjelusak.	7
III. — Hilen othoitza.	11
IV. — Orotarik : Orhoit zaite. — Sub tuum. — San Josepi. — Familia Sainduari. — Aingeru Begiraleari. — Patroin Sainduari. — Othoitz laburrak (jan-aintzin eta ondoko, laneko, tentazionetako, elizan sartzeko). — Etchekoentzat. — Ethorkizuneko. — Aphezgaiarena.	12
V. — Estazioneak.	16

II. Meza Saindua

I. — Meza Saindua zer den.	22
II. — Meza Sainduko othoitzak.	26
III. — Meza Saindua kantiketan.	44
IV. — Haur kurutzedunen Meza.	53
V. — Meza Nausia	59
VI. — Hilen Meza.	62
VII. — Beretteraren errepostuak.	65

III. Bezperak eta Ofizioak

I. — Bezperak. — 1 ^o Igandetako bezperak. — 2 ^o Andre-dena-Mariarenak. — 3 ^o Sakra- mendu Sainduarenak. — 4 ^o Himnoak.	69
II. — Latinezko kantikak.	88
III. — Kompletak	92
V. — Andre-dena-Mariaren antifonak.	94
V. — Benedizionetan.	96

IV. Sakramenduak

Penitentzia. — 1 ^o Etsamina. — 2 ^o Kontrizioea. — 3 ^o Aithormena. — 4 ^o Absoluzioea ; — 5 ^o Peni- tentzia.	99
Gorphutz Saindua. — 1 ^o Komuniatu aintzinean. — 2 ^o Komuniatzeko egunean. — 3 ^o Komuniatu ondoan. — 4 ^o Othoitz baliosa.	105
Konfirmazioea.	108

V. Igandetako eta Phesta-buruetako Ebanjelioak

Abendoa, p. 113; Eguberri, p. 116; Trufania-denboran, p. 118; Septuage imam, p. 123; Pasioean, p. 130; Pazko, p. 140; Mendekoste, p. 145; Mende. oste-ondoan, p. 147; Andre-dena-Maria Agorrilekoa, p. 164; Kristo-errege, p. 165; Omia-Saindu, p. 165; Dedi_kazioea, p. 166; Hilan mezan, p. 166.

VI. Elizako Phestak

- I. — Sainte Enfance, p. 168.
- II. — Komunione handia, p. 170.

VII. Eskuarazko kantikak

Izpiritu sainduari, p. 174; Abendoko, p. 174; Eguberriko p. 176; Trufania' o, p. 183; Kurutzeari, p. 184; Bihotz-sakramuari, p. 187; Kris'o-erregeri, p. 189; Sakramendu Sainduari. p. 190; Lehen komunionekeo, p. 200; Andre-dena-Mariari, p. 203; San Josepi, p. 214; Apezberri batentzat. p. 215; Misionetako, p. 215; Haur Kurutzedunen Kantika, p. 122.

BIGARREN AURKHI BIDEA

I. Psalmoak eta latinezko kantikak

Adoremus	199	Deus tuorum	85
Adoro te	96	Dies iræ.	62
Ad regias	78	Dignus est.	96
Agnus Dei.	62	Dixit Dominus.	69
Alma.	94	Ecce nunc	83
Asperges me	59	En ut superba.	81
Audi benigne	77	Exsultet orbis.	84
Ave Maris stella	74	Fortem virili.	87
Ave Regina.	95	Gloria in excelsis	59
Ave, verum	96	Gloria Patri.	6
Beatur vir	70	In exitu	71
Beati omnes	75	Inviolata	97
Benedictus	199	Iste Confessor.	86
Cælestis urbs	87	Jam sol	80
Christus vincit.	199	Jesu corona	87
Confitebor.	70	Jesu dulcis	77
Cor Jesu	96	Jesu Redemptor.	76
Creator alme.	76	Lætatus sum	73
Credidi.	75	Lauda Jerusalem	74
Credo.	60	Lauda Sion	88
Crudelis Herodes.	77	Laudate Dominum	72
Cum invocarem	92	Laudate pueri	71
Decorâ lux	82		
De profundis	11		

Libera me.....	65	Salve Regina.....	95
Lucis Creator	72	Salve virilis.....	79
Magnificat.....	72	Sancta Mater	16
Nisi Dominus.....	73	Sanctorum meritis. . .	85
Nunc dimittis.	94	Sanctus	61
O filii et filiæ.	89	Stabat Mater	90
O salutaris	96	Sub tuum.....	97
O sanctissima.....	200	Tantum ergo.....	97
Pange lingua	81	Te Deum.	91
Panis angelicus	199	Te gestientem	83
Parce Domine	97	Te Joseph.....	79
Placare	84	Te lucis	93
Qui habitat.	92	Te sæculorum.....	83
Regina cæli	95	Tu es Petrus	97
Rex gloriose	86	Tristes erant.	84
Salutis humanæ.....	80	Ut queant	82
Salve mater	200	Veni Creator.....	80
		Vexilla Regis	78
		Vidi aquam.	59

II. Eskuarazko kantikak

Aditzen da.....	218	Aphez soberanoa	215
Adora dezagun.	190	Arnegatzen dut.....	202
Agur aingeruen.....	203	Atzar gaiten	177
Agur ama.....	212	Barkha Jauna	44
Agur izar	213	Besta eder huntara..	200
Aingeru batek.....	203	Bihotz Jesus maitearena	187
Airerik ederrenetan.	181	Bozik kantatzen.	204
Ama eztia	211	Dezagun kanta.	221
Amodio ohore.....	205	Dezagun kanta (mezan)	48
Amodioz bihotza	207	Dugun alegrantzietan	182
Aphezak eskaintzen ..	47		

Dugun bethi lauda	188	Nahi duzue	197
Garbi zare	213	Ohore amodio	198
Gau erdi da	179	Ohore San Joseperi	214
Gauerditan	180	Oi Bethleem	180
Gaur sortu da	182	Oi Birjina	212
Gizona, nun duk	216	Oi eguberri gaua	176
Gure Aita	50	Oi kurutzea	185
Hau da itsumendua	215	Oi mirakulu guziz	193
Haurrak altcha	201	O zer ogi	194
Haurrak zuen	202	Oi zer zoriona	199
Humilki zaitut	44	O Jesus Bihotz samur	188
Huna Jauna	220	O Jesus kurutzera	184
Huna bildotch ezta	132	O Jesus ona	196
Huna non zaitudan	51	O Maria	211
Ikusire zaitut	208	Orai danik	219
Itzul hadi (mezan)	46	Ororen Aita ona	45
Itzul hadi	218	Phitzu da	186
Itzuli da	47	Sinesten dut	195
Jainkoaren ama	209	Sinesten dut (mezan)	48
Jaun ona	219	Uholde baten pare	206
Jesus hili piztu	187	Urrun zaitezte	201
Jesus, o Jesus	53	Zaño Izpiritua era-	
Jesus ona	198	kusle	46
Kanta zagun	175	Zaño Izpiritua kreat-	
Korona hau	210	zaile	174
Kristo-erregeri	189	Zaño Jaun amultsua	174
Kristo dezagun	183	Zer dire gure egunak	217
Kurutzearen bidea	184	Zerua saritzat	220
Kurutzedun naiz	222	Zeru gorenatarik	196
Maiatza da	209	Zeruko Aita	45
Meza finitzean	52	Zerutik jautsi	197
Mundu zoro	216	Zer zorion	194

IMPRIMÉ EN FRANCE

45 620-1938. — Tours, impr. Mame.

O gessus, o gessus ostian garena

Amputen dut (los) gainko zarela

Zu Baitan dut (los) esperantza

Mante zaitut, bihotz gurziaz

